

Nikolas Zendoia

Egan dijoa





Nikolas Zendoia
(Aia, 1941)

Gaur Zarautzen bizi bada ere. Aian jaio zan 1941eko urtarrillaren 2an, Urdaneta auzo inguruan, Izeta baserrian. Gaztetan Azpeitira lanera joanda, bertan artu zuen parte, 1967an, Euskaltzaindiak eraturako bertsolari-txapelketako kanporaketan. Ordukoa du ain maitea duen txapel txikia.

Gerora, 1975etik 1986ra bitartean bertsolaritzari lagata egon ondoren, Aia barruko bertsolarien txapelketan ausartu zan berriz plazaratzera, 1987an. Eta Aiako txapel bat ere beintzat badu. Andik bi urtera, finalerdira iritsi zan Euskal Erriko 1989ko txapelketa nagusian. Berak dioena: Gernikaraiño, alajaiña!

Ia berrogeita amabi urterekin asi zan bertso-paperak idazten: aitona eginda gero. Leenengo sortarekin, 1992ko Orixe saria irabazi zuen. Geroztik, beste bost leen sari potolo ere irabaziak ditu: Basarri saria, 1998an; Orixe saria, berrito, 2001ean; eta Lazkao Txiki saria, 1999an, 2000n eta 2003an. Bigarren eta irugarren sariak ere baditu ogeitaka.

Beranduko birigarroa bertso-liburua plazaratu zuen 1998an (Auspoa, 254). Eta orain egan eginarazi nai dio birigarro ari.

Prosa-idazle bikaiña ere izanik, illero argitaratzen ditu oroitzapenak *Diario Vasco* egunkarian.

Nikolas Zendoia

Egan dijoa

Auspoa Liburutegia

295

ZENDOIA, Nikolas

Egan dijoa / Nikolas Zendoia. - [S.l.] : Auspoa ; Donostia-San Sebastián :
Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura Zuzendaritza Nagusia, 2005.

232 or. : argk. ; 20 cm. - (Auspoa Liburutegia ; 295)

Aurkibidea

L.G. SS 1.503-2005. - ISBN 84-7907-499-X

I. Gipuzkoa. Dirección General de Cultura, ed. II. Título. III. Serie.

821.361-1"19/20"

© Nikolas Zendoia

© *edizio honena*: AUSPOA Argitaletxea

Gipuzkoako Foru Aldundia

750 aleko tirada

ISBN: 84-7907-499-X

Legezko Gordailua: S.S. 1.503/05

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

Nikolas Zendoia

Egan dijoa



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Cultura

Donostia-San Sebastián, 2005

Aurkezpena

Kaixo, adiskide.

Emen nauzu berriro, *Beranduko birigarroa*, nere leenengo liburuxka, kaleratu nuenetik zazpi urtera. Bearbada, esango dezu zeure baitan tarte aundi samarra dala. Bein ere ez omen da berandu, eta uste orrekin natorkizu.

Orduan ere, “kaixo, adiskide” esanaz aurkeztu nizun nere leenengo alea. Eta itz berberekin natorkizu, *Egan dijoa* izenarekin bataiatu dedan nere bigarren liburu au aurkeztera.

Bi liburuen izenburuak jarraian irakurrita, “beranduko birigarroa egan dijoa” ateratzen zait. Baiña orretarako zure laguntza bear det, irakurle. Ni ez naiz ezer zu gabe.

Akatsak aurkituko dizkiozu. Baiña zuk ulertuko didazun itxaropenak lasaitzen dit barrena.

Elkarren laguntzari esker, egin genezake egan. Eta beste zazpi urte pasa baiño leen zerbait geiago eskeiñiko dizudala itz ematen dizut, adiskide.

Nikolas Zendoia
Zarautzen, 2005eko udazkenean

Ai, Judas!

“Ai, Judas!” esanda, Pello baziak ordenagailluaren Aurretik sukaldera, erdi lasterka, eskuak bu-ruan dituela. Ikaratu ere egin nintzan. Biok bait geunden bere langelan, ni nere idazlan bat txukun-tzera joana, babes billa, askotan bezela.

Denbora-pasa ari giñan, igande goiza izanik. Orre-tarako, leentxeago egin zidan galdera:

–Nikolas, zuk ezertarako presarik bai?

–Nik, ez.

–Nik ere ez daukat beste zeregiñik.

Esan nion, gaiñera:

–Gaur Pilarika eguna da. Ezkondu nintzaneko ur-temuga ere bada. Ogeita amasei urte Pilarrekin ezkondu nintzala, eta bera nerekin.

–Joño! Zorionak! –eta sorbaldan, zartada bat.

Nere eskerrik askoa.

Berak, adarra jotzearren:

–Botilla txanpainaekin etorri bear zenuen, ondo izateko.

–Ba, alaxe etorri naiz, ba. Or, sarrerako ate atzean laga det, eta leenbaileen sar ezazu ozkailluan. Beste-la, geu baiño txepelago egingo da-ta.

Semeari deadar egin zion. Ura ere an bait zebillen, oetik jeiki berria, artean esnatzeko, baiña.

–Haritz, sartu txanpaina ozkailluan, gaur broma denak ondo ateratzen ari zaizkit-eta.

“Pasako dek zerbait.”

–A! Eta ondo etorriko zaigu, gaiñera; bazkaritara-ko oillaskoa daukagu-ta.

Orduan gogoratu zan, ba, Pello, bat-batean, emazte Maria Doloresek zer agindu eman zion goizean, etxetik mendira irteterakoan. Alegia: amabi t'erdietan labea pizteko, gero oillaskoa erretzen jartzeko. Ordu bata ere bazan. Bereala etorri zan:

-Ez da ezer pasa. Maria Dolores etxera etorrita, labea berotu gabe aurkitu balu, okerrago izango zan. Orduan, zuk ere entzun bearke zenituen.

Ori besterik ez zala ikustean, lasaitu nintzan. Esan ere, egin nion:

-Ikaratu nauzu, gizona. Ez sí eta ez no, buruari elduta joan zera-ta. Zure ziatikari ez zion, ba, on aundirik egingo azkar mugitze orrek!

(Aitzaki oiekin bait zebillen.)

-Akaso, mesede egingo dit. Auskalo!

Eta ondoren:

-Nun geunden?

-Lerro auetan ari giñan, Pello.

Jarraitu genion leengo ariari, itza aoan eta letra paperean.

Ordu laurdenera-edo, berriz:

-Ai, Judas!

Eta an dijoala berriro sukaldera, leen baiño azkarrago. Erre-usaia! Neu ere altxa nintzan jarraulkitik. Haritz ere agertu zan, beste ate batetik. Pello an zebillen sukaldean, erdi galduta, kea joateko leioak irekitzen, bere ustetan. Haritzek, bai, azkar kendu zuen sutan zegoen trapua. Eta arraskara bota. Eskerrak ari. Bestela, oraindik keak kentzeko geunden.

-Zer pasa da, aita?

-Gero itz egingo degu.

Nik ere ireki nuen geroni geunden gelako leioa. Ordurako, aurreko etxeko amona ere uste det oartuta zegoela. Leiotik begira zegoen beintzat-eta.

Berriro Haritzek, erdi parrez, erdi serio:

-Aita, zer pasa zaizu?

-Ez da ezer pasa. Au ez da ezer ere. Zera uste nuen: labea pizteko botoiari eman niola, eta suaren plantxarenari eman diot. Eta zera: gainean zegoen trapua erre da.

-Egia diozu, aita. Au ez da ezer, zuk egiteko.

-Bota ezazu spraya edo zeozer, usaia joan dedin. Besterik ez bada, euliak akabatzekoa-edo. Zerbait beintzat.

-Bai. Ama etortzen danean...

Orrela, eseri giñan. Eta berriro, geure lanean.

-Esaten nuen zerbait gertatu bear zuela. Eta begira!

-Lasai, Pello. Oillaskoa erre balitz, okerrago izango zan.

-Arrazoi dezu. Eta animoa eman didazu, gainera. Orain gauzak obeto egingo ditugu.

Lanak bukatze aldera, atea irekitzeko giltza-otsa.

-Aibala! Andrea dator.

Ni, isilik.

Atea irekitzerakoan:

-Haritz, Haritz! -deadarra-. Garajeko giltzak eman azkar, erre-usaia dator eskailleretan gora-eta. Ea garajea zerbait dagoen.

Haritzek, parreari eutsi eziñik:

-Ez, ama. Garajea ez da ezer pasatzen. Erre-usaia emengoa da.

-Bai. Emen ere bai, baiña...

-Lasai, ama. Aitak, labearen botoiari eman bearean, suarenari eman dio. Eta gainean zegoen trapuak su artu du. Auxe da guztia, ama. Ez da ezer gertatzen.

-Eta labea otza daukazue oraindik?

(Artean pizteko bait zegoen.)

Alde egiterakoan, nerekiko nioen: "Gaur oillaskoa berotzerako, txanpainā oztuko dek".

Gaiñera, uste det ziatikaren erdiak alde egin ziola Pellori.

Baiña ez da emen amaitzen istorioa. Goazen aurrera.

Urrengo ostegunean, urriaren amaseian, Donostiako Poliklinikan sartu bearra neukan goizeko zortzietarako, mokorreko ebakuntza egiteko. Egun bat leenago -au da, astezkenean-, goizean deitu nion telefonoz berriro.

-Pello. Nikolas naiz. Deitzen dizut esateko, joan zan igandean geratu zitzaigun prosa ura garbituko bagenu arratsaldean-edo, biar lasaiago joango nintzakeela ospitalera.

-Etorri derrepente, beste zeregiñik gabe nago-ta. Aitaren batean begiratuko diogu.

-Bai. Leengo igandean ere ez zenuen beste zeregiñik, baiña begira zenbat egin bear izan genuen.

-Gaur ez dago iñolako arriskurik. Gauzak erreza-go dauzkat.

Salto batean joan nintzan ba, aitaren batean egiteko.

-Egun on.

Eta:

-Egun on. Pasa aurrera.

Eseri giñan, ba, biok, eta bere galdera:

-Zer? Animatuta biarko?

-Ba, bai. Ez dago atzerabueltarik, eta ederki.

Asi eta bereala amaitu genuen lana: "Lapuche' xaar ura" artikulua garbitzea.

Orrela agurtu giñan, eskuak elkarri luzatu ondoren:

-Suerte on biarko.

-Eskerrik asko.

Urrengo goizean, ni emaztearekin Poliklinikara, burua makur-makur eginda, buztana anka artean sartuta ikaraz dijoan zakurra bezela. Baiña, tira! Ustez dena ondo atera da, eta pozik.

Andik bigarren egunera, larunbatean, telefonoaren txirriña, tirrin..., oearen aldameneko maai txikiaren gainean. Nolabait ere besoa luzatu eta artu nuen.

-Bai. Esan.

-Nikolasekin itz egin aal baneza...

"Kauen sos! Au Pello dek".

-Kaixo!

-Zer moduz dago berori?

Eta orrela.

-Bai, bai. *Berori* deitzeko nago ni. Zaarra baiño zaarrago naizela iruditzen zait.

Kontu kontari egon ondoren:

-A! Eta ez dakizu azkenekoa -esan zidan.

Nere artean: "Orain ere badiagu zerbait".

-Nola izan ziñan asteazken eguerdian gure etxean...?

-Bai.

-Ba, sekulakoa. Esan nizun, ba, erreza neukala, dana kontrolpean nuela eta abar...

-Bai.

-Ba, begira. Leengo igandean ez zan ezer gertatu, asteazkenekoaren aldean.

-Zer arraio egin genuen, ba?

-Zer arraio ez. Kristo eginda laga nuela labean zegoena.

-Nola, baiña?

-Zera: zu etorri eta bereala itzali bear nuela labea, eta ez nuela itzali. Maria Doloresek ederki maneatu-tako tarterakada bazkaria, bere berdurekin eta bear zituen gauzeekin jarria, ikatz biurtu nuela. Azkeneko amar minutuko tokea labean emateko agindua nuen. Eta tokea eman bearrean, danbatekoa eman niola. Zuk alde egin eta berealaxe asi zan txondor-usaia.

Berriz ere "Ai, Judas!" esanaz joango zen. Berriz ere, beranduegi.

Ai, Pello, Pello! Oraingoan ez daukazu esaterik ez dala ezer pasa.

Erre eta ondatu,
orra or bi gastu.
Bi agindu zeneuzkan,
bitatik bi aaztu.
Bazkari eder ura
labean ikaztu.
Gero ezin dastatu
ta ezin miaztu.
Gozatzeko jarri ta
beztu ta mikaztu.

Nere bi bisitetan
zenituen bi su.
Pello, naiko suerte
txarra dabilkizu.
Azkenean neu ere
jarria naiz izu.
Ainbeste suterekin
bazabiltza, aizu:
dalako ziatikak
alde egingo dizu.

2004ko neguan

Erbia airera bota

Beingo batean, lagun-talde batek afaria genuen, beintzat. Eta, jakiña, denetik itz egiten da alakoetan.

Bertsotarako ere bagiñan ala moduzko zenbait, ni barne nintzala. Baiña bai bertsolari onak ere: Egaña, Sorozabal, Otamendi, Joxe Mari Lertxundi eta abar.

Leen nioen bezela, denetik itz egiten da, bai, orrelakoetan. Baita erronka ere.

Nik ez dakit nork atera zuen eiza-kontua. Dana dala, denak eiztari onaren itxura agertzen genuen.

Alako batean, isilik luzaro egon ondoren, ala zioen Lertxundik, bere aitzakiazko eztul txiki orietako bat egiñaz:

-Bai. Neronek ere bein bota nian erbia airera. Beea jo zuenean, ots ederra atera zian.


Ala, parre pixka bat egin genuen, eta aurrera.

Andik pixka batera, Sorozabalek, adarra jotzeko sistemaz:

-Zu, Jose Mari..., zera: erbiak altura aundia al zeraman?

-Ba, bai. Dexentea. Pagoeta mendiak zazpireun inguru zeuzkak itsasotik. Eta goiko muturrean giñuzean, eta atera kontuak.

Umore-puntu ori berezkoa du Joxe Mari Lertxundik. Jarraitu dezala orrelaxe urte askoan. Orduan jubilatzeke zegoen, gaiñera; eta Laurgaingo mendietxe politean bizi zan. Zoriondu genuen.



Joxemari Lertxundi bertsolaria.

Doiñua: Esne-saltzaillearena
(bigarren lerroa errepikatuz)

1. Lertxundi eiztaria
iñundik iñora
izango zala zeinek
ekarri gogora?
Baiña, berak zionez,
ala izango da.
Batzuetan mendira,
bestetan basora,
erbiak airera ta
faisanak ondora.
2. Beraz, eiz-garaian
ez zaude lasaia.
Gaiñera, ogibidez
beti basozaia.
Aguro artzen dezu
eizaren usaia.
Iñor bistan ez bada,
arrapatzen saia.
Eiztarientzat ere
ez zera etsaia.
3. Badakizu, bai, eiza
nun dagon billatzen.
Badakizu botatzen,
baita ere uxatzen.
Badakizu lumatzen,
baita ere gixatzen...
Baiña zure akatsak
neri dit pisatzen:
jatera ez gaituzu
iñoiz gonbidatzen.

4. Barkatu, Joxe Mari,
broman ari nintzan.
Zu eskopetazale
ez bait zera izan.
Beti jokatu dezu
basozaien gisan,
gaiñera sartu gabe
eiztari-bizitzan,
naiz ta nolabaiteko
franko bagabiltzan.

5. Txoriak maite izan
dituzu zuk oso.
Zure basetxe jira
daukate eroso.
Atariko zelaietan
dabilzkizu gozo.
Iñoiz ez det ikusi,
naiz joan basoz baso,
an ainbat birigarro
ta ainbeste zozo.

6. Zure atari jirak
maiteak dituzte,
ez zuk gorrotokoak
baldin baziñuzke.
Neronek ere pozik
artuko nituzke,
baiña eziñezkoa
ote dan nik uste.
Olako basozaiak
bear genituzke.

7. Inguratua zaude
noiznai gau amestiz.
Ta zer esango dizut
orko egunsentiz?
Gero beti bertsoan
alaitasun eztiz.
Txoriek erantzuten
dizute abestiz.
Zoriontsu zera ta
ez bide garestiz.
8. Izan ere, Laurgaingo
mendi politean
bizi zera ogeita
amar bat urtean,
beso-zabal artuaz
iñor joatean,
ta neroni ere bai
tarteantarte...
Bertsolari geienak
lekua dute an.
9. Irurogeita bost bat
urte ingurura
iritsi omen zera,
baiña badet duda.
Zuk daukazun sasoia
ta gazte-itxura!
Orrek zer esan nai du?
“Egoki zaindu da”.
Baiña atsedentzeko
garaia eldu da.

10. Maite dezu basoa,
mendi ta erria;
au da, ura, egurra,
lurra ta arria,
euskera, bertsoa ta
pake-egarria...
Eta orain zaartzaro
atsegingarria.
Izan dedilla zugar
ongi etorria.
11. Liburuxka batzuek
ere idatziak
badituzu, bai, bertso
apaiñez jantziak.
Nola ez? Ateraldi
eder ta bitxiak
euskaldunon eskutan
dauzkazu utziak.
Ziur nago daudela
ongi itsatsiak.
12. Auxe diot lagun zaar
agurgarriari:
ez dirala basozai
asko bertsolari.
Orain arte bezela
jarraitu kantari.
Besarkada bat eta
agur, Joxe Mari.
Ta goraintziak eman
andre Mariari.

Zarautzen, 1998ko urtarrillean

Aitona Andres itsututa dago

I 998ko martxoa zan. Lasarteko altzari-denda batera joan nintzan kutxa bat eramatera. Plaza Jaizkibel deritzaion artan dago nere lagunak diran oien denda: "Gabirondo altzariak". Dendakoa jendearekin zegoen eta ezin, ba, endredatu. Orrela, jendeak alde egin zuen arte, plaza artako arkupetan ibili nintzan denbora pasa. Luzaro, gaiñera.

An nenbillela, ikusi nuen urrutira beste arkupetik gizon bat zetorrela makiltxo batekin, *kaska-kaska* alboak joaz, poliki samar, betaurreko beltzez, txistutan eta kantari umoretsu.

Nere artean: "Ori itsua dek". Ni, geldi. Zenbat eta gertuago, eta orduan eta alaiago zetorrela iruditzen zitzaidan. Nere inguruan pasa eta bestaldeko izkinan izkutatu zan arte, txistu eta kantuan joan zan aitona motx ura.

"Kontxo! Bertso-sorta bat jartzeko au dek gai egokia", nioen nere baitan, "gizon orri errespetu aundi bat azalduz". Eta, gaiñera, zenbait arrazoi polit bertan gogoratu zitzaizkidan.

Gero, dendako etxeakoandreari galdetu nion:

-Aizu. Arkupetan nagoela, aitona txiki bat makillarekin alboak joaz kantari pasa da, eta itsua dala iruditu zait. Bere berririk ba al dezu?

-Ene! Bai orixe! Aitona Andres. Itsua da, bai, eta ortxe inguruan bizi da. Oso ezaguna degu. Beti kantari ikusiko dezu. Berez erdalduna da. Ez dakit euskeraz badakien.

-Eskerrik asko, etxeakoandre, gizon ori ezagutzeko bidea erreztu didazulako. Urren arte.

–Agur, bai.

Ondoren artan, bereala moldatu nituen nere zortzi bertso txiki auek. Ez zitzaidan zailla egin. Alde ederra dago gaiari tiraka jardun edo-ta gaia bera eman eta eman daukazunean!

1998ko iraillean, Basarri saria irabazi zuen bertso-sorta onek. Eta, sariak eman ziran egunean, Manuel Lasarte bertsolari aundiak kantatu zituen bertso auek. Neretzat, oore aundia benetan. Esker-rak milla aldiz, Manuel.

Gertaera polit aiek orrela joan ziran. Baiña ni ez nengoen lasai. “Itsu bat erabili bertsoak egiteko, eta saridun irten, eta guzti ori... Ba, zorretan negok gizon orrekin. Nolabait aurkitu dezadan aitona ori eta adierazi dezaiodan guztia. Asmatuko al det? Ulertuko ote dit?”.

Dana dala, urrengo azaroan, larunbat arratsalde batez, Lasartera. Furgoneta baztertu eta an joan nintzan leen ikusi nuen alderdi artara. Urduri nengoen, oso urduri. Bera ikusi baiño leenago oartu nintzen ez zebilela urruti; kantari sumatu bait nuen.

Bereala agertu zan kantoi batean. Ikaraz geratu nintzan. Kera txiki baten ondoren urreratu nintzaion eta:

–Buenas tardes, señor Andrés.

Eta geratu zan eta pauso bat atzera egin zuen, eta erantzun:

–Buenas tardes. ¿Quién es usted? –serio galdetu zidan.

Itz gutxitan adierazi nion guztiaren berri. Eta ez ikaratzeko esan nion, neroni ikaraz nengoela baiña.

Berriz pausoa aurreratu eta, esku ezkerrera makilla pasa ondoren, esku eskubia luzatu zidan. Nik ere bai azkar.

-Me parece que me estás contando la verdad.
¿Puedo fiarme de ti?

-Sí, Andrés. Y así me gusta: que me trates de tú.

Bere gorputzaren kontra makilla tente lagata, ezkerreko eskua ere luzatu eta bi eskuak estu-estu egin zizkidan.

Antzeman nion, bere izketako eran, bromak gogoko ote zituen. Eta egonaldi luze baten ondoren esan nion:

-Bueno, Andrés. Aquí hay un bar. ¿Me invitas o te invito yo?

-Ya sé que hay un bar. Y más de uno también. ¿Qué crees tú: que no lo sé? Estos rincones, los conozco yo mejor que tú, jodido.

Konfiantza artu genion elkarri. Eta adarra jotzen asteko ere gutxi falta genuen.

Eldu zidan besotik eta:

-Venga, vamos. Estás invitado.

-No. Hoy te invito yo. Dentro de poco quiero estar contigo. Y entonces te tocará a ti.

Orrelaxe egon giñan ostatuan kafetxo bana artuaz: kontu kontari. Eta galdetu nion ea berez al zan itsu ala geroztik. Irurogeita bat urterekin itsutu zala, obra batetik eroritako ladrillu batek aurpegian jota. Orduan, irurogeita emeretzi urte zituela. Orrela agurtu giñan, "laster arte" esanda.

Urrengo Gabon egunean, arratsaldean joan nintzan berriro, bisita bat egiñaz eta erregalitxo batekin. Betiko tokian aurkitu nuen aitona Andres.

"Arratsalde on, Andres" esan nionean -orrela: euskeraz-, laster altxa zan jarraulkitik.

-¿Dónde estás, poeta? Eres Nikolas.

-Sí.

Agurtu giñan eta esan nion zertara joan nintzan.

-¿Qué me das?

-Poca cosa.

-Me dejas avergonzado. No sé cómo agradecerte, pero no sabía que eras tan tonto.

Beti orrelako ateraldiekin irteten da.

Geroztik ere egoten gera elkarrekin: seme-alabak ezkontuta dituztela eta aitona-amonak bizi dirala Lasarten.

Ondorengo auek dira bertsoak.



Aitona-amonak:

Joxe Manuel Zendoia eta Bernarda Lizarralde.

Itsu bat dator

Doiñua: *Ai, ori begi ederra!*

1. Plaza zaarraren epela
arkupetan nengoela,
an bai giro zegoela!
Kanka ta *kanka* alboak joaz
ara norbait zetorrela,
“zein izango da orrela?”,
nere baitan nioela,
“ziur itsuren bat dela”.
2. Oñera bi zapatilla;
eskuan, berriz, makilla
pasagune denen billa.
Betaurreko beltz brillu gabeak,
aurpegiz naiko zurbilla...
Naiz ta naigabeak milla,
ezbearrean umilla,
zorionetik urbilla.
3. Orren alai nora zoaz,
kantuan ta txistu joaz
biotzez eta aoaz?
Eguneroko bizpairu uso
zure inguruan doaz,
ego urdiñak jasoaz.
Gu ere errukiz goaz,
begi itxi oien loaz.

4. Itzaltzean argi ura,
orra begien ixtura;
baiña fede bat piztu da.
Egun batean aldatu arren
ikusmenetik itsura,
ez zaizu galdu itxura;
biurtu dezu tristura
kantura eta txistura.

5. Plazako jarraulketan
esertzen zera aietan
astean eta jaietan.
Uso geiago urbiltzen zaizu
ondora ta armailletan
edo sorbalda gaiñetan
opil-apurren naietan...
Zuk eman aala aiek jan.

6. Zure begien illuna,
argi egiten diguna,
ikasbide zaituguna.
Itzal berean bizi izan arren
arratsa eta eguna,
erri-maitale txukuna,
ume guztien laguna,
nork ez zaitu ezaguna?

7. Itsumenaren arria
ez deritzazu larria.
Orra or giza neurria!
Arkupe auek alaitze utsez
janzten diguzu erria.
Zure kantu ta irria,
zeu zera apaingarria,
plazako udaberria.

8. Maite zaituzte aurtxoak,
etxekoak ta auzoak;
baita ere erri osoak.
Aitona, gure ispillu dira
zure begien lausoak,
biotz on batek jasoak.
Betoz bai zugan gaixoak,
esperantzaren usoak.

*Zarautzen, 1998ko udaberrian
Basarri sarian, 1998an, 1. saria*

Lazkao Txiki

Lazkao Txiki aundia il zanetik bosgarren urteurrenera, beraren omenezko jaialdi bat egin zan; Lazkaomendin, uste det. Euskadi Irratiak zuzenean eman zuen jaialdi ura, larunbat bazkalondo batez, “Hitza jolas bihurtu zen” deritzan saioan. Egun batzuk aurretik, nere lagun eta tokaio dan Nikolas Aldaik telefonoz deitu zidan, jaialdi artarako iru bat bertso nai zituzkeela telefonoz grabatu eta jaialdi artan emateko, baiña Lazkao Txikiri buruz. Beste batzuei ere eskatu ziela lan bera. Pozik idatzi nizkion, argazkia egiñaz, iru bertso.

1. Metro ta irurogei
beetik gorakoa,
mutil txiki samarra,
pauso aundikoa,
oiñetan geienean
zapata bikoa,
betazal illetsuak,
musu gorrikoa,
eskuak patriketan
ta baserrikoa.
2. Orrazteko oitura
aurretik atzera,
jertse luzexka edo
txaketa janzkera.
Bertsoa, ipuiña,
izkuntza euskera,
iru arma aiekin
bizitu zan bera.
Txurrutero samarra,
orretaz gaiñera.

3. Begi ikerlariak
Joxe Migelenak.
Umetxoak zituen
beti maiteenak.
Baiña berak ez zuen;
beraz, besterenak.
Ez kongabea zan da,
nola ondorenak?
Argazki soil onekin
utzi giñun denak.

Zarautzen, 1998ko martxoaren 25ean



Aia aldeko bertsolari-taldea.

Atzean, ezkerretik eskubira: Luis Otamendi, Martin Rezabal "Olaso", Manuel Lertxundi "Olaberria" eta Markos Manterola.
Aurrean: ni, Pello Esnal, Joan Peñagarikano "Artzain" eta Joxe Mari Lertxundi.

Argazkia: Belen Zendoia

Plaentxiko ojalateroak

Leen, *Placencia de las armas* deitzen zitzaion gaur Legun Soraluze dan erriari.

Bertako jende elduak, oraindik ere, leen bezela deitzen dio: Plaentxi, alegia.

Erri ortan bizi dira nere koiñatu-koiñatak, Iñazio eta Sabina, beren seme-alabekin. Koiñata, andra aundi bat da. Nik *Txikita* deitzen diot. Iñazio eta bere sozio Joanito, Plaentxiko ojalateroak, linterneroak, dira. Beren lantokiak San Andres du izena.

1998ko irailean, telefonoz deitu zidan beren alabak, Arratek.

–Osaba, Arrate naiz, Plaentxikoa. Aitak eta Joanito sozioak ogeita bost urte egiten dituzte aurten lanean elkarrekin sozio. Eta datorren jaixan, zillar eztaixak ospatu bear ditugu bi familixak. Eta mesede baten billa nator zuregana.

–Aal balezaket, pozik egingo dizut, illoba.

–Sorpresa bat eman nai dixeu bazkari ondoren: iru-lau bertso kantatu. Mesedez, osaba, orixe: bertso batzuk idaztea nai nuke.

–Jesus, neska. Ori besterik ez bada!

Lau bertso auek eman nizkion, egur apain batean idatzita.

Egur puska ura an omen dute lantokiko orman zintzilik jarria.

1. Ojalatero onak zirala
ta jarri ziran sozio.
Txanpon batzuek egin dituzte
negozioz negozio.
Ala diote: pasa dutela
amaika amorrazio,
maillu ta zintzel, soplete, llabe,
tubo, roska, gimnasio...
Ala ere, mutil bapoak daude
Joanito ta Iñazio.

2. Ainbeste urte kaiñu-zulotan
badira gero urtiak!
Danetik pasa dituzte auek:
legorrak eta bustiak.
Ta zer ikara teillatuaren
izkiñetan ikustiak!
Baiña tontoak diranik ere
ez dira nere ustiak.
Poltsikoetan omen dauzkate
erriko atso guztiak.

3. Ez omen dira azkar joaten
deitzen zaieten etxera.
Anka-sartzeak ere bai, berriz,
normala oi dan antzera:
ur otzarena berora sartu,
beroarena otzera.
Gero elkarren aitzaki bota:
nor joan zan ura lotzera?
Au gutxi balitz, doña Txikita
an dijoa kobratzera.

4. Ogei eta bost urte batuta,
ori esaten da errez.
Olan da ere, bikote ori
ez dago itxura txarrez.
Leenago nion bezela, naiz ta
sarritan ibili trabes,
lantegiaren santu txikia,
entzun zaidazu mesedez:
komunetako san dioskadak
barka izkiezu, San Andres.

Zarautzen, 1998ko iraillean

Dantza

Dantzan egiten dutenei begira egotea ere atsegiña da. Eta neri ere gustatzen zait, e! Ez pentsa ezetz.

1998an, Euskal Telebistan izan ziran lotuko dantzaldi batzuei begira egon nintzan ni ere. Bi dantza mota zituzten dantzatu bearrekoak; ni begira nintzan garaian, beintzat: *la salsa* eta *txatxatxa*.

Gu gazteak giñanean, zerbait aritzen giñan dantza askatuan, soiñu txikiaren agindutara. Gero dantza lotuan ibiltzeko baimena eman zutenean, ura ere zerbait ikasi egin bear, ba! Badakizu zer kategori zan ura? Baltseoa, alegia. Elkarri elduta dantzan. Iñork ikusita ere! Garai artan arrigarria bait zan. Dana dala, ikasi-lardastu genuen ibiltzeko lain. Eta boladaz geu aiñakorik zanik ere!

A, Jaungoikoa! Guk egiten genuenarekin alderatu orain egiten dituzten dantzakerak? Alde ederra zegok begira egoteko ere. Ondo ornitutako musika, dantza-*lekuko* pista leuna eta brilloduna, argi distiratsuak, otz-bero egokituak, jendea sarrera ordainduta ikusten jarleku ederretan, dantza-jantziak edo erdi jantziak ere ortarakoxeak. Alajainkoa! Geuk ere zerbait egingo genian, orrela jarri ezkerok!

Baiña bai. Gaur egun, ikasketa-mailla aundiak daude eta dotore prestatzen dira. Jakiña, gorputzak ere bearrezko kiloekin bakarrik. Bestela, a zer anka-otsak, oraintxe elduta, oraintxe eskutik elduta tiraka, oraintxe bat lurrean bestea tente, oraintxe bananduta, oraintxe ipurdia bistan... Beno, au leen ere izaten zan. Ni txantxa batzuk tartekatuz ari naiz au idazten, baiña orrelako dantzak egitea ez da txantxa, lan txalogarria eta aundia baizik.

Asieran aitatu dedan dantza-leiaketa aietan, nik ez dakit nor zan irabaztun edo nor galtzaille. Baiña alako arte-erakusketa ikusi nuenean, bertso-sorta bat jartzeko burutapena izan nuen. Eta egin. Onako auek dira.

Aupa, morena

Doiñua: *Ezkondu eta ezkongai*

1. Telebistako leioan,
dantza lotuko saioan,
gaiñera norgeiagoan.
Neri ez ezik makiña bati
gustatuko zitzaioan.
Ainbat dantzari iaio an,
baiña bati oraingoan
begia bota nioan.
2. Begiz jo nuen neskatxa
ez zan dantzari eskasa;
bestalde, a zer bigantxa!
Ezurrik ere ez ote zeukan
artua nion nik antza.
Dantzatzeakoak bi dantza:
leendabiziko *la salsa*
ta bigarrena *txatxatxa*.
3. Ikustera joan giñunan.
Naiz ta zegoen illun an,
begira egon niñunan.
Txibotak baiño azkarragoko
birak ematen itunan.
Lagun mutil beltz bat: Guzman.
Biok ere pisu luman.
Ura nun billatu unan?

4. Moĩnoz lotuta mototsa,
tente lepo ta kokotsa,
gimnasi sexi arrotza.
Argi mugikor gorri-urdiñak,
alboan musika-otsa.
Ez intzan sentitzen lotsa,
gona bera ere airosa...
Ura den ipurdi-motza!

5. Ta gu iri begiraka,
jarlekuak triki-traka,
zenbait gainera indarka.
Mutil beltz arek eldualdiak
eman zizkiñan binaka.
Aupa, morena, bi anka
airean ditun biraka,
bultzaka eta tiraka.

6. Txatxatxarekin baoia,
jo beea eta jo goia.
Eldu beltzari, Idoia.
Pista ezin ta dotoreago,
jendez beteta saloia.
Txapeldun, txapeldun oia...;
ori ez den arrazoia.
I eta ire sasoia.

7. Ez abillen izerdiz blai,
bai irripartsu ta alai,
edonorri keĩnu, ja-jai!
Iri begirik kendu gabe an
ez zekiñat zenbat galai.
“Ai, nerea balitza, ai!”
Makiña batek andregai
artuko indukete, bai.

8. Ik ez daukan mitxeliñik,
alperrikako zeziñik,
ezta ere mugi eziñik.
Soin polit ori edukiko den
molde batean egiñik.
Begieri atsegiñik
emateko krabeliñik
bai ote ire berdiñik?
9. Puntuaketa nola zan?
Ura ezin niñan jasan.
Iñor ez unan eskas an.
Erromantiko samarra aiz ta
jarraitu bear den dantzan.
Baiña au gogoan ar zan:
ajola ez baldin bazan,
mutil zuri bat billa zan.
10. Jaia nola amaitu dan,
emen uzten gaitun dudan:
ea Hollywood-a au dan.
I dantzatzera oan tokian,
ikuslego gaitun gu an.
Naiz neguan ta naiz udan,
pasa albistea gugan
urrengo saioa nun dan.

Zarautzen, 1998ko urrian

Garai bateko astoak

Gogoan ditut, bai, garai bateko astoak. Gu muti-koak giñanean, baserri bakoitzean bazan astoa. Eta batzuetan, bi ere bai.

Zer zan astoen lana? Atsedena ez beste dana. Bai arraioa! Goizean artuko zuen norbaitek, negua bazan arbitarako edo erremolatxetarako, edo errotara alea eramateko, eta abarretarako. Baiña iñork ez zion gosaririk emango.

Ez orixe! Berak arrapatutako lasto edo belar ondu litsak izango zituen janari. Eta noiz edo noiz mutikoren bati saskitik galdutako arto-bururen bat ozkadatzen bazuen, “Joiño! Ona!”, mutur-zuloei *flu-flu-flu* eta belarriei *bla-bla*.

Negualdea orrela pasa izan oi zuen astoak; zein eta kalerako esne-karretoa ez baldin bazan, beintzat. Baserri batzuetan, ez bait zan esnerik jeisten kalera. Beste batzuetan, bai. Orduan, atera kontuak zenbat egin bear izango zuen.

Orain, goazen udarara. Egunero esnetara kalera joan beariko zuen emakumeren batekin. Andik zeto-rrenerako, zai edukiko zuen mutillen bat, otarrak kendu eta kartolak jantzi, nagusiz aldatu eta... aurrera, Patxi. Udaran ez zuen goserik pasako; berdea nunai bai bait zegoen.

Etxe bakoitzeko ganadu-jatekoak astoz ekarri oi ziran; toki kaxkar asko ebaten bait zan segaz orduan. Bearbada, saillik ederrenak garaman edo otadi izango ziran; eta, jakiña, pendiz eta malkar guztiak, belardi. Eta azken toki auetara astoa eraman bear.



Zarauzko Olaa baserriko Pako, bere astoa eta txakur txikiarekin.

Argazkia: Aitor Zendoia

Egunik geienak orrela pasako zituen, aruntz eta onuntz. Baiña ongi zamatuta. Askotan ikusi genuen astoa zamarekin zetorrela, lau anka-mutur eta burua bakarrik agerian zituela.

Idiz eta gurdiz ere garraiatzen zan leku on batzue-tatik. Baiña idien lana bestelakoa izaten zan: soro-lanak; gorriketak, alegia. *Gorriketak* deitzen genien soroko lur-mugitzeari. Orrez gain, mendiko belar-ekartze, garo-ote eta simaur-ateratze eta abar idien lana zan. Baiña beste gaiñontzeko garraio xee denak astoaren lanak izaten ziran.

1. Eskuetan det lapitza,
papereratzeko itza,
azaldu nairik garai bateko
astoen bizitza.
Abere orren langintza:
garraiojeta bortitza.
Ta utsa, bera naikoa janda
ibili balitza.
2. Belarriz da luze antza,
berezia du arrantza,
begi-tristea, buru-makurra,
illea lakatza.
Bizkor antzean maiatza,
neguan naiko balantza
ta garagarra irabaztea
oi da bere dantza.
3. Naiz berak pasa gosea,
ingurukoa ase,
ondraduetan ondradua ta
arrokeriz xeea.
Sarritan egun luzea,
arratsa tente pasea,
iñoiz oporrik artu gabeko
abere klasea.
4. Goizean goizik iintzetan,
naiz euritan, naiz aizetan,
garraiolari aillunbre, pagotx
edo almitzetan.
Zamaren menpe pitsetan,
baldin baleki izketan,
gizajo arek zerbait esango
luke bi itzetan.

5. Sare bat zast muturrean,
egin ez dezan larrean,
besteentzako zekarren beti
bere bizkarrean.
Arre! emen ta *arre!* an,
askotan bide txarrean...
Astoen lana ezin da neurtu
mantso-azkarrean.
6. Ukuillu aberatsean
sartu ta begiratzean,
ganadu denak aurreko maillan,
astoa atzean.
Bei-txekorrek bazkatzean,
andik zerbait sobratzean,
jaki-ondarrak astoarentzat
etxe bakoitzean.
7. Gose-urteetan larri
ziran kale ta baserri.
Eskerrak garai bateko zenbait
errota zaarri.
Astoaren lana sarri
zapla! zakua ta *arri!*,
arto-gariak eraman eta
irina ekarri.
8. Umeren bat gaixo zala,
mugitu bearko dala,
astoa janzten norbait asiko
zan bai bereala.
Saskiak eta oiala,
aurra epel dijoala,
medikuaren ate ondora
abere leiala.

9. Pauso motx eta ziurrez,
naiz pasa bidezidorrez,
arek ez zizun aurrik botako,
ez joan beldurrez.
Umezalea da berez,
berdin umea aberez.
Goibel atera baziran ere,
etxeratu parrez.
10. Egon oi giñan begira
leiotik bide erdira:
artzaia ere astoarekin
zijoan mendira.
Ardiz ornitua jira,
dunbak *tulun-tulun* dira...
Adiskidea, atzo goizeko
kontuak ez dira.
11. Otordu merke ta bastoz,
ondakiñez eta lastoz,
argatik egon oi zan igarra
ta ez bizkar bapoz.
“Ai, astotxo, atoz, atoz,
lanak ugaritzen datoz...”
Fraileen arrautz-biltzea ere
egiten zan astoz.
12. Kartola, pasta ta saski,
ualez lotu gain-azpi.
Asto-trasteak oriek ziran
edo euren janzki.
Leen genituen aski
ta orain ez daude zazpi.
Abera umil au babestea
ez legoke gaizki.

*Zarautzen, 1998ko azaroan
Lazkao Txiki sarian, 1. saria*

Usoa

Usoa egazti ederra, ugaria eta azkarra da. Joaten zeran lekura joaten zerala, usoekin aurkituko zera. Gure kaleetan ere bada usorik; guztiz estimatuak, gaiñera. Edonork ogi-apurren batzuk lurrera botatzen baditu, mordo bat berealaxe inguratuko zaio, naiz eta zenbait lekutan uso geiegiren arazoak sortzen diran, euren ziriñengatik. Nunbait egin bear, ba, koitadu oiek.

Udazkenean, gure lurretan izan oi da uso-pasea. Neguaren iesika duten urteroko egoaldian, emendik eta beste leku askotatik dijoaz, egoekin *fi-fi-fi* txistu joaz. Eiztariak ernai egoten dira garai orretan. Usoak bota nai, ba! Kazuelarako ere ederra bait da usoa. Ori ere gizonok degun afizioetako bat da. Txarra edo ona? Alderdi biak izan ditezke. Bizitzaren legea orre-la da: batzuk bizitzeko, beste batzuk iltzea.

Zer gertatzen da zezenketarekin? Berdintsua. Beraz, alperrik jartzea da oitura oien aurka edo alde. Gogo onez edo gogo txarrez, onartu bearra dago.

Usoei buruz idazten ari naizen onetan, gure etxean gertatutako pasadizo bat jarri nai det. Eta egia da.

1998ko udazkena. Mutiko batzuek, etxekoa tartetan zala, zauritutako uso urdin bat ekarri zidaten, lurrean aurkitu zutela-eta. Bazekiten ni usozalea naizela. Ego bat zeukan pixka bat perdigoï edo tiroak jota.

Mutikoen galdera:

–Sendatuko al da?

–Ez zekiat, ba. Eta sendatzen bada, zer egingo zio-agu?

-Berriro bidali.

-Oño! Ori oso ondo zegok. Bejondaizuela! Zoazte jolasera eta laga au nere kontu.

Ego-mutur ori txuxen-txuxen lotu nion bi zotz eta paper pegakor batekin, eta auzoko aitona baten oillategian laga genuen.

Uso ederra jartzen berealaxe asi zan. Kurkurrak ere arro jotzen zituen. Nere artean: "Ba! Seguru aiz".

Ega-salto txikiak geroz eta ugariago eta geroz eta aundiagoak egiten zituen. Amabost bat egunera, kendu genizkion zotzak. Eta orrela illabete eta erdi-edo pasa zituen. Oilloekin konpontxo bereala egin zan ura.

Egun batean, deitu nien mutiko oiei eta:

-Goazen usoa ikustera.

-A, bai! Sendatu al da?

-Orain ikusiko dezue. Begira.

-Aibala! Zer ederra!

-Eta egoa goian dauka.

-Zer? Bidaliko al degu?

-Bai, bai -denak batera esan zuten.

Orrelaxe, kontu aundiz artuta, auzoko aitonaren baratzetik bidali genuen. Leenengo aurkitu zuen zuaitzaren adar batean geratu zan, denera begira. Mutikoen txaloak jaso zituen. Nik, berriz, begiak busti nituen.

Ondorengo bertso-sorta au jarri nion uso eder ari, "Uso txuria" doinuan. Eta Santa Marina auzoko 1999ko bertsopaper-sariketan, leenengo saria eman zitzaion bertso-sorta oni Zarautzen. Kanta itzazue.

1. Zauritutako usoa,
ume batzuek jaso,
lumaz ere ez osoa,
egoetan eraso.
Lurrean zeunden leen ziñena
alaia ta airosoa.
Babesa eta goxoa
bearko dezu, gaixoa.
2. Bazindoazten airean,
tiro egin zuten been
ta zeu gertatu parean
zaparradaren sarean.
Beste lagunak aurrera ta zuk
ezin jarraitu taldean...
Errori ustekabean
mendiaren bestaldean.
3. Gizonak egin du tiro
ospa naian aundikiro.
Naiz ta goian ega-giro,
lurrean zaude geldiro.
Beldurti zera, erortze ura
gogoan dezun aldiro.
Artu dezagun astiro.
Joan zintezke berriro.
4. Burualdea ondo da.
Ea goazen egora.
Bat autsita egongo da.
Lotu egin bearke da,
aalik azkarren osatu eta
joan zaitezen or gora,
betiko aire leengora,
iparrera ta egora.

5. Etxola onen atean,
sartuta egon pakean.
Ura katillu batean,
arto-aleak bestean.
Usoa, lasai zaude ementxe
ongi osatu artean,
txori auekin batean,
ta pozik orrenbestean.
6. Sarritan zatoz atera,
ote zintezkeen atera.
Pare bat illabetera
izango dezu aukera.
Ariketa bat egin ondoren
bi egoen arabera,
ongi moldatzen bazera,
nola agurtuko gera?
7. Nai degu zu osatzea
ta egaka gozatzea.
Baita ere geratzea,
gurekin bat bizitzea.
Beraz, bi nairen erdian gaude.
Au ere bada trantzea!
Obe erabakitzea
baratzean askatzea.
8. Asi zera bai bizkortzen,
dotoretzen ta edertzen,
luma politik irtetzen
ta gizonari ulertzen.
Eguneroko ikustaldia
ez dizugu ez baztertzen.
Irudiz nauzu asetzen.
Begira ez naiz aspertzen.

9. Iritsi zaigu eguna
 banandu bear deguna.
 Famili bat euskalduna
 da zu osatu zaituna.
 Aize garbiak orraztu beza
 daukazun luma leuna.
 Agur, usotxo kuttuna,
 guretzat nai zintuguna.
10. Goi urdiñak garbi dira,
 eguzki argi-distira,
 ego-aize epel pilpira...
 Bazoaz zeru azpira.
 Baiña zergatik zuaitz orretan
 geratu guri begira?
 Joan zaitetz urrutira,
 lagunak dauden tokira.
11. Zoazte goitik aal dala,
 ez beeratu leen bezala.
 Ipar-egoen egala
 usoak jantzi dezala.
 Iñoiz edo bein ikusten badet
 uso pilla dijoala,
 esango det bereala
 bat zu izango zerala.
12. Aurkitu ziñuzten eri
 eskerrak ume aieri.
 Orain pozetan igeri
 eragin ego oieri.
 "Gizon guztiak ez dira txarrak"
 esan zeure laguneri.
 Ta, eiztariok, zueri:
 ez tirorik usoeri.

*Zarautzen, 1999ko maiatzean
 Santa Marina sarian (Zarautzen), 1999an, 1. saria*

Ujolak naramate

Au amets bat izan zan. Eta gero neroni saiatu naiz Aegia balitz bezela biurtzera edo idaztera. A zer-nolakoa, egitan bezela artzeko!

Ba, ori. Ametsa zan espetxe batean nengoela, erritik oso urruti, gaur zoritxarrez gertatzen dan bezela.

Espetxea oso zaarra zan: guztiz leengoetakoa. Ez zan aundia; oso txikia bai: zaindari gutxi bearrekoa. Bagenekien elkarren lagunak baginala barruan bat baiño geiago. Inoiz ez genuen elkar ikusten. Bisitaririk ez zan onartzen. Ormatsua eta leio-txikia. Teillaren orde, burnia goian. Banakako irteerak. Ibai ondoa eta zuaitz aundien tartean. Orrela zan irudia.

Ametsa aurrera dijoa askatasun billa. Ara zer gertatzen dan. Goizalde batean, urak, ur zikiñak, sartzen asi ziran nunaitik. Geroz geiago. Oiuak eta garrasiak entzuten ziran. Gela urez betetzen. Leio eta atea uraren zamak arrankatu ditu. Illun beltza. Ur-korronteak banarama norabait, nora ez dakidala, jo bazter bat eta jo bestea. Estuasun artan esnatzen naiz leer eginda.

Ori zan ametsa. Arratsean egindako ametsa goizean erakartzen zailla omen da. Orrelako estuasunak pasa ezker, gogoan izaten da.

Gerora jarri nintzan amets orri buruan birak ematen. Eta: "Oño! Zenbaitek nobela bat idatziko likek, amets au egia bezela artuta".

Baiña ni ez naiz doai oietara iristen, eta ondoren datozen bertso auek jarri nituen.

1. Bizitza bizi: nere ametsa
ori zan dena; ez naiz traketsa.
Lo nengoela bi poliziak
lotuta eraman, pentsa!
Espetx orma det saietsa,
naiz ta gaizkille txepetxa;
ta ni bezela jendetza.
Baiña gertatzen ari zaidana
zer da: zuri ala beltza?
Ujolde batzuk dirala eta
urak darama espetxa.
2. Gela otz artan zazpi bat urte
baneramatzan, jakin zazute.
Sasoi onena neri ta beste
askori urtu digute.
Bat-batean zer ezuste:
urak arrapatu naute,
ez da ez leio, ez ate...
Loi-itxurako ur indartsuak,
baiña nundikan zatozte?
Leenago urrun nengoen eta
nora naramakizute?
3. Orma lizunak orra suntsitu,
ez ditezela berriz zutitu.
Gizonarentzat zeuden ixturak
ujolak ireki ditu.
Zirrikiztuz zirrikiztu,
narama il edo piztu,
ta ez dakit nori deitu...
Alper-alperrik egiten ditut
ainbat garrasi ta txistu:
bazterren bati eldu nai diot,
baiña ezin naiz gelditu.

4. Ujolak gabaz zer indar duten
probatu gabe zail da jakiten.
Adar guztiei kolpeka noa:
eltzen diet baiña eten.
Urak ari nau billuzten,
zauritu eta itsusten,
ez nau bazterrean uzten...
Presondegiko adiskideez
ala ere ez naiz aazten.
Egun-argia asi da baiña
ez det lagunik ikusten.

5. Erioaren bidai bortitza,
alde egin nai ezik zabilta;
ordu ta erdi inguru edo
biok burrukan gabiltza.
“Ara or gertu zugaitza.
Urreratuko banintza!
Bai, bai, zutaz nai det mintza...
Bi besoekin lotuko zaitut,
zutikan zauden aritza.
Urak nakarki espetx batetik,
salba zaidazu bizitza”.

6. “Zer zor dizudan, aritz liraiña,
zu bai sendoa, zu bai bikaiña!
Zuri eskuak josita nago
ujoldeko etorkiña.
Naiz billuzik dedan soiña,
amaituko da eziña,
zu nere aingeru zaiña...”.
Itxaropena badet emendik
ongi irteteko aiña;
ez dakit nola, ez dakit nundik,
ezta ere noizko baiña.

7. Askatzen banaiz emendik, ara!,
idatziko det familiara
ola ta ola zer gertatu dan
ta jasan dedan ikara.
“Atera naiz bizitara,
ez etorri bixitara,
zuen betiko zitara.
Ujolde batek kaleratu nau,
ez naiz joan auzitara.
Berealaxe itzuliko naiz
nere leengo bizitzara”.
8. Preso izena da nere zama,
erru ariñez daramadana,
baiña eskuak garbi ditut nik,
au da argi daukadana.
Ama, laster da zugana
seme urrun zenduana.
Emango degun laztana!
Une maitakor bat izango da,
iñoiz aaztuko ez dana.
Or laga nuen oe txuria
prest eduki zazu, ama.

*Zarautzen, 1999ko maiatzean
On Manuel Lekuona sarian, 1999an, 3. saria*

Madrilgo pelukeroa

Nik ere moztu nuen illea Madrillen. Baiña moztu, Ne? Kalabaza bezela, alajaiña! Ura bazan piura laga nindutena!

Ditxosozko “luna de miel” edo ezkonbidaia deitzen zaion ori zan. Orduan Madrilla joaten zana ez bait zan edozein. Eta Madrilla, alajainkosa! Ez dakit zertara. Neri ez zitzaidan bapoa iruditu. Aundia, bai; eta arriskutsua ere... Ni, beintzat, pixka bat bildurtu nintzan bein andre gaztea arrapatuko ote zidaten.

Arratsalde batean, bagaude parke edo zuaizti bateko jarraulki oietako batean kontu kontari itzalean, eta zerbeza baten billa-edo joan nintzan inguruko taberna batera. Ni edariekin nentorrenerako, andrearengana joan eta, alajainkoa!, traje belztun bi txima-luze. Alu zikiñak! Aiek zaindu ninduten, ba, ni, e! Ni nere buru motzarekin azaldu nintzanean, errespetu ederrean izkutatu ziran norabait. Ikara artzekoa ez al da ori?

Andrea pasa-pasa eginda zegoen.

-Zer esan dizute?

-Zera! “Hola, preciosa” eta asi zaizkit. “¿Estás sola? Te haremos compañía”. Eta zu ere ez zera berea-la etorri.

Pixka bat lasaitzearren, zerbait esan bear eta:

-Lasai, andretxo. Pozik egon zintezke, olako estimazioarekin.

-Pasa dedan ikara! Goazen emendik beste norabait.

-Bai. Auek ez dira bromako kontuak; zera, txo!

Baiña jarrai dezadan nere ille-mozteko kontuekin.



Gure seme-alabak, beren lagunekin eta seme-alabekin.

Atzean: Mikel, David Igonerekin, Aitor Nerearekin eta
Belen Grazianorekin.

Aurrean: Edgar eta Adriana, Irantzu eta Jokin.

Argazkia: Pilar Eizagirre

Ezkontza-eguneko elizako bira eta argazkiak eta oriek guztiak pasa arte ille puxka bat eduki bear zala, orraztu-eta egiteko, alegia. Orrela, ba, Madrillen goiz batean asi nintzan pelukeri billa. Bi edo iru kale pasata *Corte Inglés* aldera gerturatu nintzanean, an sartu nintzan aurrena aurkitu nuen pelukerian.

Ango “bienvenido” eta ango “caballero” deitu bearra. Ango “señor” otsa, noski. Lotsatu ere... An nengoen lana nola egiten zuten begira. Anketako atzazalak ere mozten zituzten. Eta pintatu ere bai. Eskuetaoak zer esanik ez.

Alako batean, pelege bat etorri zitzaidan eta:

–Pase, usted, caballero.

Eta an asi zan bereak egiten, eskuak garbitu eta atzazalei kolpeka. Gero, zein modelotan moztea nai nuen. Eta amar bat argazki erakutsi zizkidan. Zertarako? Gero egin zidana egiteko?

Bereala tankera eman nion. “Ez diagu gauza onik”. Garai batean, ate ondora etortzen ziran ijitoak mozten zituzten astoak koska gutxiagorekin.

Nik nai bezain azkar ez nuen irten pelukeri artatik. Jakiña, gero bertsoak jarri bear. Gai egokia. Ondorengo auek dira: irrigarri samarrak.

Doiñua: Bizkaiko txerriarena

1. Kaixo, jaunak, berriro berandu baino leen.
Pelukero-kontuak dakarzkid gaur emen.
Eztai-bidaietara joanda nenbillen.
Nere buruan zurda aundia zebillen.
Argatik moztu nuen illea Madrillen.

2. Hotel txiki batean
gosaldu leenengo.
Banoa pelukeri
baten billa-edo.
Corte Inglés-ean ez
ote da egongo?
Bai, ta gaiñera artu
naute oso ondo.
“Buenos dias, señor” ta
“póngase cómodo”.

3. Jarrarazi ninduten
ta berealaxe
badatorkit igar bat:
bigotedun Jose,
gaizki plantxatutako
bata luze-luze,
zorrozgaillu, labana,
makina, guraize,
eskubil, kolonia,
jaboi ta orraze.

4. Palankana batean
orrenbeste traste
ikusi dedanikan
ere ez det uste.
Ia ebakuntza bat
egiteko beste.
An asten zait galdezka:
“¿Cómo quiere usted?”
Modeloa bereizten
zenbat buruauste!

5. Leendabizi eskuak
garbitu zizkidan,
atzazalak moztu ta
txukundu segidan.
Lepo-zapi txuri bat
ere lotu zidan.
Sakristau bat bezela
an zebillen jiran...
Pazientziak galtzen
ari zitzaizkidan.
6. Aspertzen asia nauk,
aizak, kaxkanbelo.
Berak ere bazuen
naiko errezelo.
Atzazalak laga ta
"corta, corta pelo".
Mugi adi, bestela
or artuko dek lo.
Baiña jarraitzen zuen
leen bezain lelo.
7. Rebistak *La Codorniz*,
Lecturas ta *Hola*.
Jarri zuen musika
jotzeko gramola:
"olé, olé, Manolo,
hola, hola, Lola".
Ango kraskabel-otsa,
ango amapola!
Zirudien Sevilla
aldeko tonbola.

8. Orrelaxe zeraman
ordu bat pasea.
Neretzat bazijoan
naikoa luzea.
Kriski-kraska nolana
pasa orraza,
aurrea frekillotu,
borobil atzea...
Ura zan Txirritaren
tankera artzea.
9. Titulua zeukala
eta pelukero.
Zergatik ez ote zan
sartu albaiteko?
Nere buruaz ia
egin zuen zero.
Alakoren batean
amaitzen dit gero.
Zapia *rast* kendu ta
"listo, caballero".
10. Zutitu nintzanean,
a zer kaskamotza!
Denak neuri begira,
pasa nuen lotsa!
Irureun bat pezeta
bear ziran osa.
Garai aietarako
bazan naiko sosa.
Eskupekoa, berriz,
nere "kauen-sosa".

11. Berriro hotelera,
ura buru gaiña!
Illetik ez nekarren
eramana aiña.
Andre gaztea zai-zai,
polit ta liraiña.
Eldu nintzan orduko,
“baiña eta baiña”.
Ia dibortziatu
giñan alajaiña.

12. Aiek San Isidroak
maiatzeko illez
jarri nindutelako
buru borobillez.
Bizkarra ta kolkoa
biak bete illez.
Bota nituen latzak
aope isillez.
Ara zer oroitzapen
ditudan Madrillez.

*Zarautzen, 1999ko apirillean
On Manuel Lekuona sarian, 2000n, 3. saria*



Arrebaren ezkontza-egunekoa.
Beetan: aita eta amaren erdian,
Maite eta Joan Manuel ezkonberriak.
Goian: Dionisio, Felix, Nikolas, Joxe, Mari Karmen,
Eteban eta Aurelio.

Argazkia: Mora

Oea

Gizakiarentzat aoa beteko itza da oea. Munduan, gizakirik geienak oean jaio eta oean ilko dira. Aundiago, txikiago, zabalago, estuago, egituradun edo zuzena, baiña azken batean oe bat da atsedenleku. Sexu edo maitasun-arreman geienak ere oean izango dira.

Bestalde, irudiz era askotakoa izaten da oea: bur-nizkoa, arrizkoa, zurezkoa, plastikozkoa, lastozkoa... Gaur egun, ainbeste material mota dago oeak egiteko! Beste gauzetarako bezelaxe. Baiña beti koltxoi edo bigungarriz eta estalkiz egokitua. Egokitze oiek ere apaingarri aundiz janzten dituzte gaur; nai aiña aukera bait dago. Ala ere, apaingarriz osatua izatea ez da derrigorrezkoa. Oea izatea da bearrezkoa, gaueroko loa botatzeko. Nekea berak kentzen dizu. Gaixotu ezkerro, sendagairik onenetakoa bera degu.

Zein bearrezkoa degun eta zein garrantzi gutxi ematen diogun! Izan dezagula oean luzaro atsedentzeko aukera.

Doiñua: *Lagundurikan danoi*

1. Bizitza ontan gabiltz
jo goia, jo beea.
Sarritan ez dakigu
zer degun ohea.
Baiña atsedenleku
bat bada, ordea,
gizakia gau ta egun
beregán gordea:
izena iru izkiz
daraman oea.

2. Era askotakoa
izan leike berez:
egiña arriz, burniz
edo-eta zurez;
jantzia zapi, mantaz,
koltxoi, soumierrez.
Azken batean oe
bat beste ezer ez.
Etzanleku ohea
sortzen ez da errez.

3. Oean osatzen da
askotan akatsa.
Badirudi goxatu
digula mikatza.
Berekin elkartzeko
or degu arratsa.
Sarritan badu onek
mirarien antza:
nekatuta etzan ta
berri-berri altza.

4. Goizean oso samur
ez degu laga oi.
Naiz ta jartzen gaituen
noranairako gai,
eskerrik eman gabe
uzten degu lasai.
Illuntzean an dago
berriro gure zai,
goizago ta berandu
bagatoz ere bai.

5. Beraren bearrean
gera milla aldiz,
izan ere badegu
al dakit zenbait gaitz.
Batzuek parrandaren
ondorenez dabiltz
ta beste asko berriz
erdi gaixo gabiltz.
Nun osatu gintezke
oerik ez balitz?

6. Loguretzean oi da
zabaldu aoa
eta edonork dio:
“ni oera noa”.
Biotza lasai-lasai,
arnasaren joa,
esnatzean luzatu
beso ta zangoa,
oea dan lekuan
izan bait da loa.

7. Bai emakume eta
bai gizonezkoak
daduzkagun arreman
maitasunezkoak
geienetan oean
burututakoak.
Antxe moldatzen gera
gizen ta flakoak.
Ametsa eta loa
dira lekukoak.

8. Oeari ari naiz
buru eta biotz,
baiña diodan dena
gera liteke motz.
Premizkoa degula
denok gaude ados.
Nun dago bertan ainbat
jaiotza, eriotz?
Leen berak berotuak
gelditzen gera otz.
9. Gizakiak oea
du bigarren ama.
Beartuta joaten
gera beregana.
Merezi ainbat inoiz
eskertzen ez dana.
Jaso ondoren batek
laga dion zama,
beste gizaldiaren
zai geratzen dana.
10. Oeak gizonari
ez dio egin uts.
Alderantziz, baretu
ta jarri soseguz,
argitu bizitzaren
zenbait bidegurutz.
Ni beintzat pozik nago
beraren inguruz.
Zein gutxi idatzi dan
oeari buruz!

Zarautzen, 1999ko maiatzean

Usurbilgo kanpandorrea

Usurbillen ezagun asko det. Eta lagun dexente ere bai, zorionez.

Urtero izaten dute Usurbillen bertsopaper-leiaketak. Baiña erritarrentzat bakarrik, jakiña. Eta polita da oitura ori. Erri geienetan egin bear litzateke ori, zaletasuna ugaritu dedin. Usurbilgo oitura jatorra da benetan. Udaletxeak orrialde mordoxka bat kalera-tzen du urtero, eta an jartzen du gaia eta araudi guztia, aal duenak aal duen neurrian bertsoak jartzeko. Santa Isabel festetan egiten dute sari-banaketa.

1999an, arotz-lan batzuk egiten aritu nintzan Usurbil aldean. Eta lagunekin elkartzean kontua atera eta:

-Zer? Aurten zer gai dezue bertsopaperetarako?

-A, bai. Ederra, motel. Auxe diagu: "Elizako kanpandorreko kamara izkutu bat zera. Nola ikusten dezu Usurbilgo erria?"

-Bai. Ederra benetan. Joko aundia eman lezakeena.

-Zer? Inbidia ematen al dik?

-Bai, mutillak. Alaxe ematen zidak, ba.

-I ez aiz, ba, usurbildarra, eta ez daukak bidaltzerik.

-Ez. Bidali ez, baiña sorta bat jartzea libre izango nikek, noski.

-A, bai. Bakoitzaren gogoia libre dek.

Orrelaxe, astia nuen batean, neure erara bertso-sorta au idatzi nuen. Ez dakit bertako gorabeerekin asmatuko nuen, baiña.

Sorta neure gustokoa atera zitzaidan, eta emen
dijoaz. Barka dezaidatela usurbildarrak.

Doiñua: *Mutil koxkor bat itsuaurreko*

1. Nik ez dakit noiz eta nork jarri
ninduen kanpandorrean,
baiña ziur naiz au dakiena
norbait badala or been.
Ez naiz espia, naiz ta irudi
pilla ditudan gordean.
Ikuspegia ederra daukat
airean eta lurrean.
Pelikula bat filmatzeko ere
ez nago leku txarrean.
2. Uso mordo bat inguratzen zait
aldamenera tarteka.
Sarri bakarrik banago ere,
orduana zer beteka.
Enara igar oriek berriz
uda aldean taldeka.
Oraintxe dala bizpairu urte
zikoiña zuri pareja...
Kabirik nolaz ez zuten egin
orixe nago galdezka.
3. Naiz izkutuko kamara naizen,
ez det nai iñor aztora.
Zuen Usurbil polit ontara
begira nago gustora.
Erri euskaldun onen lurruna
dijoa Andatzen gora.
Itsasoaren atari ez da,
baiña beraren auzo da...
Bizilekua atsegiña ta
Donostia bi pausora.

4. Jendearteko jokabideak
eman ditzadan bistara.
Fede geiegi ez det ikusten
gaztedi orietara.
Azkenaldian zaarrak bakarrik
dijoazte elizara.
Bateko ogei baiño geiago
sagardotegietara.
Oitura ona da ori baiña
joan leike bietara.

5. Politikaren beroa ere
daukazue itsatsirik.
Manifestaldi geiegi dabil,
zapi bat letraz jantzirik.
Bearrezkoa liteke baiña
kaleak ez du grazirik.
Txori politak ies dijoaz,
au orrela ikusirik.
Zikoiñak ere orretxengatik
ez zuten egin kabirik.

6. Baiña erriak izan bear du
bere erraien sugarra.
Ta Usurbillek beti berekin
dauka berezko indarra.
Ageri dana filmatzea da
nere ekintza bakarra.
Ez diot ezer kentzen ta jartzen,
lekuko da dorre zaarra.
Gaurko irudi auek ikusten
gozatu dedin biarra.

7. Irudiena esan dizuet,
asi gaitezen aztertzen.
Dorre onetan nagoenetik
begira ez naiz aspertzen.
Leengo Usurbil, argazki ura
ez det inolaz baztertzen.
Baiña gaur egun ez zaigu leengo
neurri berean agertzen.
Aspaldi ontan gogor ari da
aunditzen eta edertzen.
8. Gau eta egun ernai nago ni
gertatzen danaren urbil.
Olako akats txiki bat-edo
nere barrenera dut bil.
Bertsolaritza dadukazue
naiko motel, naiko zurbil.
Auxe ez zazu beintzat baztertu,
ene neska, ene mutil:
bertsolaririk ez baldin badu
Usurbil ez da Usurbil.
9. Oitura batzuk badituzue
euskaldun peto-petoak.
Irudirikan atsegiñenak
Sagardo egunekoak:
aitonek ere aazten dituzte
bide elizarakoak,
sagardotegi biurtzen dira
erri ontako txokoak...
Maizago jarri bear lirazke
egun orren antzekoak.

10. Bertso onekin jarri nai diot
filmeari amaiera.
Nabaritu da erri zaar onek
bizi duela euskera.
Usurbil bakar-bakarra da-ta,
zaindu ezazue bera.
Betoz usoak, betoz enarak,
betoz zikoiñak dorrera...
Santa Isabelak ongi pasa ta,
usurbildarrok, aurrera!

Zarautzen, 1999ko uztailean

Arratsik ederrena itsasoari begira

Badira arratsak oeratzea ere pena ematen dutenak. Eta orrelakoetan ez da joan bear, gaiñera, paseotxo bat eman gabe. Batez ere, udazkeneko ego-aize epel oietakoa danean.

Illargi borobillak, argi eta garbi dagoenean, kanpoan ibiltzera gonbidatzen zaitu. Ego-aize goxo geldia zuaitzetatik orriak askatzen ari da, mantso-mantso lurrera miñik eman gabe jeitsi nai balitu bezela. Jendea etxeetako leioetatik eta balkoietatik begira dago. Itsasoa isil-isilla, urik gabe balego bezela. Olatu leunak elkarri xaplaka, uraren brillu disdiratsua garbitu berria balego bezela. Zeru-sapaitik izar guztiak keiñuka ari zaizkizula dirudi. Ontza bera ere, etxe inguruetaraiño urreratuta, or ari da eupaka, gauaren ederra adierazi nairik. Jaun-andreak, au dena batera lortzen duen arratsa ez al da aberatsa?

Gizonak aurrerapen mota arrigarriak sortu ditu. Eta sortuko ditu. Baiña orrelako gauak lortu duenik ez du lortuko.

1999ko urrian nik ere izan nuen era orrelako gaua dastatzeko, ni ere gonbidatu bait ninduen kanpoan ibiltzeko, *tapa-tapa* itsasaldetik portura eta abar. Jarraulki batean eseri eta itsasoari begira noiz etxeratu ez nekiela. Ari esaten diot nik gaua bizitzea. Auskalo zenbat portutako farolen bristadak ikusten ziran.

Ainbeste aundiko ur-putzua, ain paketsua, izan zitekeenik ere sinistek lan du. Nik eskeiñi nion esker ona an du.

Bertso-sorta au geientsuena gau artan asmatua da.

1. Urriko arrats epel
aizetsu batean,
illargia zalarik
borobil betean,
eskuan txapela ta
makilla bestean,
itsalsaldetik bira
bat afalostean,
pozikan egiña det
joan zan astein.
2. Arraldea zegoen
erabat isilla,
entzuteko moduan
mendiko kirkillilla.
Bazter denei laztanka
ego-aize pilpilla.
Zeru-sapai azpian
ura izar pillilla!
Nora joan atsegin
geiagoren billa?
3. Ez da ez arrantzale,
ez ontzi, ez sare.
Ur-azalean arrai
txikiak dotore.
Olatu leunekin
itsasoa bare.
Illargi aundi ura
goian parez pare...
Zein argazki ederra
berriz esanda ere!



Antonio Zavala *Honoris causa* doktorea egindako egunekoa.
Ezkerretik eskubira: Joxe Mari Lertxundi, Txomin Garmendia,
Antonio Zavala, Joxe Lizaso eta ni.

4. Bizitzen nagoenak
lilluratzen nauka.
Odei izpirik gabe,
au da arrats puska!
Begien ikusmena
ia ezin buka!
Urrutiko portuen
farolak keiñuka.
Gaur itsasoan danak
galtzerik ez dauka.

5. Biar sortaldetikan,
dator gori-gori
itsasoa urdin ta
eguzkia ori.
Ego-aizeak lagun
daizute biori.
Pasako da amaika
uso eta txori,
orren garbi bazaude,
itsas zabal ori.

6. Munduko ur-putzua,
zein pakeosoa
dezun gaur arratsean
inguru osoa.
Ez zait damutu zugar
begiak jaso,
premiazko zaitugun
betiko auzoa,
lurraren anai bizki
zeran itsasoa.

7. Makiña bati entzun
izandu diot nik:
“itsaso zakar orrek
ez du barkamenik”.
Baiña berez mugikor
degula jakiñik,
beste ezer ote da,
ain aundi izanik,
beti toki berean
errenditzen danik?

8. Iñoiz ikusi dedan
arrats politena,
argien, epelen ta
itsaso onena
gaurkoa da neretzat,
eta noiz urrena?
Au zan afaldondoan
amesten nuena.
Orain lotara noa.
Agur, agur, dena.

Zarautzen, 1999ko urrian

Oilloa eltzean

Zenbaitek esango du nik nere etxeko gertaerak sarri idazten ditudala. Baiña barka ezazue. Au ere derrigor jarri bearrekoa det, errekontxo!

Eguerdi batean, garaiz etxeratu nintzan, beintzat, lanetik. Norabait joan bearra-edo izango nuen. Etxera sartzearekin bat oartu nintzan emaztea marmarrean ari zala. Marmarrean aritzearekin ez nintzan arritu. Ori geiagotan ere... Baiña aruntz eta onuntz eta ola, bere buruarekin aserre bezela pixkor samar zebillen.

-Jesus, emakumea. Motorra bezela zabilta.

Esan banion, esan nion!

-Bai. Zu ere asi orain, e, orduz baiño leen etorrita, neri amorrazten. Oñooo!

"Beste era batera aprobatu bearko diat: poliki-poliki".

-Zer pasatzen da, potxola?

-Zera: egosi ezin dan oillo alu bat daukat eltzean eta ez dakit gaur bazkaritarako zer jarri bearko dedan. Eta zuk ere ez daukazu salda artzerik.

-Ja, ja! Ori al da dena? Eltzean daukazun oilloari errietan ari al zera?

-Ez zera! Errezatu egingo diot!

-Uufa! Gaurtik aurrera erruki det neure burua.

-Zer, ba?

-Zera: eltzean dagoen oilloari errieta egiten dionak besteren bati ere egingo diola.

-Ara. Joan zaitetz, e, joan bear dezun lekura. Eta etorri zaitetz gauerako; ordurako egosiko aal da-eta.

Tamaiña onetako aitzaki txiki oiek zein politak eta irrigarriak diran!

Nere oitura da orrelako zenbait gertakizun bitxiei bertsoak jartzea. Eta onako koplak aukeratu nituen.

Doiñua: *Oillo loka bost txitakin*

1. Eguerdiarte batean
etxera garaiz eltzean,
emaztea marmarrean
an zebillen su ertzean.
“Zer gertatzen da, potxola”,
kontuz-kontuz galdetzean,
“egosi ezin dan oillo
alu bat daukat eltzean”.
2. “Geienez bada zerbait
oraingoan ori al da?
Gaurko amaiketakoan
ere ezin artu salda.
Oilloa bere garaian
egosiko baldin bada,
goizean goizexego
oetik jeiki bear da”.
3. “Zu ere asi zaitez, bai,
txorakeriak esaten.
Ez pentsatu oso zailla
nagoenik amorrarzten.
Gutxienez iru ordu
badaramazki egosten.
Agian uts egin nuen
erkin samarra erosten”.

4. “*Egosten eta erosten,*
orra bigarren falloa.
Presaka natorrenean,
beti olako txolloa.
Plazan jardungo ziñaten
mar-mar-mar atso pilloa.
Ta gero saldu dizute
egosten ez dan oilloa”.

5. “*Osagarria ugari*
ere jarri diot baiña:
perejil, azenario,
tipula, porru liraiña,
lukainka, urdaiazpiko
ta txerri-manteka fiña.
Ala ere ez da egosten.
Au da au oillo txoliña!”

6. “*Suaren berotasunak*
ez badu bigunarazi,
auskalo nun ibilia
izango dan sasiz sasi.
Gatzik bota gabe ere
izango da naiko gazi.
Ta pozik egon zintezke
ez bada joaten iesi”.

Zarautzen, 2000ko urtarrilean

Aurra bularrean

Aurra amaren bularrean. Zer esaldi bikaiña! Zer Aikuskitun unkigarria! Zer argazki ederra! Eta gutxi esango nuen.

Geienok ortik pasatakoak izango gera, noski; aundi eginda gero ere, “ama, ama” degu-ta. Baiña nik nere buruari galdera au egin izan diot: “Amak guri digun maitasun-neurria, guk amarengan degunarekin berdintzen ote degu?”. Galdera oni ziurtasunez erantzun gabe joan bearke degu bizileku onetatik.

Nere iritiz, gizaki bakoitzak gogora aal izango bagenu amaren bularrean giñan garaia, amarenganako maitasun errukigarriagoa izango genuke. Tamalez, au ere eziñezkoa, ordea.

Amaren izatea ikusgarria eta arrigarria eta aundia da benetan. Asi aurdunalditik, erditzea... Erraz esaten deguna. Ikuitzea ere kontuz egin bearreko aingeru txiki negar egiten bakarrik dakien ura bere eskuz goxatu, epeldu, bere bularrez ase, aurraren ingurua giro egokian zaindu, bere jantzi-erantziak, garbiketa errukitsuak... Kementsu azi dedin aalegin oiek guztiak.

Eskola-garaira ere ekarri du umea, azi du eta bere buruaren jabe dala dirudi. Eta berak derizkion erara badijoa mundura. Egingo ditu lagunak, normala dan bezela. Amaren isilleko galderak:

–Ez al didazu kaso geiago egin bear? Orain ez al naiz, ba, ama?

Bizitzak egindako legeak, bizidunok ez ditugu aldatuko.



Gure lau billobak.

Ezkerrean Adriana eta eskubian Edgar, anai-arrebak, alaba Belenenak. Erdian, Aitor semearenak: Irantzu eta Jokin txikia, Dik zakurraren gaiñean.

Argazkia: Nikolas Zendoia

1. Ama izate auxe zan nere
gogoa ta adorea.
Naiz ta gogorra dan erditzea,
baiña badu oorea.
Min aazkorra izan da dena,
zorionaren sarea.
Ene umetxo, zu zera orain
gure maitasun-lorea.
2. Sei illabete gaur dituzu ta
zaude seaska txokoan.
Jolas egiten aspertu zera,
naiz jostailluak kakoan.
Aitzakitako maiñatxoetan
artzeagatik lepoan.
Txikiek ere aundiek ainbat
dakite onelakoan.
3. Zatoz, ederra, amarengana,
urtuko zera bestela.
Prest jarri ditut jaboi-lurrinak,
oialak ta ur epela.
Baiña ori da ori usaia!
Egiña zaude pardela.
Alan da ere laztantzen zaitut
garbi bazeunde bezela.
4. Txukundu bear degu leenengo
ipurdi txiki zikiña.
Beti bezela zure amatxok
jantziko zaitu apaiña.
Oial txuritan laxo ta guzti,
illezko jertse urdiña.
Lazkao Txikik zion bezela:
aingeru baten berdiña.

5. Titi-tragoa prest daukat eta
koka zaitez magalera,
maitasunezko bi iturritxo
auetatik edatera.
Bata agortzen zaizunerako
jarriko zaitut bestera.
Azitzen eta edertzen zoaz
egunetik egunera.

6. Ainbeste kontu daukat nik zuri
bertsotan esatekoa!
Gure etxeko izarra zera
ta magala betekoa.
Aurak geienak dira ederrak,
zu ederrenetakoa,
aita ta ama egin gaituzun
aingeru bularrekoa.

7. Zure aitaren laztan ugari
leen banituen sikira!
Aietxek ere lautik irutan
orain zure aurpegira.
Ulertzen det, bai, izan ere gu
irurok bat gera, tira.
Eta gainera ez dit ajola,
zuretzat baldin badira.

8. Txantxangorriak kabian bezain
zabalduak ta argiak
dira, umea, neri begira
dauzkazun zure begiak.
Zein irripartsu, zein negartiak,
zein borobil, zein garbiak!
Munduko gauza politenaren
inbidirikan gabiak.

9. Zin dagizut gaur, ene umetxo,
ez zaitudala galduko.
Aberastasun guztiengatik
ez zinduzteket salduko.
Katua ere aulki gainera
igota degu lekuko.
Daramakigun solasaldia
ez digu inork kenduko.
10. Nere bular bi ustuz dituzu
txuka-txuka, xalo-xalo.
Gero amaren masailletara
jo dezuz txalo-pin-txalo.
Baiña berriro zure begiak
ixten dijoaz, potxolo.
Bertso geiago izango ziran,
ez bazenidan artu lo.

Benidorm-en, 2000ko otsaillean

Bost duroko txapela

Bai, lagunok, bai. Badet nik bost duroko txapela. Polita, gainera, letra oriekin. Leengoan, armarioan ikusi eta irakurri nizkion letrak. Orain ere leengoak dauzka: "Gipuzkoako bertsolari-txapelketa. Azpeitia. 1967".

Au leen ere kontatu nuen: gaztetan bertsoan irabazitako txapel txiki bat badedala. Baiña zerbait laga nuen esan gabe. Eta oraintxe idatzi nai nuke, zuen baimenik baldin banu. Ez da nere bertsoaritzza aita-tzearren. Ezta gutxiagorik ere. Barkatu.

Ba, ori: bertso-saio ura kantatzeko, sarrera bost duro ordaindu bear izan nuela. Neri gertatzeko, ez da arrigarria ori.

Garai artan, Azpeitian bizi nintzan, lantokia an nuelako. Ogeita lau urte, sasoi ederra... Ordurako moldatzen nintzan dexente bertsoan. Aotsa ere orain baiño leunagoa eta, logelako ispilluaren aurrean jarrita ea zer moduzko planta nuen eta, kantatzeko zer itxuratan jarrita, badakizue: gaztetako ilusioak.

Guk, izan ere, ez bait genuen ezer ikusi. Eta, norberak atera bear bere inbentuak, artetsu agertu nai bazan. Eta ori ere ez pentsa broma danik.

Dana dala, beintzat, albistea zabaldu zan Euskaltzaindiak bertsolari-txapelketa antolatu zuela eta kanporaketa-saio bat Azpeitian zala. "Aibala!". Ura poza. Ez dakit anekin lurrik jotzen ote nuen ere.

Onako errialde auek ziran kanporaketa artarako: Zarautza, Getaria, Zumaia, Aizarnazabal, Zestoa, Errezil, Azkoitia eta Azpeitia.

Eguna iritsi zanean, bildu giñan amabi partaide, amabi gazte, Soreasu antzokian. Berandu samar iritsi nintzan ni. Ordurako, beste denak barruan zeuden.

Takillan zine-sarrerak eta kobratzen egoten zana kastillano txiki bat zan, eta egun artan ere bera zegoen. Naiko gizon atsegiña zan. Ongi ikusia zegoen errian. Familiako aita bat zan.

Ura ere txapela beltz aundi antzekoarekin ibiltzen zan. Bazuen alako euskaldun-itxura pixka bat. Adar-jotzea ere gogokoa zuen. Gu ere tarteka zinera joaten giñan eta, sarrera-txartel billa takillara urbiltzen giñanean, berriketarako gogoarekin egoten zan:

–Hoy no se apagan las luces. Hoy no podéis dar muxus.

Eta olakoak.

Ba, kontatzeko modukoa zan.

Oño! San Pedroren abarkak! Au dek roillua sartu dedana takilleroa dala eta ez dala. Barka.

Ala, barrura sarreran bere ondotik pasa bear eta, takillara gerturatu eta esan nion:

–Alfredo, voy a cantar, ¿eh? Soy bertsolari.

–Sí, sí. Hoy todos son bertsolaris. Por lo menos una docena de ellos me han dicho lo mismo que tú.

–Pues, sí. Somos doce los que vamos a cantar.

–Ven aquí, chaval. Y suelta cinco duros, como todos los demás. Y después haz lo que quieras. Si quieres, cantas. Y si te aplauden, mejor todavía.

Kauela puñeta! Oraindik ere amorrua sortzen zait gogoratzean nola laga nuen bost duroko paper polit ura takillan. Plantxatuta neukan gero ura, karteran txukun asko jarrita! Ez nituen beste iru edukiko.

Orrela lortu nuen barrura sartzeko baimena.

1. Milla bederatzireun
irurogei eta
zazpigarren urteko
bertso-txapelketa,
Gipuzkoaren maillan
zan kanporaketa.
Nik ere bertan artu
nai nuen parte-ta,
naiz ta bost duro kostata
tiket-ordainketa.

2. Gipuzkoan dagoen
Azpeiti errian,
Soreasu deritzan
antzoki zaarrian,
amabi gazte giñan
bertso-egarrian,
irurogei bat lagun
entzuten aurrian,
igande goiz batean
ta udaberrian.

3. Dena Euskaltzaindiak
zuzendu zuala,
Alfonso Irigoien
gai-emale zala.
Epaimaikoa ere
ez zan ez makala:
Bordari ta Arrue,
Txapel ta Zavala.
Zerbait idazteko zai
zerbait entzun aala.

4. Sarrera bost duro zan
entzuleentzako
edo aruntz zijoan
edonorentzako,
baita ere berandu
zeturrenantzako.
Neu ia azkena ta
berdin neretzako.
Ongi egin zidaten
eskarmentatzeko.
5. Kastillano txiki bat
takillako juez,
ango ardua zeukan
egunez ta gauez.
Ezagutzen genuen,
baiña berak gu ez.
“Voy a cantar los bertsos,
Alfredo Agoües”.
“Tú paga la entrada
y canta después”.
6. Bost duroko papera,
bere kolorea
plantxatuta neraman
ta more-morea.
Berarekin bat laga
nuen umorea,
esnatu bearrean
sartu logurea.
“Orain egin zak bertso-
-saio dotorea”.

7. Leenaz gain kirioak
ziran korapilla.
An nijoa barrura
baiña ez trankilla,
bost durokoa laga
eta seiren billa.
Antxe aurkitu nuen
nere lagun pilla.
Arkume bat jateko
a zer koadrilla!
8. Iritsi zan ordua
bertsotan asteko.
Zenbakiak zakutik
bakoitzak artzeko.
Lasaitasuna lortu
nuen kantatzeko.
Lilibe eta biok
elkarren antzeko,
aurreratuak azken
txanpa jokatzeko.
9. Kartzelako gaia zan
Zestoako ura
ta San Ignazioren
bizitza kantura.
Erabili nituen
aal nuen modura.
Gero bai pozik jaso
nuela burura
bost duro kostatako
txapel polit ura.

10. Milla ta irureun
pezta amaieran,
lagunen zorionak
gaiñera aukeran.
Takilleroa ere
antxe eskailleran,
“enhorabuena” esan
zidan irteeran,
kendu zizkidalako
bost duro sarreran.
11. Argazkilaria ere
Foto Kaito, an.
Or datorkit lasterka
ia-ia itoan.
“Póngase sonriente”,
artista-tipoan,
aterako nintzala
periodikoan
ta nik sinistu neure
tontolapikoan.
12. Ordubiak aldera
naiko beranduan,
gose puska bat ere
nonbait bagenduan
eta ura jan gabe
ezin zan kendu an.
Amabiko koadrilla
umore senduan
Patxonean bazkalduz
amaitu genduan.

Benidorm-en, 2000ko otsaillean

Garai bateko baserrietako errosarioa

Ni baserritarra izanik, askotan gogoratzen ditut Ngure txiki-denboran ziran bizitzeko oitura aiek. Baserrietakoak, batez ere.

Negualdean, gu mutikoak lan jakiñak izaten genituen, eskola eta beste lanez kanpo: gaztaiñak aletu lakatzetik, goizean; beren saski berezian txukun-txukun jarri, txarrak kenduta; atariko labearen gaineko teillatu txikira jaso, gauean aitonak danboliñean erretzeko leorrak egon zitezen; eguerdian, aaztu gabe, eskuz naastu edo mugituaudi bat eman... Gero, bazkari garaian, amak-edo galdetuko zuen:

-Aizue, gaztaiñak mugitu al dituzue?

-Bai -erantzungo genuen, azkar, bi edo iru anaiak batera.

Aitonak, parre-irri txikia: "Gaur ere ez dizkitek mugitu".

Arratsaldean, eskolatik ateratakoan-edo, mais-trak "segi orain lanera" esandakoan, gaztaiñak erretzeko zotzak eta egurrak danbolin ondora gerturatu. Bestela, ez zegoen txorizo-muturrik ogi tartean.

Gero, illunabar edo gauean, zorioneko errosarioa, ba. Aita eta osaba-eta, menditik etortzean, sukalde erdian eseriko ziran, aulki baten biran, sutan erretako sardiña zaarrak jateko sagardoa edanaz. Gero, ukuilluko lanak denon artean.

Amona garaiz asiko zan esaten:

-Leenbaileen egin lanak, e? Atzo bezela ez degu berandu errezatu bear errosarioa eta.

Andik ordu erdira-edo, deadarka:

-Zer, ba al zatozte edo?

An asiko ziran banan-banan sukaldera agertzen. Geienok biltzen giñanean, amonak, "Gurutze santua-
ren", "Jesukristo, nere Jauna", denak serio ukabilla-
rekin bularra joaz, ekingo zion egunari zegozkion
misterioekin, *mír-mír-mír*, zenbat abemari ainbat san-
tamari, "Gloria Patri et Filio" eta, ala, beste miste-
rioa... Batzuek oiñetakoak aldatzen, beste batzuk ao-
-zabalka, bi edo iru mutiko lo... Zenbat gau santu
orrela!

Baiña amonak ere bere eginkizunak izaten zituen
eta, noizbeinka gertatu izan zitzaion errosario er-
dian:

-Egon pixkat, aizue. Biarko babarrunen billa noa
ganbarillera. Denon artean aletuko ditugu.

An zeak lakaria artuta.

-Naiago nitek pixka batean ez balitz etorriko
-batek.

Besteak:

-Zertan ari zan aaztuko balitzaiol!

Aitona bere lanean, *tarran* eta *tarran*.

Badator berriro.

-Zenbatgarren misterioan ari giñan?

-Iru esanda joan zera. Laugarrena esateko lain
denbora pasa dezu... Orain, bosgarrena tokatzen
zaizu.

-A, bai? Ola al zerate? Orrelako errezoak ez dute
balio bat ere. Berriro asi gaitezen. "Gurutze santua-
ren..."

Orduan ere amonek asko zekiten. Babarrunak
aletu arazteko sistema!

Urrengo aldian, ukuilluan ganaduren bat askatu
zala eta, gizonezkoak ukuillura. Orduan, amona be-
ra isiltzen zan... Zer ez zan gertatzen!

Gero, kirieleisonak: “Kirie, eleison. Kriste, eleison”... Leen denok bagenekien latiñez, naiz eta orain iñork jakin ez. “Ora pro nobis” erantzuten denok, beeko ezpaiña nekatu arte.

Alakoren batean amaitzen zan, eta berriro jendea txapelak janzten. Ni lo ederra franko egiña naiz ditxosozko errosario-denbora aietan.

Eta gaztaiñak jaten asterako, afaritarako alegia, berriz errezatu bear izaten zan, e? Eta afalondoan ere bai. Maaiko errezoak: nik ez dakit zer “Pater noster” eta olakoak. Ori aitonak egiten zuen beti: etxeko zaarrenak.

Edonork pentsa lezake: “Arraioa! Errosarioa dala eta ez dala, au dek rolloa sartu diguna!”. Barkatu, bai. Baiña gertaera xeble auetan gezur txikienik ere ez dago.

Noizko kontuak idazten ari naiz? Pentsa: ni ere aitona aspaldi eginda nago-eta.

Gure ama zaarrak orain ere galdetzen dit tarteka:

–Zer? Bat ere errezatzen al dek, Mikolax?

–Ez, ama. Leen errezatu arazi zenidan bizi guztirako. Eta orain bat ere ez.

–Au dek marka, au! Ia larogeita amar urterekin ere zuentzako errezatzen jardun bearko diat.

Doiñua: Neska zaar bat tentatzen

1. Oroitzapenek tenta ninduten leenguan:
gure txiki-denboran,
gaiñera neguan,
asita azaroan
edo abenduan,
zenbat errosario
esaten genduan.

2. Gauetan ama talo
orea prestatzen,
amona errietan
edo errezatzen,
txapelak erantzi ta
beste denak antxen,
eta aitona berriz
gaztaiñak erretzen.

3. “Gurutze santuaren”
eta “Jesukristo
nere Jauna” esanda,
ekiteko listo.
Zenbat zintzo-aurpegi!
Mutikoak gaizto!
“Ik ere zozo-tranpa
laga zak, txikito”.

4. Zenbat abemari ta
zenbat santamari
entzun izan genion
batak besteari!
“Gloria Patri, Fili”,
dale latiñari;
“erruki zaitez gutaz”
Ama Birjiñari.

5. Esne-pertzak gaiñezka,
su-gaiña *zarzarran*,
aitonak *ji-ji-ji* ta
danboliñak *tarran*.
“Parrez ari ote da?”
amona marmarran.
Gero misterioak
baziran amar an.

6. Ondoren letaniak
zetozen segidan.
Ukuilluan zarata
batzuk entzun ziran.
“Joxetxo, begira zak
ganaduen jiran
errezatzen edo zer
kristo ari diran”.
7. Mutikoa lasterka
sukalderatzen da:
“aita, aita, txekorra
katea etenda
saltoka dabil bere
lekutik irtenda;
gaiñera bei beltxari
igotzen asten da”.
8. Badijoazte denak.
An ziran angoak!
Morroiak bazituen
birao bapoak:
“mekauen di-da” eta
ortik gorakoak...
Errezo aiek ere
ziran modakoak.
9. Lotu zuten txekorra.
Zer nolako bromak!
Berriro sukaldera
serio gizonak.
Ezer pasa ez balitz
bezela itz onak.
Amonak prestu zeuzkan
kirieleisonak.

10. “Kiriele-kristeleison”
amona Luisak,
barra-barra zetozen
orapronobisak.
Dirudi sukaldeak
zirala elizak.
Ez zuten errezatzen
guk ainbat apaizak.
11. Gau artan luzea zan
bigarren partea:
letanien ondoren
berriro astea;
“Abe, Maria” eta
“graziaz betea”
berriz ez dezan eten
txekorrak katea.
12. Kredo ta salbea
amaierarako,
danboliña isildu
oi zan ordurako;
beste paternoster bat
afaritarako,
taloak ta gaztaiñak
jaten asterako.
13. Ez giñan ez aspertzen
gaztain erre jatez,
baiña bai beti kontu
berdiñak esatez.
Atzo errezatuak
gera gaurko partez.
Leenago geiegi ta
orain berriz batez.

Zarautz, 2000ko ekainean. (El Diario Vasco: 2000.09.09)

Lazkao Txiki sarian, 2000n, 1. saria

Nork bota ote digu lizar gaztea?

Ni baserriko seme izanik, gure inguruetakozuaitz mota geienak ezagutzen ditut, noski. Baita maitatu eta mirestu ere. Eta orietako bat lizarra da. Nola ez, ba?

Gu txikiak giñanean, baserri bakoitzaren jiran, bi edo iru lizar arbola baziran. Orduan zaarrak ziranak, kenduak izango dira. Eta orduan gazteak ziranak, gaur dexente zaartuak, ni bezela.

Denok dakigu lizarra ez dala fruitu-arbola bat. Orretarako badira gure baserrietan gerezi, txermen, udare, muxarta, melokotoi eta abar.

Lizarra berez egur zuria eta gogorra izanik, baserriko erreminta-kirten guztiak lizar-egurrez eginda koak izaten dira. San Joan bezperan, etxe atariko atearen ertzean ere, lizar-adartxoa bere gurutzearkin jartzeko oitura zan.

Kardantxilloak ere bere kabia lizar arbolan egingo zuen; ez, arbola zikiña izan balitz.

Nik betidanik diot lizarrari alako begirune berezi bat. Eta orain, berriz, altzariak egiten ditugu lizar-egurrarekin. Ez, gaiñera, nolanaikoak. Gaur egun lizarrarekin egiten dan altzaria garestia da. Ederra, bai.

Nola ez nuen, ba, pena artuko, lizar gaztea etxe atarian ipurditik ebaki eta lurrean ikusi nuenean?



Emaztearen aita Joan Joxe eta ama Mari Kruz.

Argazkia: Amsia

1. Lizar gazte polit bat,
bide-gurutzean,
bagenuen etxetik
gertu antzean.
Landatutakoa ez,
baizik pendizean,
bere gisa sortua
orma-babesean,
bordaren atzean,
iturri ertzean...
Aurten maiatzean,
ostoz berdetzean,
norbaitek bota digu
bart arratsean.

2. Au da ez onartzea
lizarraren diña
edo edukitzea
buru ariña.
Damutu bear luke
okerra egiña:
beretzat onik ez ta
guretzako miña.
Ondoa ta zaiña
antxe daude baiña
falta aien gaiña
gordin ta liraiña...
Utsa, enbarazuan
egon baziña.

3. Amar-amabi urte
uste det direla
oregano tartean
erne ziñela.
Dotorez dotorea,
zimelez zimela,
beti zure ondolik
pasatzen giñela.
Gauaz lo gaudela,
bota zaituztela...
Ekintza txepela.
Baiña, dena dela,
biotzik ez duenak
badu gibela.

4. Lizarraren gerria
ogeita bost ontza,
zazpi bat metro luze,
ez oso motza.
Iñork ez degu entzun
motor-zerra otsa.
Erabiliak dauzka
aizkora ta trontza,
kirten eta ortza,
tresneri zorrotza,
Judasen morrontza,
urrutian lotsa...
Orain nun jarriko da
gauean ontza?

5. Kardantxilloak ere
badute gupida:
alboko intxaurrean
zeuden begira
iaz kabia egin
zuten alderdira;
oiek zuzen dabiltza
garaitik garaira.
Baiña zure jira
ikustean, di-da!,
aire joan dira
denak urrutira:
lizar gazteak zutik
dauden tokira.

6. Aizkoldu zintuenak
jokatu du lizun:
norabide guztiak
moztu zizkizun,
lizarra izatea
galerazi zizun.
Zeure itzala ere
desegin zitzaizun.
Bera bazan bi zun;
ongi neurtu nizun.
Zer geratzen zaizun?
Zuztar bat, lau asun.
Ea barkazioa
eskatzen dizun.

7. Zertarako galdetu
“gaizkillea nor da?”
Ondoa oroigarri
or izango da.
Bere jira asunez
dena jantziko da...
Errespetagarria
lizar aren ondra!
Lekutxo bat or da,
ordezkoa zor da.
Jarri bearko da,
berez ez dator-da.
Zai daude iturria
ta ardi-borda.

8. Antziñako euskaldun
gudari abillak
armak omen zituzten
lizar-makillak.
Geroztik sega, maillu,
aitzur-kirten pillak
lizarrez egin dira;
nunbait, austen zaillak.
Ta San Joan illak,
irudi umillak:
ate-leiatillak
jantzi ditu millak...
Lizar gazterikan ez
bota, mutillak.

*Zarautzen, 2001eko maiatzean
Joxe Legarreta sarian, 2002an, 2. saria*

Asierrek ezin dio itz egin aitonari

Etxe guztietan, aitona-amonek billobak asko maite dituzte. Beraiekin jolastu edo beraiek zirikatzea dute gogozko. Aitonak, beintzat, billoba zirikatu gabeko onik ez du izaten.

Baiña pozak eta penak irentsi bearrak ere gertatu izan dira. Askotan esan oi degu datorrena artu bearra daukagula. Adiñean aurrera joandakoei, edo joanda gaudenoi, billobek badirudi gaztetu aldia ematen digutela. Alderantziz, ordea, billoba bat pixka bat mantxoia edo atzera samar datorrela ikustean. Orduan, badirudi zaarrago sentitzen gerala. Orrelako batean, zenbat balio duen pazientzia artzeak, billobarenganako umorea ez galtzeak, berari kantatzeak, berak aitona kantari ikusteak!

Zoritzarrez, gure artean badira onelako gertaerak. Bijoakie nere naigabe-agurra, sentimen aundiz, beraien zama arintzeko balioko balu.

Doiñua: *Lagundurikan danoi*

1. Ume eder bat jaiot
zitzagun etxean.
Guztiok poztu giñan
bera agertzean.
Baiña urte ta erdi
edo pasatzean,
ezin ote digun itz
egin oartzean,
pozak kezka biurtu
dira biotzean.

2. Bere ama leialak
zerbait bazekien
aitari esan asmoz
aal dan egokien.
Ni aitona izanik,
ezer ez nekien.
Atsekabe astun au
arindu dadien,
atariko aulkian
eseri nadien.

3. Txapelaren azpira
dijoa eskua.
Buru txuriari atz;
ez nago prestua:
naigabe-erauntsiak
ezin baretua.
Baiña badet bertsoak
nori abestua,
lasaituko duena
aitona estua.

4. Masail gorri, borobil,
guri ta betea,
begi bizi-biziak,
kalparra tentea,
belaun-buru sendoak,
mutil dezentea,
etxeke jostaillua,
etxeke maitea,
ez det sinistuko zuk
ez itz egitea.

5. Zure kontutxoan zai
jarria nintzaizun,
nola deitzen zenidan
aditu nai nizun.
Parrea ta negarra
irteten zaizkizun
bakoitzean badakit
zein polit dituzun...
Ea, ea "aitona"
esaten didazun.
6. Amonaren utsunez
naiko bakardade
badegu etxean ta
poza zu zerade.
Gaur egun medikuntzan
mirariak daude.
Egingo zaitugu, bai,
itz politen jabe.
Ez det joan nai mundutik
zuri entzun gabe.
7. Itxaropen guztiak,
Asier, zuregan
aitona onengandik
dijoazte egan.
Irripar polit ori
zein atsegin dedan!
Zurekin jolastean
ume baten eran,
bigarren aurtzaroa
uste det ote dan.

8. Ez bedi joan zure
aotsa itsusten.
Medikuek eziñik
ez dute ikusten.
Gaur nola aurrerapen
aundiak dituzten,
ea izketarako
gai jartzen zaituzten
eta etxeko denok
lasaitzen gaituzten.
9. Beste kontu polit bat
dakarkit, gaiñera:
sendatzen zeranean,
biok joango gera
zaldi txikiak dauden
baserri batera...
Igoko zaitut txuri
beltz baten gaiñera.
Xalko-xalko ederki
ibiliko zera.
10. Badakit mutil aundi
aziko zerala;
diotenez, izketan
ere bereala...
Bertsoz beteta laga
nai dizut apala,
gero oroi zaitezen
irakurri aala
aitona burutxuri
bat bazenduala.

Zarautzen, 2001eko udaran

Iñudea izan nintzan

Garai batean, baziran iñudeak. Uste det izen ezberdiñez erabiltzen dala zenbait lekutan: iñudea, aiña...; dena bat izango da baiña.

Laga ditzadan bromak alde batera, iñudea izatea ez bait da batere samurra.

Besteren aurrari petxua ematen dion emakumea omen da iñudea edo aiña. Besteren aurrari petxua ematen dabillan emakumeak bere aurra ere izango du.

Orrek esan nai du bi aurrentzat ainbat esne badaukala, alajaiña! Ez da naikoa iñudea izan nai izatea bakarrik, e? Or, gauza geiago ere bear dira.

Bazuten, bai, adorea emakume aiek. Besteren aurra maitatzen jakiteko biderik egokiena ez al zaizue bera iruditzen?

Doiñua: *Aralar bidean*

1. Birramona bat nazute,
larogeita zortzi urte,
zama ederra badute!
Ondorengo babesa badet,
maitasunez zaintzen naute.
Azalez ximur, baina umorez
oraindik ere ainbeste.
Leengo garaiak datoz gogora;
neureak, besteak beste.
Bertso batzutan azaltzen ditut,
entzun nai badituzute.



"Iñudea izan nintzan" bertsopaperaz irabazitako saria
jasotzerakoan, Orexako mandioan,
Manuel Lasarte bertsolariarekin.

Argazkia: Oartzungo Kontxi Oiarzabal

2. Leengo usadioa:
aurra bazan gaur jaioa,
biar bertan bataioa.
Derrigorrezko fedea zuen
sinismen-ondorioa.
Aingerutxoa artu ta oiñez
eliz bidean saioa.
Lau edo bost bat izan oi giñan,
ona edo txarra giroa.
Ta latiñezko liburuakin
gure zai bikarioa.
3. Mediku xaarra bai fiña,
naiz ta erdaldun izkiña!
Gure ulertu eziña!
Beraren billa joandakoan,
maite zuen asto-gaiña.
Poltsa ximur bat aspaldikoa,
brilluak alde egiña.
Zer zekarkien? Jaraberen bat,
goata ta aspirina,
kalenturaren neurkaria ta
pare bat penizilina.
4. Neuk banituen sei ume,
lau alaba ta bi seme,
denentzat naikoa esne.
Aiekin poztu oi nintzan baiña
banuen zenbait utsune:
senarra gerran iru urtean,
etxean bi emakume.
Urtean beingoz zetorreanean
aur bat artzen nuen barne.
Orduan ere bizitzen giñan,
nik ez dakit nola. Ene!

5. Naiz ta gorputzez ariña,
bular bikoia bikaiña
banuen bai alajaiña!
Besoan artzen nuenarentzat
xamur-xamurra iraiña.
Mediku jaunak zion: “petxua
daukazu beste bik aiña;
zuk nai badezu izan zintezke
iñudea edo aiña;
bearrak ere gertu daude ta
ausartu zaitez, Fermiña”.
6. Leendabiziko auzoan,
errukiaren lazoan,
borondate on osoan.
Bertako ama ondo ez edo
bularreko arazoan,
elkarri lagun egiteko prest
giñan pausoan-pausoan.
Alaxe asi eta jarraitu,
gaur emen eta atzo an.
Neureak aaztu gabe zenbat aur
goxatu nuen besoan!
7. Joaten nintzan bakoitzeko,
“Ai, Maria”, ta sartzeko,
aur txikiena artzeko,
zuminztun silla xapal-xapal bat
sutondoan esertzeko.
Zenbait etxetan aita urruti,
orretan giñan antzeko.
Aingerutxoak zer erru zuten
erdi gose geratzeko?
Agur jakiñak oi genituen:
berriz ere etortzeko.

8. Kale xaarrean bizkiak,
ta gaiñera ez txikiak,
Mariñaxik edukiak.
Azkar ustutzen zituzten aiek
beren amaren titiak.
Ondo etortzen zitzaizkieten
baita ere nere biak...
Gerrarekin bat amaitu ziran
iñudetza-ibiliak,
ta senarrak noiz etxeratuko
zai-zai geunden familiak.
9. Bular mear ta bulartsu,
bai esnedun ta bai antzu,
aberats eta beartsu.
Denetik giñan, denetik daude
eta izango dituzu.
Iñor ez gera guztiz aaldun,
ziurrak bezain kementsu.
Ni ere premiz nintzan garaian
laguntzak jaso nauzu.
Nere iñude izatea zan
auzolan bat bezelatsu.
10. Joan ziran bai garaiak,
estuak eta lasaiak,
ene arreba-anaiak.
Bi gurpilleko sillan nago gaur,
egun denak dauzkat jaiak,
baiña zenbat poz sorrarazten dit
dadukadan bizinaiak!
Kantatzen ditut bertso zaarrak,
baita ipuin alaiak.
Tristurarikan ez du merezi
ongi egiñen amaiak.



Gure aita eta ama:
Joxe Mari eta Joxepa Antoni.

Argazkia: Mora

11. Inñudetu nituenak
gogoan dauzkat geienak
baita ere euren izenak.
Gaur beraietaz gogoratzean,
auek pozak eta penak:
magal nerean kulunkatuak,
gero mundura irtenak,
nun ote dira, nor ote dira
nitaz aaztu zirenak?
Aukeraren bat izango banu
laztanduko nituzkeenak!
12. Joxe Migeltxo, Anttoni,
Martxel, Potxolo ta Boni,
Antton txiki, gaur Andoni...
Eta zer esan bizkietako
Joan Joxe eta Ximoni?
Aspaldi aiek gogoratuaz,
pozez egin det armoni.
Aal badezue bisitatxo bat
egin amona xaar oni,
leen nere zai zeuek ziñaten,
orain zuen zai nago ni.

*Zarautzen, 2001eko udaran
Orixe sarian, 2001ean, 1. saria*

Etxe-txiki eta enarak

Au nere lagun batzuei gertatu zitzaien, etxe txiki bat berritzen zebiltzala.

Esaera bada enarak leku berera urtero etorri oi dirala. Gertaera onek badu itxura. Bestela, etxea berritzen ari zirala ez zitzaien etorriko enara-bikoa etxe barrura. Leenengo bi eta gero geiago. Orrek esan nai du aurreko urtean ere euren kabiak an egin zituztela. Arrigarri samar egiten bazaigu ere, errespeta-garria beintzat txori ego-xabal oien sena.

Onelako pasadizo baten aurrean jartzen geranean, txoriak geiago maitatzeko gogoia sortzen zait neri.

Doiñua: *Loreak udan intza bezela*

1. Etxe-txiki zan erritik gertu
gu giñan auzo batean,
geriza, intxaur, udare eta
lizar batzuen tartean.
Erreka axial ur garbikoa
zijoakion aldean.
Leengo errota-arriak ere
berekin zeuzkan artean.
2. Aspalditxoan utsik zegoen
alako etxe polita,
atzealdeko orma-zati bat
ere ia erorita.
Iñork ardura artu ezaren
ondorio da ori-ta,
galdu bait ziran aitona Pedro
ta amona Manolita.

3. Egun batean eldu zan, orra!,
jabearen agindua.
Nun ikusten det tramankulu bat
bultzaka aalegindua.
Eroritxera zijoalako
geratu nintzan mindua.
Ipurdiz gora an bota zuten
etxetxo gutxi zaindua.

4. Utsune aundiz geratu giñan
ingurua ta erria.
Nola aaztuko ote genuen
Etxe-txiki baserria?
Berealaxe bazan, ordea,
poztu ginduen berria:
auzotarrekin-ta ordaindurik
egingo zala berria.

5. Ekin genion zutabeekin,
karaitz-arri eta masa.
Leengo itxuran egin nai baiña
ez zan, ez, oso erraza.
Baimenak ere orixe zion;
beraz, gurea zan baza.
Erramukoa lortu genuen,
naiz ta urtebete pasa.

6. Teillaturaiño iritsi arren,
ez geunden, ez, izutuak.
Argiñek ormak egin zituzten,
nik zura-jartze justuak:
ate-leioak, altzari eta
barneko lan izkutuak...
Arotzarentzat izaten dira
azkeneko ikutuak.

7. Goiz eguzkitsu batean neure
lanetan ari nintzala,
bi enaratxo etxe barrura
rast! eta sartu zirala,
gora ta beera joan ta etorri
aruntz-onuntz zebiltzala!
Nunbait kabia egin nai zuten
beste urteetan bezala.

8. Barrengo bazter denak miatzen
aien *txii* ta *txioak!*
Ea aurkitzen ote zituzten
leengo kapirioak
eta, nola ez?, kristal-zulotik
sartu oi ziran leioak.
Ondo gogoan zeuzkaten ango
sapai eta mandioak.

9. Utsegin gabe egunez egun
an zetozen adi-adi.
Ugaltzen ere asiak ziran;
ez det esango ugari:
leendabizitik bi eta gero
beste bi eta beste bi...
Dirudienez, Etxe-txiki zan
enaren kabien kabi.

10. Txoritxo aien berritzultzea
ez du ordaintzen urreak,
leku augatik laga ondoren
irietako dorreak.
Maite dituzte Etxe-txikiko
goizak ta illunarreak
bertan dabiltzan usoak eta
atariko txolarreak.

11. Nundik etorri ote zaizkigu
auskalo zenbat bidean?
Auek neguan egoten omen
dira Afrika aldean.
Itsaso dena zearkatua
izango dute airean.
Maparik gabe jeitsi ere bai
etxetxo onen parean.

12. Agurra diot amaitu berri
degun Etxe-txiki orri,
eta enarei nere mezua
naiko nieke igorri.
Udazkenean eroritzean
atarira zenbait orri,
orduan joan zaitezte baiña
udaberrian etorri.

Zarautzen, 2001eko udaran

Sara

Egun batean, ia irurogei urte eta, nik ere izan nuen, ba, burutapena neskatxa baten edertasunari bertsoak jartzeko!

Ez, Bilintzek eta Pedro Mari Otañok-eta jarri zituzten bezain dotore, baiña ni ere saiatu nintzan nere maillan; ez, bereganako griña agertuz. Soillik, bere edertasuna kantatuz.

Ori ez da pekatu izango; emazte Pilarrek ez zidan errietary egin beintzat eta. Bakarrik, auxe galdetu zidan: "zein da, ba, Sara ori?". Naiago nuke, neronek baneki; bat baiño geiago izango dira-ta.

Doiñua: *Markesaren alaba egokitua,*
lau lerro geiago erantsita.

1. Maiz amesten zaitudan
neskatxa gaztea,
atsegiña zait zutaz
izketan astea.
Ez nuke naiko zure
bizitza naastea,
baizik edertasun bat
kantuz esatea,
zugar irakurria
zeuri idaztea
ta bertso batzuetan
adieraztea.

2. Itzik egokienak
prest jarriak ditut.
Miñikan eman gabe
esan nai dizkizut.
Ontarako baimena
luza zaidazu zuk,
zugana asmo ona
besterik ez bait dut.
Ez zaudela neretzat
ta onartzen dizut.
Amets egiñaz soillik
maitatuko zaitut.

3. Zure distirak dio
argiari argi.
Guzti orren gaiñetik
zaudela nabari.
Izarraren keiñua
berriz illunari.
Norbaitentzat bazera
bizi ontan sari,
zuk egingo diozu
ederrez opari
noizbait zure ondoan
izango dan ari.

4. Erromeri batean
gazteak plazara.
Zu irten ziñanean
ta dantzatu, ara
zenbat begi joan zan
zure soin artara!



Emaztearekin.

Argazia: Aitor Zendoia

Soiñulari xume bat
tibiri-tabara.

Jaieraren eguna
ere Santa Klara.
Jende ugari baiña
zu bakarrik Sara.

5. Aots goxo orrekin
daukazu euskera
entzuten egon leike
goizetik gauera.
Zeiñen arduratsua,
zeiñen sentibera!
Begi distiratsuak
dituzu gainera.
Maitatzekoa zure
izateko era.
Emakume osoa
goitik eta beera.
6. Ez dezu erabiltzen
lujozko jantzirik,
zenbaiten pintura ta
zenbaiten pitxirik.
Zuk zeurezko ederra
daukazu bizirik.
Nik era askotara
zauzkat ikusirik:
bai kirolean ta bai
ondartzan bustirik.
Zuretzako ez dago
janzki itsusirik.

7. Noizbait ikusi zaitut
negar-malkoetan.
Zure duintasuna
ageri zan bertan
albokoak baretzen
une samiñetan.
Artuko zintuzkedan
pozik besoetan,
ederretan ederra
bait zeunden benetan
eta maitagarria
maitagarrietan.

8. Doaiez ornitua
zeralako guztiz,
kantaria ere bai
doiñu alai eztiz,
gogorarazten nauzu
ainbat egunsentiz,
txorien irteeraz
ta euren abestiz.
Ondoren ingurua
janzten da eguzkiz,
pake-txorrotxioak
zerurantz irentsiz.

9. Arrosaren arantza
au biotz erdian
ikutuka ari zait
joan dan aspaldian,
zurekin oroitzapen
bat eduki naian:

geiegi eskatzea
ez bada agian,
laztana eskeintzea
maitasun garbian,
lekurikan balego
zure aurpegian.

10. Amaitu zait orria
idazketarako,
naiz ta itzak soberan
neuzkan bertarako.
Barka, maitea, barka
ta eskerrik asko,
zure edertasuna
kanta dedalako.
Margotu nai zintudan
oroimenerako,
baiña ezin izan det,
ez dakidalako.

*Zarautzen, 2001eko udaran
Lazkao Txiki sarian, 2002an, 3. saria*

Guardia zibilla auto stopean

Guardia zibillak alto ematetik alto ematera bada-go alde ederra. Bi izan edo bat izan ere bai. Bein bitara ezkerro, berak nai duten aurpegia jartzen dute. Eta bakarra bada, aal duen modukoa. Ez pentsa ni guardia zibillak alto eman gabea naizenik, e? Ez orixe! Nik nai baiño geiagotan. Baita auto stop egiteko ere.

Gu gaztetxoak giñanean, binaka ikusten ziran guardia zibillak. “La pareja” esaten zuten berak. Baserriz baserri ibili oi ziran, bizkarretik kapa aundi bana, buruan beren betiko kapela beltzak, militar bota edo alako oiñetakoak. Firma edo siñadura jasozten ibiltzen ziran. Gerra ondoko urteak, noski. *Rauparaupa*, anka-ots aundia atereaz. Ori bai, e?: beti mantso, lasai. Amaiketakoa eskeiñi ezkerro, aurpegiak alaitzen zitzaizkien. Nola ez, ba? Aiek ere gizakiak izaki. Iñoiz eskatzen zuten siesta botatzeko lekua ere: sapaia edo lasto pillia; orrelako zerbait. Baiña aiek guk baiño siesta aundiagoa botatzen zuten.

Eguraldi beroa zan batean, etxe atariko intxaurra-
ren azpian eserita nola egon ziran gogoan det, kapak eta kapelak erantzita. Nunbait, izerdi-patsetan zetozen. Beren jantziekin gizon dexenteak ematen zuten. Baiña aiek erantzitakoan, naiko pelaje, naiko pelele. Ez pentsa lepo-zuztar aundiak azaltzen zitzaizkienik.

–Estas ropas las tiraríamos al río. ¡Pufff!

Orduan bazan gurean morroi kaxkar bat: Antton Txiki. Erderaz ere moldatzen zan. Eta an ari zan sega-pikan. Entzun zuen, nunbait, arropak erriora botako zituztela, eta ala erantzun zien Antton Txikik:

-Sí, pero si tiráis esa ropa, no tendréis jornal de Franco.

-¡Ya, ya!

Bolada batean, Nikolas izeneko bat ere etortzen zan. Sekula naikoa jan gabekoa ematen zuen. Ain zan igarra. Baiña ni zirikatu gabeko onik ez zuen izaten. Ni ere Nikolas, nunbait. Azkenerako, berarekin konfiantza ere artu nuen.

Beintzat, beingo batean, gure amak amaiketakoa eman zien: arrautza pareá egosita, botilla sagardoa-rekin. Eta joaterako, Nikolas ark esan zidan bera geiágo ez zala etorriko, beste erri batera destinatu zutela-eta. Alajaiña, paperezko duroa eman zidan. Eta amari: "Muchas gracias" eta "adiós".

Leenago biñaka ikusten oituak bageunden ere, eta mantso, gerora sei edo zazpi ikusten oitu giñan, eta presaka, Jeepatik ateratzen, txepetx-kumeak kabitik bezela. Eta ez esku-utsetan. Ezta siñadurak biltzera ere. Artu ezazu aiekin konfiantza!

Itzuli nadin asierara. Auto stopean zegoen guardia zibillarengana, alegia. Onezkero aspertu da-ta, nijoan-nijoan.

Oraintxe dala amabi bat urte, Leonera nindoala furgoneta bete altzarirekin, Leon aldera gerturatzean, urrutira ikusi nuen gizon berde bat besoa gora jasota, bide ertzean.

"Aiba, dio! Guardia zibilla dek. Orrek *alto* esan nai dik. Eta bakarra, nola?"

Geratu nintzan, ba, *rau* frenatuta. Ango goma-otsa eta angu *trinbi-tranba*, furgonetaren atzealde artan. Erdi lotan nindoan, nunbait. Ark ez zion matrikulari begiratu.

Saludua egin ondoren, barkatzeko orrela geldi arazia, eta ea kapitalera eramango al nuen, nola joanik ez zuela-eta.

-Sí, hombre, monta.

Gizon atsegiña zirudien izketan. Urte batzuk bazituen. Dotore jantzia, ark ez zeraman kapa eta kape-larik; uniforme kurioa, bere gradu-ezaugarriekin baizik. Leenago esan dedan Nikolasek baiño lepondo borobillagoa zeukan, bai, ark!

Emendik aurrerakoa nola izan zan ondorengo bertso auetan azaltzen da.

Doiñua: *Aita Jainkoak egin banindu*

1. Banindoala, banindoala
furgoneta zaar batean,
altzari eta olako trastez
barrua bete-betea...
Edozer gauza aurki daiteke
errepidera joatean.
Nor izango ta guardia zibil bat
zegoen auto stopean.
2. Itxaron lasai, azalduko det.
Ez parrez asi mesedez!
Dena egia dijoa emen
ta gezurrik bat ere ez.
Urrunetikan ikusi nuen
gizon bat jantzia berdez,
eskua ere gora jaso...
Geratu nintzan beldurrez.
3. Nora nindoan. Ta nik: Leona.
Ea zer neramakien.
Dinamitarik ez neramala
arek ondo bazekien.
Kapitalera zijoala-ta,
jarri aal zitekeen.
Zer izen nuen esan nion, ba.
Ta bera zala Setien.

4. Kontu-kontari bagindoazen
kastillanoz itz egiñez.
Leonerako sei kilometro
artean falta gutxiñez.
Bera arropa plantxatuekin,
gutziz lurrin-usai fiñez
eta ni, berriz, buzoarekin
loari eutsi eziñez.
5. Furgonetaren matrikula ere
zan bi ese zituena,
atzeko kaja toldoarekin
eta markaz Citröena;
karneta, berriz, etxean aaztu,
ta ni Kastillan barrena...
Berealaxe, kriston kontrola.
“¡Cuidado! ¡Frena, frena!”.
6. Fusillarekin keiñu eginaz
baztertu ta geratzeko.
Armaturikan azaldu ziran
sei bat elkarren antzeko.
Bere lagunak zirala aiek
eta ez ikaratzeko.
Eskua firme bekokira ta
armak erretiratzeko.
7. Urte aietan arriskutsu zan
gure matrikulen fama.
Kontrol gogor bat gainditzeko-ta
bagenuen naiko zama.
Ango bideko kate, arantza,
argi-txispa eta arma!
Setien jauna jeitsi zanean
geratu ziran jo ta ma.

8. Berealaxe lortu genuen
abiatzeko baimena.
Riki ta raka an sartu giñan
kapitalean barrena.
Nik ustutzeko lekura joan nai
nuen aal zan azkarrena.
Galdetu nion nundik ote zan
“Hay de todo” almazena.
9. Zuzen aurrera jarraitzeko ta
lagun egingo didala.
Umore onez zegoen, nunbait;
eguna ere ostirala.
Berriz etxeruntz eramateko
eskatu bear zidala.
“Zure aginduetara, jauna”.
Nola esan ezin zala?
10. “Kuerporaiño” joan bearra
zeukala eta orrela,
paper batzuek bertan lagata,
bereala zetorrela.
Azkar amaitzen baldin banuen,
ia eguerdia zela,
abiatzeko zerbait artzera
konbidatzen ninduela.
11. Ordu erdi bat pasa baiño leen
berriz an zan alajaiña!
Eginkizuna izango zuen
nere aldean ariña.
Laguntzeko ere disimuluan,
danba!, bota nion baiña
jubilatua omen zan bera,
leenago asko egiña.

12. Andik gertura tabernatxo bat;
jartzen zuen "Bar Pirata".
Neuk nai nuena eskatzeko ta
arek eman zidan lata.
Baso bat ardo bete-betea,
ogitarteko galanta.
Berak San Migel zerbezarekin,
opilla ta sardin-lata.
13. Ekarri nuen bada onuntza,
aruntz eraman bezala.
Ta etxe baten parean: "¡Alto!";
bera antxe bizi zala.
Agurra au zan: biotz oneko
vascongadoa nintzala,
"adios" eta urte askoan
Jainkoak gorde nazala.

Zarautzen, 2001eko udaran

Txalaparta

Ni oso txalapartazalea naiz. Batez ere, ain gauza Ngutxirekin alako doiñu politak lortzen dituztelako. Egur alu batzuk artu eskuetan eta jarrai beste egur-zati batzuei tankaka, fiñetik motelera eta moteletik fiñera. Sorginkeria dirudi, e? Egurrari itz egin arazten gizona, alajaiña!

Nik leenengo aldiz ikusi nuenean, oso txikia nintzan. Ez zait gogoratzen nun eta noiz. Baiña norabait amarekin meza nagusiren batera joana nintzala, ori gogoan det. Nola bi aitona buru-txuri txalaparta jotzen ari ziran plaza bazterrean, abarka, galtzerdi, galtza urdin, gerriko beltz, alkandora zuri eta txapelekin.

Eskuz egindako zigarro potoloak ezpainetan autsa zeriela, kopetatik izerdia tantaka, eguzki-galgatan, jendea korro eginda begira... Aien *zirti-zarta!* Ango *tinkili-tankala!* Kanpandorreko zintzarri aundia ere *dinbili-danbala*, enaren kabiak goitik beera bota bearrean. Beste bat, suziriak beetik gora bidaltzen: *zirrirtz eta pau, zirrirtz eta pau*. Botaldi bakoitzean, dozena. Ango kea eta ango zarata! Bai, gizona!

San Isidro ere prozesioan ibili eta elizatik kanpora lagata zeukaten, plazako koska batean, aurrean kajatxo bat zuela, gaiñean txulo luxezkarekin, baserritarrak txanponak botatzearren.

Beste batzuek zioten:

–Aizeak autsak kenduko zizkiok, bitartean.

Baiña txalapartariak jo eta ke jarraitzen zuten.

Orduan, astoan eramaten omen zituzten txalaparta-trasteak: maai eta makil eta abar. Iturriaren atze-

an lotu astoa, eta kito. Orduan, erroskillilla-saltzailleak ere izaten ziran orrelako auzo-jaietan. Eta mutiko biurri batzuk ere bai. Leenengo, astoari erroskillak eman; eta gero, zirikatu. Astoa, ipur-saltoka, eta gus-tora mutikoak.

Ara naiko artista, festa egiteko.

Doiñua: *Aizak i, mutil maiñontzi*

1. Artu ditzadan batera
arkatza eta papera.
Txalapartaren berri emanaz
noa idaztera
edo bertsoak jartzera.
Eskuetan det aukera.
Asi ditezen egurrak dantzan
gora eta beera.
2. Antziñako mezulari,
tinki-tanka mendiari...
Goiko burrundak adierazi
oi zion beari.
Ura entzutean adi,
ezbearren bat nabari...
Egurren soiñuz jakin arazten
zitzaien denari.
3. Gero plazetara koka:
egurra egurrez joka,
zearkakoak geldí, ta tente
ziranak saltoka,
zuzenka eta alboka,
jendea berriz txaloka...
Leenengo aldiz entzun nuela
da urte mordoxka.

4. Aitona buru-txurdin bi,
abarka eta galtzerdi,
gerriko beltzez, galtza urdiñak,
alkandorak txuri,
soiñuak eskeintzen guri,
ederrak bezain ugari...
Noiznai leku bat egin oi diot
oroitzapen ari.
5. Artu trasteak astoan,
ura zuzen arrastoan,
bide luzean “arre!” ta “iso!”
denbora askoan.
Eta iritsitakoan,
jartzen zitzaien txokoan...
Pare bat orduz jardungo ziran
jo emen ta jo an.
6. Suziria salatari,
“oa gora ta leer adi”,
auzo polit bat jendez betea
plaza ta atari.
Ara bi txalapartari,
ekinda zalapartari...
Bazirudien ari zirala
zuaitzak kantari.
7. Aitona pare ausarta,
an ez zan arterik falta,
adimen aundiz elkar artuta
aien *zirti-zarta!*
Egurren soiñu aparta,
uraxe zan txalaparta!
Solfeorikan ez zuten baiña
maisutza galanta.

8. Zigarro-autsa lurrera,
kea sudurren aurrera,
gazta-kolorez jarria ia
aurpegia bera.
Amaitzean bazkaltzera
ta pattarra edatera...
Gero astoa berak baiño leen
joango zan etxera.
9. Bazituzten beren bromak,
naiz urri izan txanponak,
ipuinlari umoretsuak,
laguntzaille onak.
Saiatutako aitonak
eta ez geldi egonak,
soiñu polit au guri lagata
joan ziran gizonak.
10. Gero naiz pixka bat auldu,
utsuneak beti au du,
berriro indarberritua da
ta arnasa badu.
Ainbeste gazte ondradu
ikasketara ugaldu...
Arbaso zaarren ondare ori
ez dakigun galdu.
11. Gaur dauzkate maai apaiñak,
egur onenez egiñak,
garraioketa autoan eta
makilla ariñak,
jo-lekuak atsegiñak...
Txalaparta soiñu-fiñak
musikalari aundienetan
ditu eragiñak.

12. Soiñuz aberasten goaz,
bai eskuz ta bai aoaz,
tresna ta adierazgailluak
obetzen dijoaz.
Baiña ez aaztu leengoaz,
makillak gora jasoaz,
Euskal Errian jarrai dezagun
txalaparta joaz.

*Zarautzen, 2001eko udaran
Zapirain anaiak sarian, 2002an, aipamen berezia*

Nere lagunak ezin du entzun

Entzuteko arazoak dituen lagun eta gizon jatorra dan bat badet. Adiskide aundia. Obeto esan: nere laguntzaille aundiena. Zorra nola ordaindu baneki!

Geiegi entzuten duten lagunak ere baditut. Aiek ez dira askoz obeak. Izan ere, mundu onetan denetik gaude, geroxeagoko bertso batean diodan bezela. Ba ote gera iñor ezer ez degunik? Ustez ezer txarrik ez duenak ere arrotzeko arriskua dauka. Eta ez da akatsik onena. Noiznai atzera begiratzea oso bearezkoa degula iruditzen zait. Gertatzen dana da aaztu egiten zaigula ori.

Baiña, adiskide, nik ez daukadan abantailatxo bat badezu zeure alde: nai dezuna entzuten saiatu eta nai ez dezuna ez. Txantxak ere idazten dira, konfiantza dagoen lekuan.

Entzumenaren akatsa besterik ez bada, oraindik amaika laguntza egin bearko didazu, Pello; orren premia izango det-eta. Ondo segi.

Doiñua: *Aita, asmo artu det*

1. Konfiantzak bultza dit
ta zugan urbildu,
adiskide gisara
izketara bildu,
patxadaz mintzatzera,
ez zaitzadan mindu.
Entzumena gainbeera
zaizula amildu.
Zama ori nai dizut
pixka bat arindu.

2. Inguratu natzaizu
kontu jarioko
ta ea lortzen degun
zerbait balioko.
Merezi dezun ainbat
ez zaitut igoko.
Zertan zaude urduri
izketa-saioko?
Guztia lezakeenik
ez bait da jaioko.
3. Dena isil sentitzen
dezula diozu,
itsas azpia baldin
balitz bezelatsu.
Aurpegi lotsatua
sarri jartzen dezu.
Gizonaren neurria
or agertzen zaizu,
ulertu nai dizunak
ulertzen bait dizu.
4. Badituzu lagunak,
ama ta anaiak,
emaztea ta seme-
-alaba alaiak.
Badezu lantokia,
badituzu jaiak.
Edonorentzako prest
laguntza-garaiak.
Aundi biurtu zaitu
txiki izan naiak.

5. Leenago nik bezela
entzuten zenduan.
Elkarrizketa samur
egiten genduan.
Ez dezu zertan lotsa
gaur zauden moduan.
Ez dakigu buillaka
gaudenok munduan
zure isiltasunak
zer balio duan.
6. Gizarte zaratatsu
au dago gaixorik.
Elkarri ez diogu
egiten kasorik.
Aspaldiko galdera
dakarkit jasorik:
bai ote degu inork
ango-emengorik
entzun nai ez degunok
baiño gorrakorik?
7. Gutxietsi ezazu
zure aulezia,
badaukazu-ta nundik
nora iesia.
Bestalde, ikastetxe
onetan ezia,
ematen dakizuna
daukazun guzia.
Zugandik badaukagu,
bai, zer ikasia.

8. Une batez begira
ezazu atzera.
Erren, mutu ta itsu
or agertzen gera.
Izatez eri dana,
beti buruz beera...
Ortatik aske zaude,
nolako aukera!
Ene adiskidea,
aberatsa zera.
9. Sarri joan natzaizu
argibide billa.
Zuk ateari, *ri-ra*,
kendu maratilla.
“Kaixo, pasa aurrera”,
ta jartzeko silla.
An asten naiz kontatzen
nere akats pilla.
Zenbat aldiz konpondu
didazun gurpilla!
10. Mailla aundi batean
zeu zaitut eredu.
Nere itxaropenak
zuregan fede du,
batzuetan zirika,
bestetan erregu...
Marmarraldi au emen
buka dezakegu.
Beste batean lasai
itz egingo degu.

Zarautz, 2002ko neguan

Josune

Amabost-amasei urteko neskatilla batek itz egiten Adu ondoren datozen bertso auetan. Berak dioenez, bizitza deika asi zaio dagoeneko, arritzekoa ez da-eta. Laga dezaiogun lekua bere pentsakerari.

Garaiari garaia ezin kenduko diogu. Bizitzan ezer txarrik ikusten ez dan adiña orixe izango da. Eta ori ere bearrezkoa dala derizkiot. Etorriko zaie garaia gauzak ikusteko. Bien bitartean, zorte on, Josune.

Doiñua: *Udaletxean badut*

1. Amabost urte ditut,
noa amaseira.
Ispilluan sarritan
or nago begira
nere soin gaztera ta
nere aurpegira.
Bi bular polit ere
datozkit argira.
Emakume-itxura
artzen ari dira.
Eldu naiz bizitzaren
gonbidategira.
2. Erregelaz egina
nago emakume.
Arte bitarte senti
izan nintzan ume.
Baiña geroztik zenbat
ilusio-une.



Gure lau seme-alabak.
Ezkerretik eskubira:
Mikel, gazteena; Aitor, zaarrena;
Belen, irugarrena; eta Dabid, bigarrena.

Argazkia: Nikolas Zendoia

Bizitzen nagoen au
polita da, ene!
Uso bat bezain alai,
bera bezain xume,
neskatxa amesti bat
nauzue Josune.

3. Naiz eta neska koxkor
izatea buka,
maite naute etxean.
Au ezin det uka.
Aita ta amak ere
artzen naute zuka,
kalera irtetean
lagunak ujuka...
Ia ez dakit nori
eraso musuka.
Pozaren itsasoak
igeritan nauka.

4. Egunak eguzkitsu,
arratsak izarrez
beteak ikustean
nago irriparrez.
Noranairako ere
apaintzen naiz errez,
aingeru-begiradaz
ta ille ederrez.
Gerriz meea nago,
potxola iztarrez
ta soiñaren txakonak
jantziak bixarrez.

5. Gogoko det musika,
baita ere dantza,
gazteontzako bait da
orrelako saltsa.
Berdin zait trikitixa,
tango edo baltsa.
Lore bat sentitzen naiz,
menpe det arantza.
Maitasun-printzak ere
badatozkit, antza.
Ta lortuko dedala
badet esperantza.

6. Ikasketetan nabil.
Danak badakite.
Orretan badaukat, bai,
naiko zer egite,
norbait izatez gero,
nunbait ta noizbaite.
Itxaropen-egoek
egan nabilkite.
Aize leunetara
banaramakite,
baiña noiz izango naiz
maite baten maite?

*Zarautz, 2002ko neguan
Santutxuko bertso-eskolako lehiaketan, 2002an, 3. saria*

Zaldi zuriari

Zaldi zuri ederra, zurda grisekin, ño! Dotorea dek, Zaba, mutillak. Ni aspertu eziñik egoten naiz begira, begiei atsegin ematen.

Batez ere, bere lepo-tontorra okertu eta atzera begiratzen duenean, burua goian duela, belarri motzak tente; eta norabait zorrotz begiratzen duenean, muturra luzatu eta gorputz-astinketa egiten duenean; galopean abiatzean, galopearen amaieran zurdak arro-arro dituela irrintzia egiten duenean...

Zelai loretsu batean ateratzeko, a zer argazkia! Eskuarekin bizkar gainean *plasta-plasta* jotzeko gogoia ematen du, eta muturrean igurtzi. Berak ere orixe naiko du, seguruenik; eta atzaparkada bat baba eta garagar. Oiek naiago.

Doiñua: Esne-saltzaillearena

1. Abereetan badet
nere eredua.
Bertsotan azaldu nai
nioke gradua.
Etxekoa degu ta
ez dago galdua,
lau bat urte inguru,
sasoira eldua,
ostikorik ez duen
zaldi ondradua.

2. Gustoko aberea
det beti zaldia.
Izena bera ere,
a zer esaldia!
Berez uzkurgaitza ta
naiko ausardia,
bizi amorratua
eta ez nagia,
baiña edonorekin
du jolasaldia.
3. Kolore zuria ta
zurda biak grisak,
buru-motots zarboa,
mardul mutur-mintzak,
belarri motz tenteak,
nekez ao-pitsak,
kopeta izar-beltxa,
dir-dir begi-printzak...
Ondo betetzen ditu
arraza-baldintzak.
4. Zakur aundirik ez du
nai aldamenean,
batez ere larrean
an dabillenean.
Izutu ta urduri
zakartzen danean,
jartzen bada atzeko
bi anken gaiñean,
lekua azkar egin
oi du geienean.



Berezi izeneko zaldi zuria.
San Prudentzio, Getaria.

Argazkia: Xabin Lazkano

5. Zaldia ezin degu
zirikatu gaizki,
bestela gaiztakeri
denak badakizki.
Itz egin ta igurtzi,
orixe da aski.
Bildotsa bezain otzan
jarriko da aurki.
Ume baten eskura
etortzen badaki.

6. Agindu gabe ez da
pasatzen langatan,
ezta zikindu ere
pix edo kakatan.
Brillu ederra dauka
bizkar ta ankatan.
Luzaro joan arren
trakatan-trakatan,
ez dizu ille asko
lagako prakatan.

7. Badu jolaslekua:
etxola azpia.
An egiten du bere
naaski-marrazkia.
Agerian darama
zenbaki zazpia.
Lepo biurrika ta
isatsa jeikia,
orduan ateratzen
diot argazkia.

8. Zaldia argia da,
sena, berriz, pilla,
eguraldiari antz
ematen abilla.
Naiz eta barrutian
irudi trankilla,
somatzen badu trumoi,
tximista-naaspila,
bera etorriko da,
ez zaitez joan billa.
9. Iñoiz eraman izan
det beorretara,
Zaldibia, Aralar
ta Legorretara,
tarteka goza dezan,
bere orretara,
irrintzia egiñez
alde denetara,
arraza zabaltzeko
inguruetara.
10. Pasta-silla lotzean
bizkar eta gerri,
narama mendiz mendi
edo erriz erri.
Abere-maitale naiz,
nork ez dit igerri?
Argatik jarri ditut
amar bertso berri,
jakin dezaten zaldi
zuriaren berri.

Zarautzen, 2002ko udaberrian

Kaioa

Kaioei begira maiz egon izan naiz, bai bakarka dabiltzanean eta bai taldean dabiltzanean. Eta nere buruari esan izan diot: "Txori lelo itxurako oni bertso batzuk jartzeko astia ere artu bearko diat, ba, alako batean. Neuk ez badiot kasorik egiten, nork egingo dio, ba, kaioari kaso?"

Txori azitxo bat izatekotan, kaioa da, nere ustez, iñori kalterik egin gabe bizi dan txoria. Seguruena, orrexegatik ez dio iñork kasorik egingo.

Itsas bazterretan egin oi du bizitza edo bere izatea. Ondartzak zikiñak daudenean ere, pilla bat ikusiko degu. Zabor-lekuetan ere an izango dira. Beretzako janaria era orretan biltzen duen txoria da kaioa. Ezin esango degu kalterik egiten digunik.

Bestalde, inbidi emalea da. Jarri zaitez begira kaioari, denbora-pasa dabillenean, itxuraz iñorako presarik gabe. Nai duenean, egoei eragin; bestela, segi aizearen erara; tarteka, itsas gaiñera jeitsi, mokaduren bat jaso eta jarrai lanean. Arraio orrek inbidia emango ez dizu, ba!

Doinua: *Ikusten duzu goizean*

1. Eskailburuko leioa
zabaltzera naiz igoa,
ikus zaitzadan, kaioa.
Emendik dizut begiraldia
baita ere adioa.
Kantuz ez zera iaioa,
nolabaiteko txioa,
itsasertzean jaioa.

2. Aula dezu, bai, mintzoa,
naiz egin aalegintxo,
txori lumatsu zintzoa.
Baiña arraiak arrapatzeko
daukazun moko gantxo!
Arrantzatik arrantxo,
sardina edo antxo.
Ta egalari mantsoa.
3. Beti arraldez arralde
zabiltza goiz-arratsalde,
bein etorri ta bein alde.
Iñungo itsasbazter guztiak
zure aukerara daude.
Bertan mantentzen zerade,
iñori gaitz egin gabe.
Polita zera, bestalde.
4. Itsasoa laino ezez
itsu baldin bada goizez,
ez zera azaltzen, ez, ez.
Arri-zuloren batean zaude
gordeta bere babesez,
ez beldurti edo otzez,
bai lozorroan ta pozez
gozatzen ur-apar otsez.
5. Oskarbitzen badu gero
aterako zera bero;
astindu ere bi ego.
Itsasaldetik joan-etorria
egingo dezu leenengo,
bazterrik bazter urrengo
bazoaz ipar ta ego
portuetako bezero.

6. Itsasoa bare bada,
zein jolasti zauden, ara!,
igota odeietara.
Ego mearrak zabal ta geldi
egazkiñaren erara,
goian zabiltz *pirin-para*,
aizea nora zu ara,
zeru azpiko festara.
7. Goata antzeko luma
itxia eta leuna
da zuk daramakizuna.
Bazter askotan zabilta baiña
gutziz egazti txukuna.
Arrantzaleen laguna,
zergatik zoaz urruna,
portuko kaio kuttuna?
8. Arroka politenean
eguzkitan zaudenean
giro ederra danean,
Pedro Joxeren txalupa zaarra
ere itsas urdiñean,
joanda bere gaiñean
jartzen zera geienean
arrantzan dabillenean.
9. An zaude lasai askorik
mugitu gabe egorik,
burua tente jasorik.
Gizonarengan ere badezu
une konfiantzazkorik.
Naiz badan jende iaierik,
nork lortu orrelakorik,
argazki politagorik?

10. Bai txalupa, bai bapore,
gorri, urdin, berde, more,
al dakit zenbat kolore!
Kaio txurixka jira-biraka
kresal-usaia zapore.
Begiraleen oore,
portua zeñen dotore,
itsas atariko lore.

11. Zurea da itsasoa,
gazia bezain gozoa,
arralde denen auzoa.
An ez daukazu eiztaririk,
pakea oso-osoa,
egaleku airosoa,
itsas brisaren lausoa.
Zoaz, bai, kaio gaixoa.

12. Gaurko bertso-jarioa
nuen gustoko saioa.
Gaiak zeukan balioa.
Eskailburutik begiratzeak
zekarren ondorioa.
Ta jaso dedan giroa
zuri esker zan, kaioa.
Ixtera noa leioa.

*Zarautzen, 2002ko udaran
Lazkao Txiki saria, 2003an, 3. saria*

Astoa jo diñagu

Au 2002ko maiatzean gertatua da, larunbat arratsez edo goizaldera, bi neska gazte dantzalekuren batetik etxera autoz zetozela. Maiatzean, astarra libre baldin badabil, edozein lekutan topo egin leza-kezu berarekin; gabaz, batez ere. Bi neska auei ere orixe gertatu zitzairen, ba: gabaz eta, gaiñera, laiño itsu zegoela, oartu gabe astoa jotzeraiño, *zanba!*, alajaiña. Erdi lotan bazijoazen ere, esnatuak izango ziran. Balantzaka an izkutatu omen zan, bidetik irtenda beeruntza, bere zintzilikario eta guzti.

Autoaren matxurak ikusi zituztenean, erderaz egiten diran orazio oiek errezatuak izango zituzten, gora begira jarrita. Ondoren, elkarri begira parre-algaraz asi eta noiz isildu ez zekitela, autoa arrankatu eta etxera, kantari, beren farol bakarrarekin. Gero esango degu mutillak edozer gauza egiten dutela. Bai neskak ere. Astarraren ametsak leku ederrean laga zituzten. Ondorengo egunetan gogoan izango omen zuen artutako osperakoa. A, zer mari-matraka pare!

Doiñua: Bizkaiko txerriarena

1. Aurtengo maiatzean,
gau-giro narratsez
gertatu zitzaiguna
trago batzuk artzez!
Bi neska gazte giñan,
ta gaiñera kotxez,
diskoteka lagata
ordu biak jotzez,
etxera goazela
larunbat arratsez.

2. Mitsubishi batean
gu bi marifreska,
bat lo-zurrunkaz eta
bestea parrezka.
Abere kankaillu bat
bidean trabeska,
“katxis la porra”, *zanba!*,
an zean ieska.
“Astoa jo diñagu.
esna adi, neska.”

3. “Baiña, baiña zer krixtin
egin den, Arritxu?
Ni lo nentorrela ta
i ere berdintsu?”
“Zer esaten ari aiz?
Au mariberritsu!!
Ez al dakin laiñoa
dagoela itsu,
edo-ta Gin tonic-ek
diten ainbat pisu?”

4. “Gaur ez diñagu izan
naiko mutil-tratu,
gaiñera bide estu
alu ontan sartu.
Asto belendrin ori
zer malapartatu!
Zein konpaiñiak ote
du aseguratu?
Matrikularik edo
ez al dion artu?”

5. "Iruditua zaidan
gris illuna zala
ta belarri bat erdi
erori zuala.
Jo arte geldi-geldi,
zearo makala,
buztan azpian zero
bat bazeramala.
Gaiñera, uste diñat
bost anka zauzkala."
6. "Kontxo, artu dion bai
datu borobillik!
Baiña izaten al den
ain asto zarpillik?
Naiz ta bitxo arraren
antza zuen soillik,
nola gero bost anka?
Agona isilik!"
"Bai, bai: lau lurreraiño
eta bat zintzilik."
7. "A zer Mitsubishia
geratu zaiguna!
Asto arraio ori
ez unan biguna.
Baiña an eraman din
eman dioguna,
kaka ere irtenda
aldegin diguna.
Auek ditun krocketak
utzi dizkiguna!"

8. "Emen alperrik gauden
jira eta bira,
farol autsiari ta
matxurei begira.
Astoak ies egin
duenez mendira,
itzuliko al gaitun
berriro errira,
lotsik gabe gaiñera
komisaldegira?"
9. "Kaixo, ertzain majote,
apurtxo bat atoz,
istripua daukagu
auto eta astoz.
Kaltetuak gu gera
ta gastuak datoz,
txostena bete degu
astoaren datoz,
ta orren salaketa
jarri naian gatoz."
10. "Kaixo, neskato majak,
eseri patxadan,
galdeketa egin nai
nizueke txandan.
Ibili al zerate
gaueko parrandan
edo diozuen au
txantxaren bat al dan?
Bost ankako astorik
ez dakik ba badan."

11. “Gazte, ez gatozkizu denbora galtzera, baizik gertatu dana zuzen azaltzera. Sinisten ez badezu, bagoaz etxera, eta asteburuan ikusiko gera, baldin diskotekara etortzen bazera.”

12. “Sara, ados al ago bandoa jotzeko, Belendriñen jabea nor dan aurkitzeko, autoaren gastuak bere gain jartzeko ta astindu bat eman espabilatzeko, maiatzean astoa obeto zaintzeko?”

2002ko ekaiñean

Lazkao Txiki sarian, 2003an, 1. saria

Amaren bular ximurrak

Asmatuko ote det gure ama zaarraren bular ximurrei itz egiten, idazten eta kantatzen? Aalegiña egingo det, eta badakit ez didala gaizki artuko.

Batek ama oso zaarra duenean, gogoeta asko egiten ditu amarengan gogoratuz. Nola ez, ba, nere ondorengo beste sei senideei bularra nola ematen zien ikusi eta gero!

Garai artako ama bulartsu ura, zortzi ume azten ezagutu nuen ama ura, gu ezkontuta gero ere gutaz arduratzen zan ama ura, geroztik “elizara joaten al zerate?” sarritan galdetzen digun ama ura, orain oso zaartuta bular-ximur baiña umoretsu ikusten degun ama ori edo ama au, irudiz asko aldatu bada ere, guretzako beti ama bera izan dala aitortzen diogu.

Bejondeizula, ama. Eutsi goiari, eun urtetara arte.

Eta, orain, bertso mordoxka bat kantatzeko baimena eman bear didazu.

Doinua: *Emaidazue freskura,
ura eskutik eskura...*


1. Kaixo, ama, emen nauzu.
Musu aundi bat ar zazu.
Baimena ere bearko nuke,
babestu nazazu.
Bertsozalea zera zu.
Batzuk entzun zaizkidazu.
Zure bularrei kanta nai diet
uzten badidazu.

2. Maitasunaren iturri
izan diran bi ikurri
errespetua zor diet, ama.
Ar dezadan neurri.
Esnea ez zuten urri,
emanak ainbeste aurri.
Bertsoz idatzi dedana nai det
kantuz irakurri.

3. Ama, iñoiz ez ziñan xuur.
Gugan ainbat trago isur.
Maitasunaren jarioa zan.
Ortan nago ziur.
Baiña agortu ta ximur
ara nun zaizkizun biur.
Bular oietan ase ta azi
gintuzun zortzi aur.

4. Amar izan, zortzi azi.
Aietatik zazpi bizi.
Egin genizun ainbat irripar
ta ainbat garrasi.
Bular maitakorren grazi
maiz zenigun ar arazi.
Aurtzaroaren oroitzapenak
ez dauzkagu gazi.

5. Bi Margarita txikiak,
ziruditenak bixkiak,
aingeru ziran artean joan
zitzaizkizun biak.
Bizitzaren sarraskiak
jaso ditun argazkiak
gordeta dauzka ekaitzaldiak
eta eguzkiak.



Gure ama Joxepa Antoni, birbilloba Jokinekin.

Argazkia: Nerea Ilarramendi

6. Bi iruko ta bi biko,
lau neska ta sei mutiko:
bi Margaritak eta ondoren
Felix, Joxe, Niko;
Maite ta Karmentxukiko,
bi arrebatxo begiko;
azken irurak Esteban, Dioni
eta Aurelito.

7. Baiña, ama, dedan pena,
kendu ezin litekeena:
ez naiz oroitzen bular oietan
gozatu nuena.
Bai, ordea, besteena,
anai txikiagoena:
oial txuritan bapo edanda
jolasten zutena.

8. Sutondoa, aldagela,
magaleratu ta bela,
garbitu, jantzi eta lurrindu
ta titi epela;
gero jolasten zutela
edo lokartu bestela...
Esan zaidazu nik ere berdin
egiten nuela.

9. Lan ura ez zan laburra,
gaiñera, baratza-lurra:
ume bat tripan, bestea aupan,
eskuan atxurra.
Txikiak gose-agurra,
zuk prestu irain xamurra:
pendiz koskara eseri eta
bularrera aurra.

10. Xoxoa baratz pikoan,
zuk aurra bular bikoan,
kantatuz eta musukatuaz
umore tinkoan,
lara-lara betikoan,
nexka edo muttikoan...
Bizi ontako zorrak aspaldi
dauzkazu kitoan.

11. Ez ziñan andre antzua,
emakume bulartsua,
lan gogorretan ere egiña
zeure zerbitzua.
Orain, birramonatxua,
bular ximurrez petxua...
Baiña guretzat beti zera zu
ama beretsua.

12. Ximurrak baiña osorik,
dauzkazu ondo jasorik.
Ia eun urte. Ama, oriei
ez egin kasorik.
Ez zaude beintzat gaxorik,
badabilkizu pausorik...
Naiz gutxi entzun, zure begiek
ez dute lausorik.

13. Semeok gaude aitonak,
alabak, berriz, amonak,
aurrak giñala bular oietan
zintzilik egonak;
billoba asko ta onak
or dituzu gu denonak:
zuk piztutako egunsentiak
ta biaramonak.

14. Ainbat jario emana
dan bular biko laztana,
jar dezaiedan maitasunezko
masailkada bana.
Ustez kantatu det dana,
biotzean neramana.
Baimenagatik beste musu bat.
Jarrai bizkor, ama.

Zarautzen, 2003ko udaberrian

Ene gaztetasun

Gaztetasuna itza, itza bera ere, ederra benetan. Aoa betetzen duen oietakoa. Urteetan aurrerazten goazen aiñean, orduan eta ederrago iruditzen zaizkigu *gaztetasuna* itza eta gaztetasuna bera. Au arraiokeria, ordea: orretaz jabetzeko, norberak pixka bat zaartu egin bear. Esan oi dan bezela: bizitzaren legea.

Bati baiño geiagori entzun izan diet: “Bai, motel. Berrogei urtera arte or ibili gaituk osasuna gastatu eziñik. Eta andik aurrera, bera zaindu eziñik”.

Bai. Ori gazteak giñanean ere entzuten genuen. Baiña orduan belarri batetik sartu eta bestetik irte-ten zitzaigun. Orain, berriz, barruan geratzen zaigu. Ortxe dago aldea.

Esaldi eta gertaera auek adierazten digute oiñez ibiltzen ez dala ikasten erori gabe. Baiña ez dedilla iñor ikaratu. Nik ez det esan nai, e?, berrogei urtetik gorakoak zaartuta daudenik. Ezta gutxiagorik ere.

Neronek irurogeita lau badauzkat baiña, alajainkoa eta bi!, oraindik ere ispilluaren aurrean, illea orraztuta jartzen naizenean, zaarra nagoenik ez zait iruditzen. Ilusio pixka bat ere bear du. Zer demonio gero!

Au bai: ogeita amar urte nituen ezkeroztik ekin nion neure burua zaintzeari. Ezer berezirik egin gabe: jan eta edana beti era berdintsuan, parranda gutxi, alkohol gutxi, lanean ordu asko, maitasuna eta bizitzeko ilusioarekin burua betea edukiz, eta orrelaxe.

Ea, ba, bizitzari aurrea artu gabe, geure izatea zaintzen ikasten degun, merezi du-eta.

1. Kantatu nai nizuke,
ene gaztetasun,
eman zidazulako
ainbeste poztasun.
Bizitzaren lorea
zuri jaso nizun,
baiña oartzera
utzia ninduzun.
Agurrik egin gabe
aldegin zidazun.

2. Ni naiz gaztetasuna
pasata nagona.
Ala ere, ar zazu
nere esker ona,
luzaro ziñalako
nerekin egona.
Zurekin nintzan mutil,
zurekin gizona...
Banandu giñanetik
dirudit aitona.

3. Sasoikoen zangoak
noiznai abiadan,
ta joan zitzaigunok
betiko patxadan.
Bi ekitaldi oiek
datozkigu txandan.
Iñoiz ez daude geldi,
dijoaz pasaran.
Gaztea izatea
zein aberatsa dan!

4. Sasoiak igestea
ez da nere kulpa,
baiña izan nuela
ezingo det uka.
Gaur gazte bulartsuak
arriturik nauka.
Naiz ta lan gogorretan
egunez burruka,
arrats bateko loak
sendatuta dauka.

5. Gazteak ausardia
dauka lanerako,
bai kantatzeko eta
bai parrandarako.
Umorez gaiñezka ta
berdin dantzarako,
gaztetasuna prestu
edozertarako...
Baiña kontuan izan:
ez da betirako.

6. Bat noranairako da
gaztetasun-kutsuz,
aalmenez betea,
odol bero sutsuz,
biotz-taupadak sendo,
bakan-bakan pulstsuz,
edertasunez gaiñez,
gorputz osasuntsuz,
baldin eta jokutzen
badu beintzat zentzuz.

7. Gazte batek sasoia
askotan saltzeko
ainbeste izaten du
edota antzeko.
Baiña gutxi bear da
dena aldatzeko.
Auxe idatziko det
gogoan artzeko:
gaztetasuna ez da
alperrik galtzeko.

8. Zorionak, gaztea,
dizut amaitzeko.
Barka, ni ez naiz iñor
zuri agintzeko.
Eskatuko nizuke,
ta izan itzeko,
gaztetasuna aal dan
ongien zaintzeko,
zaartzaroan ere
gazte bizitzeko.

Zarautzen, 2003ko udaran

Kaxkagorri

Kaxkagorri, sei urtean balkoian eduki genuen txoria zan. Izan ere, gure etxeko balkoian kaiola zaarren bat beti egon izan da, atea autsita-edo, bazter batean ez bada bestean. Eta txori kantariak noiz-nai etortzen zaizkigu. Kaiola barruan sartuta aurkitu izan ditugu. Ezin, ba, bialdu koitadu aiek!

Orain daukaguna ere etorkiña da: mixto gris bat. Eta zer kantaria bera!

Ba, Kaxkagorri ere etorritakoa zan. Txori atsegiña, eta asko zekiena. Zenbait txori izaten da zerbait nai duenean zalapartaka asten dana, beste askoren gisa. Kaxkagorri, ez. Ura, luma arrotuta, gaixo itxuran jarri oi zan.

Noiz edo noiz, gerta zitekeen bearragatik orrela jarri bear izana. Baiña orduan denetik eman eta mi-moak egin bazitzaizkion, ederki ikasi zuen betirako. Noiz baiñatu nai zuen ere antzematen genion.

Txoriek entzumena ere aundia dute, nere ustez. Sukaldean gaua pasatzen zuenean, goizean ni oetik altxatzearekin bat, *txiit* egingo zuen. Nere mugimendu guztiak zaintzen zituen. Emazteari esan oi nion: "orain ere akordatu da, ba, alu ori!".

Gutizi asko egiten niola ere egia da: otordu bakoitzeko, ogi-puxka; eguzkia zein balkoitan zegoen, ara eraman; otza bazan, tapatu... Kaiolako txoriek azkar antzematen dute errukia nork dien. Txoria bera asten bada zure pausoak zaintzen, ezer gutxi egingo dezu etxean bera akordatu gabe.

Zenbat prosa idatzi nuen nik sukaldean arratsetan, eta zenbat bertso, bera kaiolan maai gaiñean

nuela! Batzuetan, lagungarri oi nuen. Bestetan, sukaldeko trapu guztiak kaiola gaiñera botatzen nizkion, isilik egotearren. Baiña beti lagun giñan.

Emendik aurrerakoa, ondorengo bertso auetan agertzen da. Bertsoak, Andatzarraten jarri nituen 2003ko uztaillaren azkenean edo abuztuaren aurrenean, txoria Laurgain inguruan libre utzi ondoren. Saria ere irabazi zuten. Bertsoetan aipatzen dan Orixe saria, berriz, 2001ekoa da, "Iñude izan nintzan" saillarekin irabazi nuena.

Doiñua: *Aita, asmo artu det*

1. Orain dala sei urte,
gutxi gorabeera,
balkoian jasotako
kaiola zaarrera,
aterik gabe eta
erdoituta bera,
txori bat etorri zan
bere barrenera,
kantari atsegiña,
polita, gaiñera.
2. Buztana txuri-beltza,
burua gorria,
ego-mutur oriak
ta begi larria.
Guk ez dakigu nundik
ziñan etorria.
Pozik ase genizun
gose-egarria,
baita ekarri ere
kaiola berria.

3. Balkoia bait geneukan
egoera tristez,
guztiok zenbat poztu
giñan zu iristez.
Auzokoak oartu
ere bai albistez,
zure etorreraz ta
abesti politez.
Guk mantendu zaitugu
ogiz ta alpistez.

4. Kanean ere asko
zeneuzkan entzuten.
Belarria agudo
luzatzen zizuten.
“Nun erosi dezue?”,
galdetzen ziguten.
Txoria, zu ez zera
dirutan erosten.
Arrigarria nundik
bidali zinduten.

5. Dozen erdi bat urte
zuk gure balkoian
pasa dituzu kantuz,
bixkor ta sasoian,
giro txarrean been
ta onean goian,
eguzki epeletan
ormaren kantoian,
loreak apaingarri
alboko kajoian.

6. Muika-aldietan
naiz galdu itxura,
berealaxatzen
zenuen tristura.
Orrela pasa dira
sei negu, sei uda.
Eguraldi otzetan
izan det ardura
arratsetan sartzeko
sukalde barrura.
7. Tarteka sukaldean
nere afanean,
illunabar aldera
isiltasunean,
bertso batzuk idazten
asten nintzanean,
zure txorrotxia
maaiaren gainean
lagungarri izaten
nuen geienean.
8. Gau batez bagenuen
naiko eginkizun.
Txanoko kafeari
diot mirestasun.
Neuk artu eta zuri
ere eman nizun.
Itxura danez, gutxi
gustatu zitzaizun.
Ai, zer kuxidadeak
egin zizkidazun!

9. Biok aurkitzen giñan
umore pittiñez:
ni, neure bertsoekin;
zu, zeure mitiñez.
Kafetan sartu ziñan
baiñatzeko griñez.
Gero ara zer: ego
biei eragiñez,
bertso-paper guztiak
kafe-zipriztiñez.
10. Elkarrengana txantxa
bagenebilkien.
Zirika asita neu
atera gaizkien.
Itxaropena bertso
aieri banien.
Orixe saria' re
erori zitzaien.
Leen bedeinkapena
zuk eman zenien.
11. Sei urte asko dira,
baiña zaude lasai:
iñoiz ez zera izan
etxeko aspergai.
Ustez zaindu zaitugu
ongi aste ta jai.
Askatasun osoa
merezi dezu, bai.
Zure xaarraldirik
ez det ikusi nai.

12. Zuri idazten bete
leizke zenbait orri,
txori maitatuena
bait zaitut zerorri.
Kendu diot atea
kaiolatxo orri.
Zurea da mundua.
Zoaz, Kaxkagorri.
Ta aspertzen bazera,
berriro etorri.

*Andatzarraten, 2003ko udaran
Okelar sarian, 2003an, 2. saria*



Ni, eta Kaxkagorri txoria kaiolan.

Argazkia: Pilar Eizagirre

Pobre de mí

Badakizue “Pobre de mí” nun kantatzen duten: Iruñan, San Fermin jaien amaieran. Jaien amaieran ori kantatzea tristea bada, pentsa jaien asieran kantatu bearra zer izango dan.

Nere lagun Feliperi ere orrelako zerbait gertatu zitzaion, itxurak diranez.

Joan omen ziran, ba, bein mutil-talde bat San Ferminetan Iruñara, eta dalako Felipe orri jarri zaio buruan entzierroa korritu bear zuela. Baita abiatu ere, abiatu bazan. Zezen beltz batek bereala astindu omen zion atzealdea.

Gero kontuak:

-Kontaidak, Felipe. Kontaidak.

-Bai, motel. Betidanik banian ilusioa entzierro bat korritzeko, eta gaizki atera zitzaidaken.

-Zer uste dek, ba: emezortzi urte ituela?

-Bi aldiz emezortzi. Ez dek asko ere.

-Eta gero nola moldatu intzan?

-Nik uste baiño obeto. Uste diat denak nere gainetik pasa zirala. Gero, ango ambulantzi otsa eta ango argia eta ango kamilleroa.

-Eta ez al zian iñork kantatu “Altza, Felipe, trunlalai, trunlalai, trunlalai”?

-I. Baiña erizaiña... ura dek neska gaztea. Ura dek katxarroa, titi-punta tente-tenteekin!

-Joño! Ez engoen oso gaizki ere, ainbeste begiratzeko.

-Uste diat penak merezi izan zuela.

-Berriz ere beste pare bat adarkada artuko nizkikek, aren eskuetan jartzearren. Eta, gainera, bertso

batzuk moldatu bear dizkidak, Niko, neronek egiñak balira bezela, pasadizo ari buruz.

–Bai, bai. Nik bertsoak egingo dizkiat, ala nai ba-dek. Baiña tamalgarria dek lepoz goiko utsegitea lepoz beeak jasan bearra ere! Konponbidea edukiko aal diagu, noski.

Doiñua: *Nere sentimentua
nai det deklaratu*

1. Iruñan izana naiz
aurten San Fermiñez.
Sano joan bai, baiña
etxeratu miñez,
entzierroko zezen
baten eragiñez.
Pare bat zulo egin
zizkidan gutxiñez.
2. Goizeko zortzietan
suziria gora,
langak ireki eta
zezenak kanpora.
Ni bai iñuzentea:
beraien ondora.
Ez da alde aundirik
txotxotik tontora.
3. Zezen arriskutsuak
Miura etxekoak,
adar okerrak eta
larru beltzekoak.
Mantsoak, *tulun-tulun*,
jator antzekoak.
Baiña okerra egin
zidan atzekoak.

4. Auskalo zenbat gazte
lasterka batean,
egurrez itxitako
kaleak betean!
Numeroak egiten
ni ere tartean,
osperakoa artu
nuen bitartean.

5. Ankaz gora joan nintzan,
ara zer istori.
Aleman kankaillu bat
gaiñera erori.
Nola eraso zigun
zezenak biori!
Bapo astindu ere
atzealde ori!

6. Erabat biurritu
zan buru ta buztan.
Aiek mutur-txistuak
leenengo purrustan.
Erruki geiegirik
ez zuenez gutan,
alemana ta biok
bi adarren puntan.

7. Gero eskertu nuen
gure alemana:
nere erdi zartada
zuen eramana.
Bakarrik banintz, adar
biak neregana.
Baiña bera zalako,
biontzako bana.



Gaztetan Iruñan ateratako argazkia:
emazte Maria Pilar eta iru seme-alabarekin.
Becan, ezkerretik eskubira: David, Belen eta Aitor.
Artcan, iru genituen.

8. Lurrean ikustean
gu bi kankaillu an,
il bear gintuela
bere kaskailluan.
Zaitzailleak eraso
arren akuilluan,
nai baiño leen ez zuten
sartu ukuilluan.
9. Inguratu ziran bi
anbulantzi kotxe.
Erizain bat polita
bazetorren antxe,
euskaldun berria ta
izena Iratxe...
Laster jarri zizkigun
pare bana partxe.
10. Amaitu zigunean
bazuen ardura:
“No bebáis garagardos;
bakarrikan ura”.
Atsegiña izan zan
esku leun ura.
Nai baiño azkarrago
egin zigun kura.
11. Ipurdian bi partxe,
iru ubeldu an,
arro joanak arren
itxura galduan,
egindako okerra
ezin zuzenduan,
“Pobre de mí” kantatzen
ikasi genduan.

Zarautzen, 2003ko udaran

Kaixo, Erramun

Erramun au, nere aspaldiko ezaguna dan don Ramon deitzen zaion apaiza da. Gaur egun, Zarauzko Andra Mari parrokiako bikarioa ere bai.

Ni ez naiz apaiz eta fraile eta oien goratzaille aundia. Errespetua, mundu guztiari. Ori bai.

Bi milla eta iruko udaran, Zarauzko *Txaparro* aldizkarian idatzi bat egin nuen, "Elizako kontuak" titulupean. Xelebrekeri batzuen artean, baldarkeri batzuk ere idatziak izango nituen, itxurak ziranez.

Pixka bat onela mintzatzen nintzan. Alegia, Euskal Erriko plazetako oitura zaar asko geiagotan antzeztu bear liratekeela elizan. Ez, ez diralako antzezten. Or aipatzen nituen soiñu, txistu, dantza, bertso, euskal kantak, eliz atariko pelota-jolasak eta abar. Baita ere jartzen nuen don Ramonek ez ote zuen lagatzen Zarauzko parrokian zenbait euskal kanta edo zenbait oitura gure plazakoak erabiltzen.

Nere baldarkeria auxe zan: bere izena aotan artea; eta, bearbada, gauzak ain nabarmen esatea.

Don Ramonek, urrenge aldizkari berean, erantzuna eman zidan apaiz bezela. Merezi nuen neurrian, noski: zorrotz samar. Onartu nuen neurri batean, eta nere urrenge erantzunean barkamena eskatu ere bai. Eta gaur ere eskatzen diot.

Ni gure plazetako oituren zalea naiz. Orixe adierazi nai nuen. Baiña baldarregi itz egin, nunbait. Ara baserritarra izatea edo ezjakiña izatea zer dan.

Gaiñera, Erramunekin bitxikeri bat badet aspaldikoa. Berak aginduta asia naiz ni dantzan, Aiako Al-

tzolan, San Roman batzuetan. Bera, apaiz gazte sa-soikoa; nik, emezortzi urte.

–Ik zer egiten dek, Nikolas, dantzan egin gabe? Or, iru neska dituk. Mutilla falta ditek, eta oa dantzara.

Baita ni joan ere. Pixka bat, lotsatuta, baiña.

Orra plazako oitura eder batera don Ramonek bultza. Geroztik, makiña bat salto egin nuen. Eskerrik asko, jauna.

1. Ez natorkizu buillan
eta deadarka,
ezta ere presaka
ta zalapartaka.
Miñikan egin badet,
barka, arren, barka.
Nik ez nuke asi nai
iñori adarka.
2. Buruan nebilzkien
iru-lau bat mamu.
Txaparro itsasoan
jarri ditut amu.
Ez nintzake izango
ezertxoren damu,
egindako okerra
zuzenduko banu.
3. Zure erantzuna zan
zuzen ta itzela.
Ez zenuen usteko
gaizto bat nintzela.
Adierazi nai nuen,
aal nuen bezela,
plazetako oituren
maitale naizela.

4. Erromeri batean,
bein denbora-pasan,
ez dakit gogoratzen
zeran au nola zan:
San Roman batzuetan,
Altzolako plazan,
zerorrek aginduta
asi nintzan dantzan.

5. Leenengo dantzaldi
aren penarikan
sekula santan ez det
izan oraindikan.
Iñoiz ez nuen artu
apaizagandikan
ura baiño agindu
ederragorikan.

6. Erriaren plaza da
erriaren muiña,
oituren gordeleku,
seaska duiña.
An jartzen det burua,
an jartzen det oiña
ta irudi bezela
daramadan soiña.

7. Gizakien biltoki,
nekez edo aisa,
lekua edozein da
gizatasun gisa;
plazan, erri-oituraz
baldin aal balitza.
Erramun, neretzako
ori da Eliza.

8. Erritar bat bezela,
arren, ar nazazu.
Bazkari batetara
gonbita daukazu.
Lekua ta eguna
jarri zaizkidazu.
Ta nere besarkada,
zintzo bezain gartsu.

Zarautzen, 2003ko azaroan

Zertarako ezkondu?

Ez da galdera txarra. Ala ere, orretan pentsatzen egon gabe ezkondu giñan. Eta batere damurik ez, gaiñera.

Baiña gaur egun orri ere begiratzen zaio, nunbait. Ez det esango gaizki dagoenik, baiña garai batean gogorra zan gero “mutilzaarra” edo “neskazaarra” entzun bearra. Orrek adierazten du iñork ez zuela nai izan mutil ura edo neska ura. Eta iñork ez nai izate ori, amigo!, gogorra da beti.

Ez da berdiña, ordea, iñork nai ezta ezkondu gabe geratu edo norberak ala naita geratu. Or zegok, ba, koxka! Orain, lujoa ere bai omen da ezkondu gabe geratzea. Au ere badek, ba: leenago bajeza zana orain lujo biurtu! Kaixo, motel! Bapo zegok.

Jendearen asmoen berri pixka bat jakiteko, ona izaten omen da tarteka ostatuan bazkaldu edo afaltzea. Eta nik badiot fedea orri.

Ara! Esango dizuet, ba.

Orain dala gutxi, beste bi lagunekin jatetxe txiki batean afaltzen nintzan, beste geiagoren antzera. Aldameneko maaian, dozena erdi bat neska gazte, aiek ere afarian. Eta orrelakoetan, maaiko elkarrizketari ez ezik, albokoei belarria jartzea ere ez dago gaizki.

Pixka bat umorean sartu ziranean, kontu garrantzitsuak zituzten. Ezkondu bai, ezkondu ez, alegia. Batek beintzat gogor egin zien beste bostei. Berak, zalantza askoren ondoren, ia ez ezkontzea erabaki zuela, zenbaitekin fiatu ere ez litzakeela egingo-eta.

Parre pixka bat ere egin arazi zien besteei. Orain badaudela, alegia, plastikozko txakillak ere, “arre”

agindu eta mugitu, eta "iso" agindu eta geratzen diranak. Jesus, Maria eta Jose! Parre egingo ez zenuen, ba? Gizonezkoak fama ederrarekin geratu giñan.

Berak ume bat adoptatuko zuela eta *señorita* bizi. Bearbada, arrazoa zeukan, ara. Baiña pixka bat txispatutakoan zer berritsu jartzen geran, e? Bai, arranea!



Ezkondu giñanekoa,
erdian degula Xabier Azurmendi apaiza, ezkondu gintuena.

1. Aupa, Aintzane naiz ni,
ogeita bi urte.
Ispilluan begira
sarri naukazute.
Itsusi nagoenik
ere ez det uste.
Milla galdera ditut,
milla buruauste.
Erabakia artzen
lagun zaidazute.

2. Irudimen geiegi
daduzkat zerrendan,
izan ere gaztea
izatea zer dan.
Sasoiz eta politez
nabil ia egan.
Baiña ainbat zalantza
sortuta neregan,
zaila da asmatzen zer
egin bear dedan.

3. Pentsakera ariñez
ez nadin itsutu,
naiz ta ispilluaren
aurrean billuztu.
Orrek ez nau lotsatzen,
ezta ere izutu.
Erakusten dit nere
amaika izkutu.
Polita nago eta
ez det nai itsustu.

4. Noranaira narama
pozaren indarrak.
Besoak eta anakak
ez dauzkat iarrak.
Bularrez osatua,
irtenak bixarrak.
Gerria baietz artu
zenbaiten bi arrak...
Silikona bearrik
ez duten giarrak.
5. Gorputz egoki batek
beti dauka ganga
janzteko bikini
edo eta tanga.
Ala ere ez nuke
izan nai baztanga.
Politaren zoriak
jo ninduen, *danga!*
Baiña nori ireki
biotzaren langa?
6. Maitasunaren billa
noiz abiatuko
naizen ez dakit baiña
ez det lo artuko.
Kezkak ez ote naute
ongi gidatuko?
Nere kabia ez du
nornaik miatuko.
Edozeiñekin beintzat
ez naiz fiatuko.

7. Topa dezaket mutil
bat maitagarria
eta laztan biurtu
barrengo irria.
Baiña nork daki nundik
zaidan etorria.
Beste kabiren baten
arrautzak jarria.
Ez dakit nola neurtu
maitasun-neurria.
8. Bizitzak denetik du:
gozo eta gazi.
Lorea arantzetan
ez nuke nai naasi.
Bikoteetan orain
bada naiko krisi,
ta nondik abiatu,
zein bide bereizi:
señora izan edo
señorita bizi?
9. Nork daki suertea
nola ta nun duan,
naiz ta bat fintasunez
ibili munduan.
Zenbait kaiku gertatu
ezkero onduan,
bizi bearko nuke
tuntuna moduan...
Polita izatea
akabo orduan!

10. Ogeita bi urtetan
pentsakeraz pinto,
zenbaitek esango du:
“a zer txoropito!”.
Fidagaitza naizela
ta neri zer krixto!
Ur gazietan beintzat
ez nuke nai ito.
Señorita izaten
jarraitu ta kito.

11. Nexka txiki polit bat
adopta dezaket
eta bere izena
izango da Odet.
Alabatxo modura
azten baldin badet,
ume bezela ama
deituko dit arek.
Beraz, ezkontzea ain
bearrezko al det?

Zarautzen, 2004ko urtarrilean

Eskalea

Eskalea izena naiko itsusia da berez. Guk garai batean zakuarekin etxez etxe ezagutu genuen eskalearen irudia datorkigu burura. Zakua naiko utsa, arropa zaarrak, ille aundia, txori-ziriñak zituen txapela, eta abar. Lo zubipeetan eta estalpeetan egiñaz. Orrelako eskalea ezagutu genuen guk. Baiña izaera apalekoa, ate ondoetan. Eskertzen zekiena eta “Jainkoak ordainduko dizu” esaten zuena. Gu mutikooi esan oi ziguten etxeko zaarrak edo elduak:

–Eskaleari ez zaiok parrerik egin bear. Orrek ere zuek bezelako umeak nunbait izango dizkik. Eta aiek goseak ez edukitzearren zebilek eskean.

Ura ere bizitzeko era bat, nolabaitekoa baiña.

Erderaz esaten da, ba, “vagabundoak” bizi dirala mendian, zepoz eta armaz eiztatzen dutena janaz. Pelikuletarako-eta ospetsuak dira, ba, oiek... Ez dakit alderatu litezkeen eskalearekin. Emengo eskaleak ez zuten arma eta zeporik. Otzanak ziran. Beraz, ez dezagun desondratu euren izena.

Bestalde, ondo pentsatu ezkerro, iñoiz baiño eskale geiago daukagu gaur egun. Zakua erdi utsa dagoen arte eskatzea ondo dago. Baiña, bai zera! Oraingoak, zakua bete eta gero ere, jarraitu egiten dute eskatzen. Eta orrek ez nau gutxi kezkatzen. Jantzia ere, naiko txukuna. Oraingo eskaleak ez dute ille luzea erabiltzen. Motza edo ille gutxikoak dira geienak. Orri ez zaio garrantzirik ematen. Txapela erabiltzeko oiturarik ere ez dute, noski.

“Eskerrik asko” eta “Jainkoak ordainduko dizu” ere esateko oiturarik ez dago orain. Ori modatik pa-

sea omen dago. "Vagabundoak" pelikuletarako baka-
rrik omen dira. Armarik-eta ez dute izango eskale
modernoak. Baiña zepoak baietz uste det, e?

Doiñua: Esne-saltzaillearena

1. Kaixo, jaunak, kantari
nator eskalea,
bizileku zabala
dedanez kalea.
Ez nauzue edale
eta ez jalea:
naiko umoretsua,
kontu-esalea,
jatorriz euskalduna
ta bertsozalea.
2. Mundu zibilizatu
aren iskanbilla
ikusita bat ezin
zan egon trankilla.
Zakua bizkarrean
eta traste pilla,
txapela buruan ta
eskuan makilla,
irten nintzan bizitza
lasai baten billa.
3. Ez naiz arrapalari
ta iñoren etsai.
Au aitortu bear det:
alper samarra bai.
Aziendari lanik
ez diot egin nai.
Edonori lagundu,
nai dedanean jai.
Eskalea soillik da
au egiteko gai.

4. Naiz ta bakarka bizi
eta ez taldean,
ogi koskor bat beti
daramat aldean,
eman oi didatena
laguntza alde an,
zerbait eginda obe
ezer ez aldean.
Argatik maite naute
baserri aldean.

5. Nunai asetzen naute
urdai eta babaz,
bai baratzuri-zopa
ta bai porru-saldaz.
Nere laguntza edo
esker ona lagaz,
batez ere udaran
ta eguzki-galgaz,
lotara zuaizpera
itzuliaz gabaz.

6. Sarri ekintzen alde
bete oi det tripa.
Ez naiz zigarrozale,
batzuetan pipa.
Bizioek ez naute
geiegi kilipa.
Zainduaz katarroa,
gripe eta kika,
aspirina da nere
betiko botika.

7. Zuaitzaren enborra
apaindua untzez,
bere adarrak txoriz
beteak illuntzez.
An nago zoriontsu
eguna agurtzez,
bertsoak kantatu ta
pipa zaarra sutzez.
Gustora nabil, naiz ta
bizi esku-utsez.

8. Iñoiz ez naiz atzendu
dadukadan zoriz,
ez banago're zenbait
bezain lepo lodiz.
Pozik gau izartsu ta
illunabar oriz,
logelaren zuaitza
betetzean txoriz,
txapelaren gaiñera
xiriñak eroriz.

9. Pozez noa bertara,
naiz bide aldapa,
txoriak egan ta ni
oiñez tapa-tapa.
Zuaitza logelaren
babesa ta tapa,
manta pertsiar lodiz
ondo tapa-tapa,
denontzako ez baita
San Martiñen kapa.

10. Astean bein arropa
denen aldaketak,
saiatzen naiz txukuntzen
dauzkadan trepetak.
Errekaren uretan
ditut ariketak:
soiña eta soiñeko
txalma-garbiketak,
bizar luzea moztu
ta bakarrizketak.

11. Txorieri banatuz
ainbat ogi-apur
ta itz egiten diet
luze edo labur.
Bestalde, lagun ditut
makina bat zakur,
munduak jakin dezan
ez naizela lapur.
Argatik egiten dit
edozeiñek agur.

12. Udazkenean sarri
nijoa mendira,
perretxiko biltzera
goiko pagadira,
eramateko maite
nauten alderdira.
Eskale au bizi da
aurrera begira,
neguan aterpeak
lortuko badira.

Zarautzen, 2004ko urtarrillean

Zarauzko Euskal Jaia

Zarauzko Euskal Jaia ingurumari auetako euskal jairik zaarrena edo zaarrenetakoa omen da. Bejondeiola. Saiatuko gera gazte iraun arazten.

Denok badakizue euskal jaiaren ardatz nagusienetakoa zer dan: janzkera. Abarkak artillezko galtzerdiekin, galtza urdin, gerriko beltza, bruxa beltza edo argia, txapela beltza, eta bastoitzoren bat, urtez aurrerratuak gaudenontzat beintzat. Esate baterako, garai batean baserritarrak ferira eraman oi zuten jantzia gutxi gorabeera.

Aaztu egin zait: txalekoa ere bai, eta lepo-zapia. Leenago gaizki janzten omen giñan. Zakurraren biboliña! Pentsa: gaur egun txalekoa dotore bear danean janzten da. Ezkontzetarako eta orrela. Neuk ere jantzi berria det, gaiñera. Nere besoetako illoba Karmeleren ezkontzarako, ain zuzen.

Abarka-galtzerdiak baiño oiñera ederragorik! Ondo jantziak badaramazki beintzat. Ortan kontuak! Orain, jende askok ez daki abarka-galtzerdiak ondo janzten. Nik ez diet errurik bota nai, baiña pena aundia artzen det.

Artzaien oiñera, abarka-galtzerdiak dira. Dantzarienak ere bai. Mendian jokatu bearreko lasterkapustuetako ere ez dira txarrenak. Giro leorrerako oiñera gozoa eta lijera da ori. Nik Erromara joan bear banu ere, abarka-galtzerdiekin joango nintzake. Pozik, gaiñera. Zer, ba? Zeren lotsa dauka orrek, Aita Santuaren aurrera joateko ere? Igual, sekula ez zitu en ikusiko-eta.

Bitxikeria bezela esan dezaket neuk ere andre-gaia abarkak soiñean nituela billatu nuela. Eta

berak ere ala zituen: abarkak soiñean. Zergatik? Zarauzko Euskal Jai eguna zalako. Leenengo aldiz egun artan lagundu nion etxera illunabarrean. Baiña illunabarrean, e? Ez, gauean. Leendik, erromerian pare bat aldiz ikusia neukan. Nere artean: "Ño! Xudur-luze, begi-beltx orrengana noizbait inguratu bear diat, ba, nik". Noiz izango, eta Zarauzko Euskal Jai egunean. *Txurra-txurra* deitzen genion Lambreta txiki arekin zintzo asko eraman nuen. Eta gaur arte. Ez da gutxi. Orain dala berrogei urte izan zan ori: 1964ko iraillaren bederatzian. Zenbat euri egin duen geroztik!

Bearbada, urrutiegira joan naiz. Ez neukan Erromaraiño joan bearrik Zarauzko Euskal Jaiaz idazteko. Baiña oiñera orrekin edozein lekutara, eta kito.

Ni pentsatzen egon izan naiz, eta dendarientzat ere ez da gaizki etorriko orrelako jaiera bat, Zarautza bezelako erri dexente batean. Gaur egun Zarautzak ogeita iru edo lau milla biztanle baldin baditu, ea zenbat oiñetako eta trapu saldu dezaketen gure dendariak.

Ori ondo dago. Baiña erreparatzea ere bai. Ez zera: erabili eta bazterrera bota; edo urrengo urtean beariko duenik pentsatu gabe, edozein zirrikitutan sartu. Gero zera: betiko galderak, bear diran garaian.

-Ama, nun dira nere baserritar arropak?

Eta amak ere, betiko erantzuna:

-Jaso al ituan azkena, Gabon eskean erabili ituan? Kaikua! Orrela ikasiko dek.

-Jo, ama, ez orrela jarri. Olagarro-zopa egiten lagunduko dizut. Eta, gaiñera, ez dizut diru askorik eskatuko. Eta, arratsaldean, biok dantzatuko degu fandango bat, Iñurritzako plazan.

–Ara! Nik aterako diat iri fandangoa! Jotzen baaut paelarekin buruan, ura izango dek egun guztirako txapela beltza. Zer demontre aiz i orrelakoa? Beti berdin.

Baiña, azkenean, ama beti ama.

Ez pentsa auek gezurak diranik, e? Nik kontuak etxetik ateratzen ditut. Eta ziur nago beste zenbait sukaldetan ere antzeko kontuak izango dirala, Euskal Jai goizean edo aurreko egunetan.

Au ere esan bear da, ordea: bai beste aldera ere, makiña bat etxetan. Txukun asko aldez aurretik jarrita, amari gerra asko eman gabe. Bakoitza nolakoa dan, or dago aldea.

Dana dala, etxean jenderik onena izanda ere, geien zigortua beti etxeakoandrea da orrelako egunetan. Aurrena, arropa-kontuak dirala. Gero, eguneko janaria prestatzea dala. Etxean umerik badin bada ere, geien arduratuko dana etxeakoandrea. Arratsaldez pare bat ordu izango ditu, geienez ere, atse-dentzeko edo buelta bat emateko.

Ez, ez, etxeakoandre maite. Zuk ez dezu merezi orrenbeste zigor. Zeure gisa antola ezazu, iñori kasorik egin gabe, Euskal Jai egunerako janari-kontua.

Besterik ezean, erriko etxeakoandreek antolatu ezazue billera errikoia, eta ea ados jartzen zeraten, janaria prestatzen duten etxe oietara eskatzeko etxe bakoitzerako pertzakada bana gixatu. Eta jandakoan, pixatu. Eta ontzia garbitzera norbaiti abixatu.

Etxekoandre, urrengo urtean, Euskal Jai egunean, zu ere goizetik kalera. Aufi! Altza porru.

1. Iraillaren bederatzia
ezin aaztu sekula.
Zarautzen Euskal Jaia oi degu
egun aundi ta mardula.
Eguraldia ere uste det
portatu bear zaigula.
Ea ba ondo pasatzen degun,
pakea buru degula.

2. Goiza alaitzen *tulun* ta *tulun*
zortzi-amar bat dunbero,
ardi-laruzko jantziarekin
datozkigunak urtero.
Kalejiraren trikiti-otsa,
euren adar ta pandero.
Dagoeneko bota dituzte
bi dozena itxafero.

3. Gazte jendea goiz jeiki da gaur.
Zenbat baserritar planta!
“Bruxa zimurra dago ba, ama.
Tori plantxa eta manta.
Nik bitartean zurituko det
dozenerdi bat patata.
Muxua ere emango dizut,
diru asko ez det falta”.

4. Dantzariantzat leiaketa da
erriko plaza zaarrear,
trikitiaren konpasetara,
mantsoan ta azkarrear.
Zeiñen airoso dantzatzen duten
ainbat jenderen aurrean,
krixkitin eta *kraxkitin* joaz
alaitasun ederrear!

5. Eta, nola ez, aureskua ere,
erri-oitura kuttuna,
ankak burua baiño gorago,
dantza polit ta txukuna.
Piripi-piru txistua eta
ttunttulun-ttulun ttunttuna.
Ori ikasi duena ez da
tontoa edo tuntuna.

6. Lege zaarreko ezkontza ere
ba omen degu Munuan,
lekuko gisa erri osoa
dutelarik inguruan.
Oso ederra egin oi dute,
nik bein ikusi bait nuan,
eta gaiñera ez omen daude
ezkondutako damuan.

7. *Ai-ai-ai-ai-ai* oiukatzer
Yolanda eta Joanjo.
Irrintzi oiek ez ote ziran
Getariraiño joango?
Soiñulariak *tibiribiri*,
trikitixa ta fandango.
Gaur dantza egin ez duenikan
kalean ez da izango.

8. Begira zein en gurdi politak
aruntz ta onuntz biraka,
ta idi-pare gorri-gorriak
gurditxoari tiraka.
Beren jabeek txakoliñari
tragoak berriz binaka.
Idiak lasai baiña itzaiak
asiak daude indarka.

9. Bazkalondoan Iñurritzara.
Ango neska ta mutilla!
Bai etxeko ta bai kanpokoak
al dakit ba zenbat milla.
Zuaizpeetan etzanda asko,
dantzan dantzari abilla.
Esango nuke auxe degula
euskal jai onen gurpilla.
10. Gaur zoriontsu badabil emen
neska ta mutil gazterik.
Ez zaigu falta aiton-amonik
eta senar-emazterik.
Billobatxoak ere saltoka
badabilkite naasterik.
Etxean ez zan geratuko gaur
txori txikia besterik.
11. Jendeak ez du presa aundirik
erri aldera joateko.
“Zurrutatikan ez gaude gaizki,
presta gaitezen jateko.
Afarirako eska ditzagun
iruna ogitarteko.
Orrela ondo geratzen gera
goizeko laurak arteko.”
12. Iñurritzatik berriro ere
kalejiraren pasara.
Korruan eta salto egiñaz
jendea franko pasa da.
Ogitarteko ederrak janda
afalondoko dantzara.
Aupa, rubia; aupa, morena.
Goazen musika-plazara.

13. Txapelak ere galdu zaizkigu,
lepo-zapiak biurri.
Kanpandorrear zer ordu diran
ere ezin irakurri.
Leen kemenak bagenituen,
orain aiek ere urri.
Iepa, mutillak, bagaituk eta
eutsi goiari, Biurri.
14. Ondo aseak bagiñan ere
auldadea goizaldera.
Batxuri-zopa jatera goazen
soziedade batera.
Betek "puufa" ta besteak ezetz,
txorimaloen antzera.
Derrigortuta ez zegok iñor:
mozkortu aala etxera.
15. Zenbat botilla sagardo ustu
ote ditugu, auskalo!
Erdi txispatu gerala ere
ortik dabil bolo-bolo.
"Aupa, Nekane, jo trikitixa;
bota bertsoa, Bartolo".
Gaurko eguna gurea da ta
biar egingo degu lo.
16. Ia naikoa izango da, bai,
bostak ez dira aparte.
Aita ta amak onuzkeroxe
jeikitzeaz bear dute.
Ondo pasea konta dezagun,
euskal jai zaar au bitarte.
Istorirako bat geiago ta
urrengo urtera arte.

Zarautzen, 2004ko neguan

Beranduko aitortzak

Idaztera noan onek ipuiaren antza dauka. Ala izango aal da beintzat! Orrelako zerbait entzuna nago ni. Bestela ere gerta ezin litekeena ez da izango, baiña ez gertatzea obe.

Albotik begira jarrita, askotan gauzak politikak ematen dute. Baiña norbere etxean ezustekoren bat gertatzen bada, orduan izaten ditugu komediak eta bi.

Ipuin antzeko onen gertaera ondoren datozen amabi bertsoan azaltzen da. Aal dan erarik irrigarrienean jartzen saiatu naiz, gaiñera. Kantatzeko doiñua ere, ustez, bertsoei dagokien erakoa izendatu det. Baiña zenbait aurreiritzi jartzeko ere lekua badagoela iruditzen zait.

Batez ere, aita Pelloren lekuari begira jarrita. Etxean ez dakitela, nunbait isilkako alaba bat baldin badu, eta gero emazte Martxelinak eta biak izandako Gaizka semeak neska ura andregai egiten duela ikustean... Jarri, jarri aita Pelloren lekuan! Bai. Bere baitan esango zuen: "Ba! Auekin oraindik zerikusi aundia zegok. Igual ez ditek aurrera jarraituko eta ez dezadan nere burua trumoitu". Baiña ezkontzera dijoazela esaten diotenean? Eta amak etxera artzea nai duela ikusten duenean? Orduan, bai. Orduan, trumoiak ez ezik, tximistak ere bazetozkion.

Bestalde, jarri gaitzen ama Martxelinaren lekuan, bazekielarik senarraren gertaeraren berri, eta senarrak ez emaztearena. O! Amaren egoera ederra goa eta dotoreagoa zan, aitarenarekin alderatuta. Dena bazekien. Lasai ezkondu zitezkeela ere bai, Gaizka bere senarrarena ez baldin bazan.

Esan oi da emakumeak koska asko berdintzen dituela. Gerora aita ere zenbat poztu ote zan kanpoan zuen Miriam alaba polit ura etxean ikusita! Orra gauzak kitoan eta egoki.

Trapu zaarrak astintzen

Doiñua: *Txantxibiri, txantxibiri, gabiltzanean,
Elorrioko kalean...*

1. *Semea*: Kaixo, ama; kaixo, aita;
badakarkit ba
albiste epel-epela.
Badakizue ni ta Miriam
maitemindurik gaudela.
Ori dala-ta zuek leenago
egin zenuten bezela,
jakin zazue udazkenean
ezkontzera goazela.
2. *Aita*: Ara, seme, udazkena
elduko zaiguk
nai baiño leen aldizka.
Orretarako oraindik oso
gazteak zaudete, Gaizka.
Eta gaiñera Miriam bezain
polita dek bere aizpa.
Bat ezagutu ta berarekin
nola ezkonduko aiz, ba?
3. *Semea*: Miriamen maitasunez
eta argazkiz
bete zait biotz-albuna,
ta gorrotatu nezaket, aita,
bere aurkako jarduna.
Badakit: ez da aberatsa ta
ni ere ez naiz zalduna.
Baiña neronek aukeratzen det
maitea eta laguna.

4. *Ama:* Aizu, Pello, ezkontzeko
oztoporen bat
ez diogu, ba, jarriko?
Zergatik zaude orren urduri
eta itxura larriko?
Itsusia ta politari zuk
ez diozu igarriko.
Neretzat ere lagun berria
ez da gaizki etorriko.

5. *Semea:* Aita, zure aitzakiak
grazia zeukan
esan didazun moduan,
baiña gustoak ta koloreak
ezberdin dira munduan.
Zerorrek egin zenuena're
aipa dezagun orduan:
izeba Lurdes politago da
ta ama artu zenduan.

6. *Ama:* Etxe ontan laurontzako
badek lekua,
nai badezue ikusi.
Ta ik mesedez ez didak berriz
deituko Mari-itsusi.
Traje berria nai baldin badek,
pajarita eta guzi.
Baiña au argi gera dedilla:
ni nauk emengo nagusi.

7. *Aita*: Martxelina, kukurruku
joaz zabilta
gandorra gora jasota,
baiña geurekin artzeak dakar
famiariaren porrota.
Bestalde, berriz, nola demontre
etxetik kanpora bota,
arrautz pare bat frejitzen ere
ez luke asmatuko-ta?

8. *Semea*: Iñoiz baiño zimurrago
darabilzkizu
bekokia ta sudurra.
Gure ezkontzaz ez zaude ados,
zeri diozu beldurra?
Miriam neska euskalduna da,
maitagarria, samurra.
Arren onartu zaiozu, aita,
egingo dizun agurra.

9. *Aita*: Isillean azalpen bat
zor diat, seme,
ez baldin bada berandu.
Une ontara eldu izanak
ez natxiok zoriondu.
Nere okerra zegok tartean,
baneki nola konpondu:
Miriam ire arreba dala,
ezin zerate ezkondu!

10. *Semea*: Pekatua ez da baiña
nola isilik
egon okerra eginda?
Au amak jakin bearra dauka,
neuk esango diot, *di-da*.
Ala ta guztiz barkatzen dizut,
barkatzea komeni da,
munduko neska politenaren
aita zerala jakinda.

11. *Ama*: Ara, Gaizka, jakin zak au:
gure etxean
isilik zaudek fallo bi,
ta ik tirako diek aritik
dauden bi korapillori.
Joan daneko aspaldian nik
banekien, motel, ori.
Baiña i ez aiz bere semea,
esaiok aita Pellori.

12. *Ama*: Jator esan omen diok,
kitoan zaude
aitaordeko antzera.
Egia al dek geratu dala
isilla ta biotz bera?
Ikusten danez dena konpondu,
oa lasai ezkontzera.
Berak kanpoan laga zuena
ik ekarri zak etxera.

Zarautzen, 2004ko neguan

Donostiako Poliklinikan

Bi milla eta iruko urriaren amaseian, goizeko zortzietarako Donostiako Poliklinikan sartu nintzan, emazte Maria Pilar lagun nuela, mokorreko ebakuntza egitera, irurogeita bi urte nituela.

Egun onak eman ondoren, bear zan lekura aurkeztu nituen nere paperak eta mokorraren argazki illun aiek. Eta artean ondo esnatu gabe zegoen emakume ark:

-Esperen ahí, en la fila.

Esan nion Pilarri:

-Emen jarri gaituzte, ganaduen iltokian txekorrak bezela, errestan.

-Zaude isilik, gizona, iñork entzunda ere.

Alako batean inguratu zan, eskuetan nere mediku-informearekin, neskato panpoxa bat. Ondo jantzia, ondo esnatua, ezpaiñak pintatu berria zirudien, mototsa dotore jaso.

-Nikolas Zendoia?

-Ni.

-Ande. Síganme. Les llevo a la habitación. Es la primera planta, habitación 135, cama número 2.

Igogaillu dotorea. Pasillo zabal batean aurrera, nik baño pausaje ariñagoa eraman zuen gure gidari zijoan neskato ark. Ño! Ura zan ipur-txontxorra mugitu bearra, eta aren takoi-otsa.

Iritsi giñan, ba, gure 135 artara. Atea *kosk-kosk*, eta barrura.

Argi txiki bat piztu zigun, beste oean zegoen zumarragatar ura ez endredatzearren. Ala, esan zizki-

gun esan bearrekoak: argiak nundik pizten ziran, eta abar.

-De aquí, el pequeño. Y de aquí, el grande. Esto, el mando de la cama. Este botón rojo, para llamar a las enfermeras. Aquí, el armario. Y aquí, el baño. Encima de la mesilla, el teléfono. Buena suerte, y hasta luego.

Esan nion Pilarri:

-Oearekin naiko suerte badegu. Leio ondokoa, beintzat.

Asi nintzan pertsiana jasotzen, eta alboko oeko gizonak:

-Leioa ez irekitzeko esan ziguten atzo, kanpoko fatxada garbitzen ari dirala-eta.

“¡Kauen sos! Emen ere ni etorri zain egongo zituan obran asteko”.

An geunden, ba, gela erdi illunean pentsakor. Ezin, ba, piztu argi aundia. Zera: albokoaren emaztea artean erdi-lotan bait zegoen, pijama eta guzti, oe alboko besaulkian.

Esan nion andreari:

-Nere billa oraindik ez dira etorriko, eta lo pixka bat egingo al degu? Oe zuria gurea da.

-Baita zera ere!


-A! Zeuk pentsatu. Badakizu puxka batean nerekin lo egiterik ez dezula izango.

Alboan zeuden andre-gizonak ere irriparre egin ziguten. Orrelako broma-aldi bat pasa genuen, pixka bat lasaitzearren-edo.

Andik ordu erdi batera, *dan-dan-dan*, gelako atea norbaitek.

“Bazetorrek kamillero kirtenen bat”.

Ireki atea, *ri-ra*, eta an etorri zan gizon fuerte bat, bizar aundiarekin, gurpildun silla batekin.



Biloba Irantzurekin.

Argazkia: Nerea Ilarramendi

-Zein da emen Nikolas?

-Ni.

-Eseri, eseri emen. Eta goazen raiosetara, plaka ateratzera.

Eseritakoan, begira-begira jarri eta:

-I Zendoia aiz?

-Bai. Nik abizena Zendoia diat.

-Bertsotan egiteko leku txarrera etorri aiz, motel.

-Orixe izango diat, ba, egin dezakedan bakarra. Gaiñontzean, geldi egon bearko diat emen-eta.

Orrela jeitsi giñan, kontu-kontari, raiosetara. Kamillero-lanaz gain, beste afizio batzuk bazituela berak: errietako euskal jai-egunetan, *tulun-tulun*, ipurgaiñeko dunba-jole orietakoa zala.

-Kontxo! Orduan gu bizi geran Zarautzen ere izango intzan?

-Bai. Amar urte jarraian jo diat Zarautzen.

Eldu giñan raiosetako ate ondora. Eta an laga ninduen, gela otz batean.

-Laster etorriko nauk billa.

Bereala eraman ninduen barrura bata txuriakiko emakume batek.

-Tumbese en esta mesa, boca arriba. Súbase la camisa y bájese los pantalones.

Jarri nintzan, ba, nere zapatilla berri eta guzti. Onduantxe gelan jantziak.

-¿Tiene las zapatillas limpias?

-Las acabo de estrenar.

-Entonces, vale.

Asi zan. Leenengo, goiko aparatua ustez erdiratu zuen. Gero, maaiaren karroa aruntz-onuntz. Baiña ezin zuen gajoak. Trabatuta geratzen zitzaion. Eta galdetu nion:

-¿Qué? ¿Tiene el carro jodido o qué?

-Tiene algún juego de bolas fastidiado.

-Yo también. Si no, no estaría aquí.

-Ahora, quieto: sin respirar.

-...

-Ya. Puede irse.

Berriro atera ninduen gela otzera. Berriro artu ninduen dunbero bizardunak, eta 135 gelara.

Esan nien gelan zeudenei:

-Ederki asi gera.

-Zer, ba?

-Orma garbitzea ez ezik, raiosetako maaiak ere badauka lijertu baten premia.

Zumarragatarrak, irriparretsu, zioen:

-Lasai, gizona. Emengo akats geiagorekin ere oartuko zera-eta. Oe auek ere egundoko otsa ateratzen dute.

Baiña ori ez nion aintzakotzat artu.

Urrengo nor etorriko, eta *kas-kask* atea, eta barrura.

-El barbero. Vamos a afeitarse la cadera izquierda, y arreglar un poco.

Nere artean: "Ik arreglatze ezkeroz, ez zegok zaila".

Joan zan, ba, ura ere, eta urduritzen asia nengoen. Ordurako, an eman zidaten guardia zibil jantziaren koloreko bata berde arin ura jantzia neukan.

Urrengo etorri zana, aterik jo gabe barrura. Kamillero iar bat. Aren txaketan beste alako bat kabituko zan.

-Venga. Vamos, Nikolas. Te toca.

Orduantxe, moztu gabe geratutako bizarrak tente nituen, ba. Ark Dunbasek baiña gela otzagoan laga

ninduen. Ebakuntza egin bear zidan medikua, Migel Zabaleta jauna, an ari zan txanoa, musu-zapia eta eskuetakoak janzten, serio-serio. Goierritarra izatez. Gizon sendoa.

Bi neska gazte inguratu zitzaizkidan, biak euskaldunak, aiek ere beren bata berdeekin, medikua bezela -bere laguntzailleak bait ziran-, rubia eta morena.

-Kaixo, Nikolas. Zure zain geunden.

Zer neska alaiak! Aien kontua esan bearra! Ezagun zuten ez zutela leenengo txekor-iltzea.

-Ea, ba. Maai onetan etzan zaitez, albo batera begira.

Maai estu, alu bat. Luzean eta zabaleran ez nintzan kabitzen.

-Orain kuzkurtu egin bear dezuz, belaunekin kokotsa jotzeraiño.

-Alajaiña! Ez didazue gutxi eskatzen. Orrenbeste doblatzeko moduan banengo, ez nintzan onuntz etorriko.

Medikuari ere irria atera zitzaion.

-Aal dezun guztia kuzkurtu, beintzat. Katua umeak egiten bezela, bizkarrezurra okertuta, indizio txiki bat jartzeko.

Ez zidaten berealakoan il nere anka ezkerra. Nik uste baiño sanoagoa egongo zan.

Esan nien:

-Nik ez det maillu-otsik eta zerra-otsik entzun nai, e?

Neska aiek:

-Aizu. Guk badakigu bertsolariak ondo tratatzen, e?

-Lo goxoan jarriko zaitugu. Zu lasai, Nikolas.

Nere ustez, segituan:

-Zer? Ez al dezu esnatu bear?

-Dena eginda dago- zioten neska aiek.

Medikuak ere:

-Kaixo, gizon. Dena ondo atera da, Nikolas. Orain gelara jasoko zaituzte, eta laster joango naiz zer moduz zauden ikustera.

-Baiña zer esaten ari zerate? Oraintxe negoen katua umeak egiten bezela eta...

-Bai. Ori zala ia lau ordu dira. Siesta ederra egin dezu.

Neska jator aiek aurpegian igurtzitzen ninduten.

Bizi guztian eskertuko diet ia lau ordutan lo gozoan eduki nindutelako.

Kamillero iarrak an jaso ninduen berriro 135era. Zumarragatarrak, ordurako, etxera joanak, alta artuta. Leioa ere irekita zeukaten. Emaztea an zegoen nere zain, neu baiño zuriago. Musu baten ondoren:

-Zenbat traste dakarkizu, gizona?

Asi nintzan begira, eta mokorreko ebakitik, sonda bat tarro batera. Txakilletik, beste bat. Besotik gora, beste bi, beren txismetara.

Zer egin ote zidaten neri? Aul samarra aurkitzen nintzan. Bai, ba: amaikak eta erdietatik irurak eta erdietara ilda eduki bait ninduten.

Erizain euskaldunak ere asi zitzaizkidan bisitak egiten alai asko. Aiek badakite gaixo ebaki berria nola tratatu.

-Niko, gaur ez dizugu meriendarik ekarriko.

-Egoki itz egin didazu, gazte. Ez zait ajola, afaria ekartzen badidazue.

Baita ekarri ere komeni zitzaidan afari gozoa.

Pilar, arrituta. Leenago, sueroarekin zegoenari ez zitzaion janik ematen. Nik, beintzat, berpiztu eta bost ordura afaldu egin nuen.

Neretzat txarrena izan zan bi gau eta bi egun-edo gora begira geldi egon bear ura. Irugarren egunean kendu zizkidaten kable guztiak. Oea ere gora eta beera mugi nezakeela-eta, nere artean: "ondo zegok".

Andrea ere pozik, ori entzunda.

Asi nintzan, ba, zintzilik zegoen oearen mandoa artuta botoi urdin ari zapaltzen. Eta orduan gogoratu nintzan zumarragatarrak zioenaz. Ura kirriki-karrika, gora eta beera mugitzean. Garai batean gurdi-ardatzaren txistua bezelakoa. Sekula santan grasa jarri gabeko tramankuluak ziruditen itxura politeko oe zuri aiek. Arrazoi zuen, bai, zumarragatarrak.

Andik iru egunetara, Donostiako mutil gazte bat ekarri ziguten aldameneko oera, eskalaketan zebillela erori eta zauriturik, "ai ene" batean.

Jarri zuten, beintzat, ura ere soseguz eta atsedean artzen. Pixka bat lasaitu zanean:

-Bonita habitación, ¿eh?

-Sí -esan nion-. Con música y todo.

-¿De dónde se pone, pues?

-Apriétale el botón azul al mando de la cama, y verás.

Bestalde, aspertzeko astirik ez geneukan. Denbora-pasa eziña izaten dala leku orietan, baina bai zera! Goizean zortzietarako asten ziran:

-Buenos días. El termómetro.

Andik ordu erdira:

-El pinchazo- indizioa, alegia.

Bederatzietan, gosaria. Amarretan, oe-aldaketa. Sillara ateratzeko gai zana, sillara. Eta oean geratzen giñenoi, berriz:

-Venga. Primero, limpieza.

Eta an asten ziran pare bat pazientzia gutxiko alde guztietatik jaboia eta ur-zipriztiñak zabalduz eta txa-

killa batera eta bestera astinduz. Bai zakarrak, Jesus! Aiekin ez dek, beintzat, iñor enamoratuko-eta.

Amar t'erdietan, gela-garbitzaillea, baldea, trapua eta pare bat erratzekin. Ark ere ordu erdi bat pasatzen zuen zertan ari zan ez zekiela. Amabi eta erdietan, bazkaria. Akordatzerako, goizak ies egiten zigun ezer egin gabe. Bazkalonodan, loxusta bat egiteko astia. Orixo geneukan. Lau eta erdietan, kafesnea. Seietan, termometro ditsoso ura. Zortzietan, afaria.

Gaua geratzen zitzaigun luze samarra eta aspergarria. Baiña oeak nola asko mugitu bear izaten genituen, gau guztia musikarekin. Baiña musika tristea zuan ura, mutillak.

Leentxeago nioen "termometro ditsoso ura". Ez dakit au sinistuko didazuen, baiña egitan diozuet. Amaika egunetan, egunean bi aldiz, ogeita bi alditan jarri banuen termometroa, sei aldiz bakarrik eduki nuen ondo. Beste guztietan, bizkar azpitik edota ipurdi azpitik jasotzen zidaten. Erizain euskaldun polit batek ala zioen bein:

-Marka da gero zurea, e! Beti berdin.

Ez dakit nola ez nituen austen.

Illaren emeretzia, igandea. Eguraldia asko oztu zuen. Eta ondorengo egunak ere oso otzak zetozenez, gure poliklinika orretan, berogailluak jarri zizkiguten martxan. Sekulako beroa. Nik, gaiñera, oearen eta leioaren ondoan neukan; eta pentsa. Itxi edo tamaiñan jarri bear zala-eta, an ibili ziran iru edo lau erizain. Ez zan ixten, nunbait. Ezta tamañan jarri ere. Ark ere "jodido" edo zerbait bazeukan. Kanean zazpi-zortzi gradu eta, gu an leioa zabalik, berogaillua topera zegoelako.

Urrengo goizean etorri zan buzodun bat, llabe inglesarekin. Ez zeukala beste erremediorik, eta uraren pasoa itxi bearko ziola.

“Itxi iok, motel. Eta nai badek, soldeatu.”

Denak nere parean gertatu bearra ere!

Erderaz esaten dan bezela, “a trancas y a barrancas” nere egunak bazijoazen aurrera. Makulu eta guzti, an nenbillen pasillo zabal aietan. Ni 135era eramán ninduen panpoxa ura ikusi nai eta, puñetas. Ez nuela geiago ikusi.

Illaren ogeita seia, urrengo igandea. Artean, eguraldi otzak egiten jarraitzen zuen. Asko zerate orren lekuko. Ba, igande arratsalde artan, leioa ixten ez zala geratu zitzaigun. Nere oe ondoko leio santu ura! “Otro jodido”. Norbaitek pentsa lezake: “Nikolas adarra jotzen ari zaigu. Poliklinika batean orrenbeste aberia?”. Bai, lagun. Egitan ari naiz. Oraindik geiago esango det. Urrengo eguna, asteleena. Ni etxera aterá nintzanean alta artuta, bere buzo urdiñarekin an geratu zan leio-konpontzaillea.

Ez nadilla beartu berriz Poliklinikan egon bear izatera. Baiña, joan bear badet, eramango det taillerreko erreminta-kaja eta potekada bat grasa. Baita *karabina* edo *baliña* deitzen zaion arma txiki orietako bat ere.

Au asko esatea izango da. Bai: geitxo, bearbada. Baiña zer inbidia ematen zidaten Poliklinika atzeko berdegune txiki artara etortzen ziran xoxo, birigarro eta untxi aiek, azpialdeko basotik. Makulua luzatuta egoten nintzaien leiotik.

Beste oeko mutillak, Txemak:

–Dispara, hombre. Dispara de una vez.

Auek, ondo samar geundeneko bromak ziran. Zerbait egin bear, ba!

Iritsi zan asteleena: illaren ogeita zazpia. Nere mediku Zabaleta jaunak goizean amarretarako egin zidan bisita. Baita arratsaldean etxera joateko alta eman ere. Ez zeukan asteleen aundirik. Begiak argi zeuzkan ark. Ni, berriz, pozik etxera joateko, eskuan paperarekin.

Goiz artan ere, an nenbillen pasillo zabal aietan, nere makulu, bata urdin eta pijama, aruntz eta onuntz. Eta an, eskaillera-buruko zabalune batean, norbaitzuk ari ziran telebistako kamara batzuk jar-tzen.

Ango kablea, argi-pantailla eta ango trastea! Gu, geletatik irtenda, pasean genbiltzan asko, bazter ba-tetik beraiei begira. Orrela geundela, an kable tarte-tik, norbaitek deadar egin zidan:

–E, Nikolas! Zer egiten dek or?

Nik ez nuen ezagutu.

Ala, neska bat bidali zidaten.

–Kaixo.

Eta:

–Kaixo.

–Aizu. Zu bertsolaria zerala esan didate.

–Afizioa izan det. Baiña, orain, bertsoak idatzi geiago egiten ditut.

–Ederki. Ori oso ondo dago.

–Eta zuek zer egiten dezue emen, jakin aal badai-teke?

–“Goenkale” programarako grabaketak egiten ari gera. Eta, emen, agertzen zaizkigun gaixo batzuen bearra ere izaten degu. Eta eskertzen diegu beraien portaera. Ajola al zaizu, Nikolas? Zuk ere pasarte bat eskeiniko al diguzu?

–Nik egin dezakedana baldin bada...

–Bai. Alde batetik bestera pasatzea izango da, zeure makulu eta guzti, zauden bezela.

–Ori besterik ez bada, egingo diñagu, ba, neska.

–Zuk itxaron or, guk esan arte. Eta, keiñu egiten dizugunean, emendik ara joan bear dezu. Eta gero, andik onuntza. Baiña zu, lasai. Gaizki aterako balitz, berriz egingo genuke.

-Bale.

Alako batean:

-Isilik! Grabando.

Eta abiatzeko keiñua.

Ordenatuta zegoen jendea an abiatu giñan, bakoitza alde banatara. Erizain batzuk ere bai, ara eta ona. Leonor ere an agertu zan erdira, norbaiten zai balego bezela... Eta orrela egin genuen gure *grabando*. Gaizki edo ondo.

Oroitzapenak beintzat era askotakoak ekarri nituen Donostiako Poliklinikatik. Eta ez nago an egonaren damutan. Ea, ba, indartzen naizen.

Migel Zabaleta jaunari

Mokorra nuen gaizki,
gastatua dana.
Zorionez ekarri
naute zuregana.
Badakit ebakuntza
ondo daukadana.
Badet eskerrak nola
ta nori emana.
Diruz ez da ordaintzen
medikuen lana.

Zuk nere ebakuntzan
artu dezu parte.
Eta, gaiñera, miñik
eman gabe bate.
Esku oietan bada
bear ainbat arte.
Artea bakarrik ez:
zenbat borondate!
Jainkoaren pareko
gizonak zerate.

Sendatuko zenuen
makiña bat gaitz-ta,
ta nere antzekoak
ziurrenik maiz-ta,
guztia eskeñiaz,
zetzua ta bista,
aurrera ere jarrai
izaten artista,
oraindik zuregana
beartuko naiz-ta.

Zarautzen, 2004ko neguan

Maitia, nun zira?

Amets egitea ere aske omen da. Lo gaudenean ala esna gaudenean? Lotako ametsa ez da lo egitea, noski. An zerbait badago esna. Baiña nik esango nuke esna gaudenean askosaz amets geiago egiten degula. Bizitza, esna gaudenean amesten degu. Akabo, bestela. Ala ere naiko lotan arrapatzen gaitu.

Ilusioak esna gaudela egin bear ditugu. Lanerako, jan-edanerako, jai egiteko, oporretarako, maitasunerako eta abar. Batzuek diote lotan ametsetan egiten dan maitasun-jolasa izaten dala goxoena. Tonto arraioa!

Baiña, tira. Laga dezagun alde batera, eta jarrai dezadan txukun.

Dana dala, zenbait oroitzapen polit, edo ez ain polit, ondo esna gaudela amets biurtzea edo norberaren aalegiñez edertzea, osatzea eta une berean idaztea buruari lan polit bat eskeintzea dala iruditzen zait.

Orrelako zerbait egin det, ba, nik ere. Gazteagoa izan banintz, akaso obeto egingo nuen. Baiña neure errua izango da berandu akordatua. Gero besteari esango diot "tontoa".

1. Txapelketa bateko
bertsoen ondotik
nun ikusi zintudan
gogora datorkit.
Goiz artan zeundelako
lirain bezain polit,
eman dit zer pentsatu
eta emango dit.

2. Jende asko zebillen
jaieraren jiran,
ta zu ere tartean,
nolako distiran!
Bizitza onek begi
bi eman zizkidan,
ta biak zuregana
joan zitzaizkidan.

3. Lilluragarri zeunden,
ene andereño,
soiñeko beltz polit bat
belaunetaraiño.
Barka begiratua
orrenbesteraíño,
neretzat ez ziñala
banekien baiño.

4. Zure irri eztia
iritsi zan nigan,
eguzki-printza bezain
zuzen zetorkidan.
Biotzean kilimak
eragin zizkidan
ta maitemiña piztu
arazi zenidan.

5. Geroko egunetan
au esaten nuen:
zergatik izketarik
izan ez genuen.
Zure distirak izar
bat ematen zuen.
Egunez ere argi
egiten zenuen.

6. Goiz artan jaso nizun
poztasun-irria.
Biotzean dadukat
igeri jarria.
Batzutan atsegiña,
bestetan larria,
baiña nolana ere
kontsolagarria.

7. Goizeko izar argi,
eder ta bizia,
nori egin diozu
diz-diz berezia?
Sufritu det geroztik
zu ez ikusia,
baiña oraindik ez da
amaitu guzia.
8. Leengo egunez bertso-
-liburu batean,
berraurkitu zintudan,
baiña bikotean,
soiñeko txuriz eta
arrosa artean,
ermitatxo bateko
eliza atean.
9. An zeunden argazkian
aurpegi urduriz,
zeure begi politez,
zeure azal guriz,
leen soiñeko beltzez
eta orain txuriz...
Begira egon nintzan
malkoa isuriz.

10. Betorkit uso urdin
mezulariren bat,
loretxo bidali
dezadan zuretzat.
Irri maitakor ura
itzuli neretzat,
galtzear daduzkadan
itxaropenentzat.

11. Amodiozko penak
samingarri dira,
baldin itxaropenik
gabeak badira.
Bizitzan iritsiko
banintz urrutira,
galdezka joango naiz:
“maitia, nun zira?”

Zarautzen, 2005eko maiatzean

Zure argazkia

Izenburu onekin egin arazi dizkidate, ba, amabi Ikanta edo koplak auek. Zortziko nagusiaren neurria dute, doiñua berezia jarri badiet ere.

Aian, gure erri zaar polit orretan, tarteka afariren bat edo beste egin oi degu. Badute gu ondo artzen gaituzten soziedade edo bazkun bat, Alkar izenekoa. Bertan sukaldaritzan aritu oi diran asko oso bertsozaleak dira; eta, bertso batzuk kantatze aldera, afari merkeak egin oi ditugu. Ea aurrerantza maizago egingen ditugun.

Nioena: afari oietako batean esan ziguten Balentin, Joantxo Zulaika eta Mikel Markezek polita litza-tekeela afalondoetan kantatzeko koplak batzuk pape-rean jartzea, pixka bat gitarrarekin lagunduz eta abar kantatzeko. Batek mendiari jartzeko. Besteak itsasoari. Eta:

–Ik, Nikolas, maitasunari-edo argazkiren bat.

“Adin ederra zeukaat nik, maitasunari buruz argazkia egiteko”.

Orrela egiñak dira, iñor izendatu gabe. Nai due-nak beretzat ar ditzala.

1. Dama gaztea, kantuz argazki
bat nai nizuke atera,
zure begien distirara ta
zure gorputz liraiñera.
2. Biotza pozez betetzea da
zurekin itz egitea.
Aots ezitia daukazunez gain,
ederra zera, maitea.
3. Zugana ies egin naiean
dabilkit laztan bat-edo,
zure aurpegi polit orretan
lekurik baldin balego.
4. Zure irriak, zure zotiñak,
sentiberaren neurriak.
Nola bat ala bestea ere
dituzu maitagarriak.
5. Noren petxuan dira bular bi
ain polit eta jasoak?
Ta nola dantzarazten zaituen
darabilkizun pausoak!
6. Bizitzak eman dizun ezkerro
orrenbeste edertasun,
egoak bear zenituen zuk,
aireaz goza dezazun.

7. Itsasoaren urak tantaka
noizbait neurtuko balira,
ez lirateke iritsiko nik
maite zaitudan neurrira.
8. Nunai loreak sortu oi dira
berdegunean barrena,
baiña an ere denetatik bat
izaten da ederrena.
9. Edertasuna arroparekin
ez dezazula izkuta,
edozer janzten dezula ere
ongi emango dizu-ta.
10. Izarra izan baldin baziña
arrats dotore oiena,
ziur zurea izango zala
distirarik politena.
11. Zure argazki au kantatzea
benetan gutxi balitza,
gustora margotuko zintudan
margolaria banintza.
12. Baiña ez nuke eskegi naiko
iñungo orma-iltzean.
Zure baimenik izango banu,
gordeko det biotzean.

Zarautzen, 2005eko ekaiñean

Txakurrari ipurdia garbitu

Oraindik orrelakorik ez nuen ikusi. Txakurrari ipurdia garbitu, alajaiña!

Egunero zerbait berria-edo ikusi edo ikasten omen da. Baiña orretarako, etxetik irten egin bear, jakiña.

Nik ere irteten det etxetik. Zerbait idatzi nai dedanean, gaiñera, leku paketsuen billa joan oi naiz: isiltasun billa. Gaur egun, nunai badaude *parkea* deitzen zaien egonleku politak, beren maai eta guzti. Oietako bat Aiatik gora dagoen Andazarrate gaiñean dago. Eta araxe pozik joan oi naiz.

Baiña, 2005eko ekaiñaren igande arratsalde batean, ez nintzan ba ain gustora geratu. Era guztietako jendea joaten da leku oietara. Edonork du eskubidea: aitona-amona, guraso, aur, gazte eta abar.

Txakurrak ere eramaten dituzte zenbaitzuek: aundi, txiki, txukun, narras..., denetik.

Neri, narrasa ikustea tokatu zitzaidan. Eta beste geiagori ere bai; arratsalde artan, beintzat. Baiña, ori bai: txukuntzen saiatu ez ziranik ezin esango degu. Bestela, irakurri ondoren datozen bertso auek.

1. Joan dan udan, abuztua zan,
jai arratsalde batean,
Andazarrate deitzen diogun
mendi bateko parkean...
An geundelarik lasa,
noski denbora pasa,
freskuran bezain pakean,
bi emakume eta txakur bat
eldu ziren bitartean.
2. “Muy buenas tardes, caballeros” ta
egin ziguten agurra.
Askatu ere katearekin
loturik zuten txakurra.
Joan zan belardira
eta erdi-erdira,
atzamartu zuen lurra...
Ipurdiz beera birak eman ta
luzatu zigun muturra.
3. Neskatilla bat aurreratu zan
ta argazkia atera,
txukun-urruti izango zala
artu bait zion tankera.
Ogei zentimetroko
edo-ta geiagoko
mokordoa, pot, lurrera...
A zer-nolako erregalia
eraman zigun parkera!

4. Ori bakarrik balitz, gaitz erdi.
Ulertzekoa zan, tira!,
jende artera egin ez balu
ondoren ainbeste bira.
Anka bat gora altxa,
pipi egin ta martxa
berak nai zuen tokira...
Txakurrentzako ere komunak
noiz jarriko ote dira?

5. Señorak noizbait dei egin zion:
“A ver, ven aquí, pasota”.
Esku-poltsatik atera zuen
egundoko traste sorta.
Trapu zaar bat aurkitu,
ipurdia garbitu,
isatsa gora jasota...
Au gutxi balitz, lurrin-espraia
atzeko salara bota.

6. Berriro jarri zuten katean.
Aren zaunka ta kalintxa!
Nonbait lotuta egoteari
ark ere bazion intxa.
Koillare rustikoa,
izen ta guztikoa,
txipa eta bere fitxa...
Gaiñera, arra izanik, naiko
nabarmen bere saltxitxa.

7. Parke artara pozik joaten
giñan abuztuz abuztu,
baiña alako txakur narrasik
ez zaigu inoiz arunztu.
Leenengo tripa puztu,
ta gero justu-justu
sudurren aurrean ustu...
Etxean ezetz ala ibili,
egingo nuke apustu.
8. Koillarez deia jasoagatik,
benetako egoskorra.
Berak nai zuen guztia egin,
orretarako pizkorra.
Txipari jaramonik
iñoiz egin dionik
ez derizkiot nik, orra.
Jarri bearako omen diote
telefono mugikorra.
9. Ara, señoras, adi mesedez:
txakur orri irakatsi.
Buru-gogorra izango da, bai,
baiña ala ere ez etsi.
Garbia ta zuzena
bear du bere sena,
atzo, gaur, biar ta etzi...
Jakin dezala anka nun altza
ta ipurdia nun jeitsi.

*Zarautzen, 2005eko ekaiñean
Lazkao Txiki 3. saria, 2005ean*

Ritxar artzaiari bisita

Nere emazteari sarritan entzun izan diot, batez ere nonbaitetik gaztaren bat erosten degunean:

–Kontxo! Gu txikiak giñanean, gure etxean egoten zan artzaiak, ark bai. Ark egiten zuen gazta. Guztiz apartekoa. Orain, iñun ez det aurkitzen alako gaztarik.

–Jesus, emakumea. Kontu ori onezkero milla aldiz aipatu didazu. Eta geroztik ez al dezu bere berririk? Nonbait bizi bada, mereziko luke, ba, bisita bat egi-tea...

–Bai. Biziko da. Oraindik ez luke oso zaarra bear. Ez litzateke zaila izango bere aztarnak ateratzea ere.

–Itz egin ezazu zure aizpekin. Eta arrastorik aurkitzen badezue, uda onetan edozein asteburutan inguratuko giñateke beregana.

Bai saiatu ere dozena erdi bat aizpa Ritxar artzaiaren nundik norakoa aurkitzen. Baita aurkitu ere. Neguan Naparroako Betelun egoten dala. Eta udaran, berriz, Naparroako Lizarragako gaiñean diran bordetako batean, bere artaldearekin eta iru bat ardi-txakurrekin.

Dana dala, nolabait mezu orren bidez asteburu bateko joan-etorria antolatua zuten ezkerro artzai arengana, joan giñan, ba, lau bat senar-emazte, dixosozko Ritxarren borda aldera, Lizarragako gaiñera.

Bidera irtenda zegoen, joan giñanerako. Azkar ezagutu zuten elkar. Aizpa danak musukatu zuten, ba, artzai zaarra, eta agurtze zoragarria izan zan. Aspaldi musurik artu gabe omen zegoen-eta.

Esan zuten makiña bat kontu zaar eta berri, denbora gutxian, elkarri txanda eman eziñik. Denak bate-

ra ere itz egiten zuten. Gu, senarrok, entzule egon
giñan ordubete inguruan, sukalde moduko artan.

Ondo artuak izan giñan, arraiopola! Biotza eskue-
tan zuen artzaia aurkitu genuen Ritxar. Nola ez ge-
nuen, ba, jarriko eguna, urrengo urtean berriro joa-
teko!

Doiñua: *Anaiak gara lapurditarrek*

Dauzkadan joan-etorrietan
ez nabil oso bitxi-ta,
leengo batean egun berean
jarriak neuzkan bi zita.
Baiña bitara iñola ere
ezin nintzan iritsi-ta,
artzai Ritxarri egin naiean
gure aldiko bisita,
joan giñan bixi-bixi ta
leioak zeuzkan itxita.
Oillo loka bat lizar azpian,
beste dozena bat txita.
Bejondaizula, siesta egiñaz
ez zera gaizki bizi-ta.

Borda-etxea dezu aterpe,
zure bizitoki izar,
erdi ageri, erdi gordean,
bere aritz eta lizar,
ingurugune txukun askoa,
jira guztia artxintxar:
sukalde txiki, tximinidun bat,
zartagi, zaato ta pitxar;

izan ere, zu jan-edanean
iñoiz ez bait zera litxar.
Iru txakur, on bat, bi txar:
Xarpa, Potxolo ta Bixar.
Nik galdera bat egingo dizut,
erantzun zaidazu, Ritxar:
emakumea maite izanik,
zergatik zaude mutilzaar?

Artzai on batek merezi ditu
nunaitan leku duiñak:
goi oietako arrats izartsu
ta egun zeru-urdiñak,
arkaitzetako bele txikien
txii-txoo atsegiñak,
ardi elduen dulun-dulunak,
bildotsen txilin-txiliñak,
eguzki-printzek urtzen dituzten
larretako iintz labaiñak,
kirkirren kir-kir-kir fiñak,
udaroko etorkiñak,
elorrantzaren lore txuritan
basatxorien mitiñak...
Luzaro goza zaitzala, Ritxar,
Lizarraga mendigaiñak.

Zarautzen, 2005eko udaran

Aurkibidea

Aurkezpena	7
Ai, Judas!	9
Erbia airera bota	15
Aitona Andres itsututa dago	21
Lazkao Txiki	28
Plaentxiko ojalateroak	30
Dantza	33
Garai bateko astoak	37
Usoa	42
Ujolak naramate	47
Madrilgo pelukeroa	51
Oea	59
Usurbilgo kanpandorrea	63
Arratsik ederrena itsasoari begira	68
Oilloa eltzean	73
Aurra bularrean	76
Bost duroko txapela	81
Garai bateko baserrietako errosarioa	87
Nork bota ote digu lizar gaztea?	93
Asierrek ezin dio itz egin aitonari	99
Iñudea izan nintzan	103
Etxe-txiki ta enarak	110
Sara	114
Guardia zibilla auto stopean	120
Txalaparta	126
Nere lagunak ezin du entzun	131
Josune	135
Zaldi zuriari	139
Kaioa	144
Astoa jo diñagu	148
Amaren bular ximurrak	153
Ene gaztetasun	159
Kaxkagorri	163

Pobre de mí	169
Kaixo, Erramun	174
Zertarako ezkondu?	178
Eskalea	184
Zarauzko Euskal Jaia	189
Beranduko aitortzak	196
Donostiako Poliklinikan	201
Maitia, nun zira?	214
Zure argazkia	219
Txakurrari ipurdia garbitu	222
Ritxar artzaiari bisita	226

Auspoaren azken liburuak:

- 287 Ramos Azkarate
Galtzaundi berriz ere (II)
- 288 Pedro Juan Etxamendy
California'ko bertsolari eta musikari
- 289 Jose Agustin Garziandia
Garai bateko Unaruuko oiturak eta olgak
- 290 Xalbador
Odolaren mintzoa
- 291 Pedro Migel Urruzuno
Koroi eder bat
- 292 F. Apalategi
Karlisten eta liberalen gerra-kontaerak (I) • Relatos de guerra de carlistas y liberales (I)
- 293 F. Apalategi
Karlisten eta liberalen gerra-kontaerak (II) • Relatos de guerra de carlistas y liberales (II)
- 294 Manuel Lasarte
Plaza-gizonak
- 295 Nikolas Zendola
Egan dijoa



Nikolas Zendoiaren lehenengo liburua plazaratu eta zazpi urtera dator bigarren hau. Hau ere bertso-liburua, hura bezala. Hau ere sentimendua eta grazia dariola, hura bezala. Hura *Beranduko birigarroa*, hau *Egan dijoa*. Biak liburu bakarra osatuz, elkarren segidako eta osagarri, izenburuak ere salatari: *Beranduko birigarroa egan dijoa...*

Lehen liburuaz esanak balio du honako ere; are indar handiagoz: "Liburu honetan ditugu, bertso eta kontakizun bakoitzean, Zarautzen bizi den aiar honen hiru ezaugarri nagusiak: hitzaren dohaia, arte-sena eta sentiberatasuna. Hiru ezaugarri, kultur ondare baten ispilu, eta sakoneko giza balore batzuen adierazpen bizi eta bizigarri".

Lehenengo liburuak beti sortzen du, harriduraz gain, halako zalantza moduko bat. Ez ote da zoroaldi bateko emaitza izango? Eta bigarrenaren zain uzten gaitu. Eta bigarren liburuak zalantzak uxatutakoan, Nikolasen honek bezala, hurrengo galdera sortzen digu. Oraingo honetan: nola, nora, norekin... ote doa hegan beranduko birigarroa?

Pello Esnal



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Cultura

ISBN 84 7907 499 X



9 788479 074999